

"Europar parte hartzea mugari inportantea da"

Guillermo Irazoki |
Ikerlaneko marketin zuzendaria | 6

Elgetako herri kontsultaren emaitza etzi

Hondakinen bilketa sistemaren gainean galdetu diete | 21

Erabilera askotariko kultura-gunea Bergarako Seminarioko elizan | 9

74 kaleratze prozedura 2011tik hona Bergarako epaitegian | 2

Corpus jaietan musika ekitaldi ugari antolatu dituzte, Oñatin | 16



Arrasateko Erraldoien Konpartsako kideak, jaietarako azken ukituak ematen erraldoiei.

JAGOBA DOMINGO

Euskal Herriko atleta onenak Oñatin izango dira zapatuan | 23

Debagoieneko bi ordezkari bertso txapelketan

Eskolarteko finala jokatu dute Orion zapatu goizean 11 bertsolarik | 26



Amparo Sanchez. | EFEEME.COM



J&P Brass Band. | ERREKAN GORA



Kashbād-eko Sorkun. | GOIENA



Anje Duhalde. | GOIENA

Laburrago baina indartsuago etorriko da Errekan Gora uztailean Eskoriatzara

Herriko gune gehiagotara heldu gura dute eta hala lau txokotan egingo dituzte kontzertuak | 25

SEAT LEON ST BERRIA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT

SINADURAK



GOTZON IPARRAGIRRE | 7



INAZIO ARREGI | 7



SONIA ETXENAUSIA | 20



IDOIA ETXEBERRIA | 56

Ordaindu ezinaren mina, galeraren samina

- Debagoienean kaleratutako familien %81 bertan jaiotakoak dira
- Irtenbidea bilatzea errazagoa da auzia epaitegietara iritsi aurretik

IRATI GOITIA | ARRASATE

Bertakoa, klase ertainekoa eta azken urteotan langabezian gelditu dena. Horixe da kaleratzeak sufritzen dituzten pertsonen profila, Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataformak dioenez. Eta hala, hainbat aurreiritzi bertan behera gelditzen direla diote. Ezagutzera eman dituzten datuen arabera, familien %81 dira bertakoa, eta %19 soilik kanpotarrak. "Bizitza guztia lanean egin eta langabezian gelditu direnak edo minienpleguak dituztenak dira kasuen gehienak", azaldu du Juanito Iartzak, plataformako kideak. "Euren diru-sarrerak behera egin dute, baina hipoteka ordaintzen segitu behar dutenak".

"Isilarazitako arazoa"

Krisiaren eraginez kaleratzeak ugartu egin ziren. Azkenaldian, baina, ez dira horrenbeste entzuten. Arazoak hor jarraitzen du, ordea. Debagoienari dagokionez, azken lau urteotan 74 prozedura sartu dituzte Bergarako epaitegian (2011n 28, 2012an hemezortzi, 2013an hemeretzi eta 2014an bederati). Isilean gordetako arazoa dela dio Iartzak. "Badirudi ez dagoela arazorik, existitu ere ez dela egiten. Emaitez adierazten dute, baina, arazo larria dela". Bestalde, Iartzak gaineratzen du kaltetuek eurek ere ez dutela publiko egin nahi izaten euren egoera. "Gizartean gaizki ikusia dagoela esango nuke. Izan ere, bizitzan helburu batzuk izan ohi ditugu, normalean: etxe bat izate,

te, ezkontzea eta umeak izatea. Asmo horretan ezin da kalerik egin, eta, beraz, etxea galtzea ikusten da porrot bezala. Horregatik, kaltetuek ez dute nahi izaten inork ezer jakitea".

Ondorioz, arazoari berari aurre egitea ere zaildu egiten dela dio plataformako kideak, kaltetuei eurei laguntza eskatzea nekeza egiten zaielako. "Bloketauta etortzen dira. Ezer egiteko ezgaituta", dio Iartzak. Gaineratzen du, gehienetan, familiako kideren bat edo ezagunen bat joan ohi dela laguntza eske euren taldera, eta ez kaltetua bera. Horregatik, beraien iniziativa sortzen ahalegintzen direla esan du. Izan ere, arazoari zenbat eta lehenago egin aurre, orduan eta hobeto dela dio Gaizka Jainaga plataformako kideak: "Zenbat eta azkarrago, orduan eta aukera gehiago izango dira arrakasta izateko edo irtenbide bideragarri bat aurkitzeko". Auzia epaitegira iritsi aurretik erantzun behar dela dio Jainagak, aukerak gehiago izaten direlako.

Irtenbide bila

Hain zuzen, Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataformak irtenbidea bilatu dien kasu guztiak aurre-judizialak izan dira. "25 kasu artatu ditugu orain arte eta %60 libratu ditugu", zehaztu du Iartzak. Lehenik eta behin, kasua aztertzen dutela azaldu du eta alternatibak proposatu ondoren. "Gu ez gara ekonomistak ezta abokatuak ere. Esperientzietatik goaz ikasten", adierazi du Jainagak. Eta Juan Luis Merino plataformako beste kide batek zehaztu du Gipuzkoa mailan tailerrak eta ikastaroak ere egiten dituztela ezagutza areagotzeko. Beharra dagoenean Donostiara ere jotzen dutela dio psikologo edo abokatuaren laguntza eske. Plataformako kideek gaineratu dute kaltetuek laguntza behar izaten dutela "arazo bidegabe" honi aurre egiteko, "legeek eta gobernuek ezer gutxi" egiten dutelako.

Familiei hipotekaren eskriturak eta datu ekonomiko eta pertsonalak eskatzen dizkiete haien egoera zein den aztertzeko. "Familiak diru-sarrera gutxieneko bat badu, banketxeekin negoziatzen saiatzen gara, ordaindu beharreko kuotak familiaren egungo egoera ekonomikora egoki daitezen. Horretarako, saiatzen gara, adibidez, kredituaren epea handitzen edo interes maila jaitzen", azaldu du Jainagak. Diru-sarrerak ez badira behar besteak, zorraren zati bat ordaintzea proposatzen dute. Diru sarrerarik ez dagoen kasuetan, berriz, etxea



Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataformako kideak, Arrasaten egindako agerraldian.

Bailaran artatutakoen adibideak

1. KASUA

Garaje baterako 18.000 euroko mailegua eskatu zuen pertsona batek. Ezin izan zuen ordaindu eta bankua garajearekin gelditu zen. Pertsona horrek itzuli ditu 18.000 euroak interesekin, baina oraindik 20.000 euroko zorra exijitzen diote, %12ko interesaz haziz doana. Bere etxea kentzen ere saiatu dira zorra kitatzearen argudioz.

2. KASUA

Autonomo bat baino gehiagoren kasua da honakoa. Krisiaren eraginez bere negozioa gaizki joan eta etxebizitza berme gisa jarri dutenak mailegu bat eskatzeko. Negozioak porrot egin eta etxebizitza galtzeko arriskua izan dute. Kasu batzuetan, etxean jarraitzen dute zorra berriro negoziatuz. Beste batzuetan, etxea ordainetan eman eta zorra kitatzeko negoziatzen dabilta.

3. KASUA

Haurra duen banandutako bikotearen kasua da hirugarren hau. Gizonak soilik ditu diru-sarrerak, baina ez da familia etxean bizi eta ez du hipotekarik ordaintzen. Ondorioz, bankuak etxetik botatzeko mehatxu egin zion emakumeari. Negoziatuz,

ordaingarri diren kuotak adostu dituzte banketxearekin urte baterako. Bitartean, kasua epaitegian dago gizonak bere zatia ordaintzea eskatzeko.

4. KASUA

60 urte inguruko gizona, lanik gabe gelditu eta etxea galtzeko arriskuan. Negoziatio luzeen ondoren, zorra birnegoziatu eta etxea ordainetan emateko aukera eman zioten.

5. KASUA

Hiru kideko familia, haur bat barne. Etxea jada bankuak epaitegian bereganatua zuen eta kaleratzea gauzatzea gelditzen zen. Plataformako abokatu kolaboratzaile baten laguntzaz, etxea banketxeari berriz erosteko negoziatzen dabilta (diru-iturri berria dago) banketxeak etxea bereganatutako prezio berean (etxe tasazioaren %60).

6. KASUA

Bikote gaztea, biak lan gabe gelditu eta senideei eskatutako diruaz ahal zuten guztia ordaintzen joan dira, baina zorra etengabe doa haziz. Bankuarekin negoziatu ostean, eta protesta ekitaldia egin ondoren, beraien egoera berrira egokitzen ziren baldintzak lortu ziren denbora tarte baterako.

DATUA
74
UNITATEA
2011 ezker 74 kaleratze prozedura sartu dituzte Bergarako epaitegian.



Ondo pasa
San Juan
jaietan!

Arrasateko hipermerkatua



zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es



| GOIENA

ordain gisa ematen saiatzen dira, bizi osorako zorrik gera ez dakion kaltetuari, eta urte batzuetarako alokairu soziala eskatzen dute.

"Gehienetan banketxeek kaltetuei egiten dizkieten hasierako eskaintzetan, helburua ez da izaten arazoari irtenbide erreal bat bilatzea, bankuaren zenbakiak garbitzea edo hipoteka ordaindu gabeak ezkutatzea baizik", dio Jainagak. Plataformako kideak dio beste kasu batzuetan berandago ordaintzea eskaintzen zaiela kaltetuei, interesa handituz. "Ohiko interesa %3koa bada, berandutze interes hori%12koa da legez, eta orain dela gutxira arte bankuek nahi izan duten bestekoa, %20 edo gehiago. %3 ordaindu ezin duenak nekez ordainduko du %7ko edo %12ko interesa aurrerago. Hala, zorra handituz eta handituz doa. Azkenean, bankuak ahalik eta diru gehien xurgatzen die familiei, eta, ezer gehiago atera ezin denean, etxegabetze prozedura bideratzen du", azaldu du Jainagak. Hain zuzen, taldeko kideek diote aztertu dituzten hipoteka guztietan daudela neurrigabeko klausulak: berandutze interesak, zoru klausula, hipoteka beste entitate bati saltzeko eskubidea bezeroari abisatu gabe, IRPH...".

Bestalde, diote bankuaren arabera, konponbiderako aukerak ezberdinak direla. Kutxabankeko edo La Caixako kaltetua izatea ez da gauza bera, euren esanetan. "Akordio batera iristeko dituzun aukerak ezberdinak dira batekin

edo bestearekin. Kutxabanke, adibidez, inolaz ere ez du onartzen etxea ordain gisa ematea", dio Merinok.

Taldeko hiru kideek diote garrantzitsua dela kaltetuek eurek lideratzea prozesua. "Beti errespetatzen dugu kaltetuek aukeratzten duten bidea", dio Iartzak. Gaineratzen du tratua ere oso ezberdina izaten dela bankura bitartekariaz joan edo ez: "Egingo dituzten eskaintzak ezberdinak izaten dira lagunduta edo lagundu gabe joanez gero".

Hutsuneak

"Zu zeu zure mekanikariarekin fio zara, mekanikaz ez duzulako ideiarik ere; edo zure arrain-saltzaileaz edo harakinaz. Eta, hain zuzen, jendea bankariaz ere fidatu da. Askotan, fede onagatik; eta beste batzuetan, ezjakintasunagatik. Horrela, errealitatea da sinatu dituztela gauza mordo bat zer ziren jakin gabe eta hainbat eskubideri uko egin dietela. Gehiegikeriak, baina, alde guztietan izan dira. Izan ere, notarioek ere galdetu beharko liekete sinatzaleei ea dena ulertzen zuten, baina ez zuten egiten. Politikariak ere atera dute probetxua. Adreiluaren negozioa bideragarria zen guztientzat. Orain eztanda egin duenean, ordea, kalteak ordaindu behar dituzten bakarrik familiak dira".

Arazo horri aurre egiteko koordinazioa falta ere badagoe, dio Jainagak. "Talde politiko edo estamentu administratibo

ARANTXA | KALERATUA IZATEKO ARRISKUAN

"Banketxe batek ez dit nire bizitza hondatuko, nik aurrera egingo dut"

Arantxa [ez da bere benetako izena] kaleratua izateko arriskuan dagoen debagoiendar bat da. Banketxeari etxea ordain gisa emateko eskaera egin dio hiru bider, baina oraindik ez du erantzunik jaso. Sei hilabete daramatza kuotarik ordaindu gabe.

Nola iritsi zinen egun bizi duzun egoerara?

Duela ia urtebete langabezian gelditu nintzen. Ostean, 337 euroko prestazioa jasotzen nuen, eta azkenean, iritsi zen une bat ezin niena gastuei aurre egin. Laguntza eskatu behar izan nuen gizarte zerbitzuetan eta Caritasen. Gasa, ura, argia eta jana ordaintzeko eurek laguntzen didate. Egoera horretan nola egin aurre hipotekari? Hala ere, langabezian gelditu ostean ere ordaintzen jarraitu nuen ahal izan nuen arte eta ordaintzeari utzi behar izan nionean, banketxera joan nintzen erabakia jakinaraztera, baita eurekin negoziatzera ere ea irtenbide bat bila genezakeen, baina ez dute jarrera onik erakutsi. Alderantziz, umiliazioa izan da. Bankuko zuzendariaren jarrera

erabat agintzailea eta gizagabea da. Ordainagiririk ere ez du sinatu nahi izan dokumentuak eramatera joan naizen bakoitzean, eta udaltzainei deitu behar izen diegu aktan jaso zezaten.

Nola sentitu zinen gastuak ordaindu ezinik gelditu zinenean?

Estresatuta, urduri eta erabat arduratuta nengoen; izan ere, etxetik botako nindutela uste nuen. Orduan, Stop Kaleratzeak plataformaz oroitu nintzen eta deitu egin nien. Psikologikoki oso gaizki etorri nintzen eurena, negarrez. Haiek laguntza eskaini zidaten eta nituen aukeren berri eman. Alabarekin ere lagundu zidaten. Izan ere, ez nekien berari nola kontatu gertatzen zebilena. Hura ikasten dabil, eta ez nion ezer esan nahi azterketak amaitu arte. Izan ere, banekien atsekabetu eta ez zituela gaindituko. Egia esan, plataformari esker burua jaso nuen. Izan ere, bakoitzak aurrera egingo duen erabakia hartu behar du. Bakoitzak bere konponbidea proposatu du, baina kaltetua lehenetsi gabe". Adibideak ere jarri ditu: "Eusko Jaurlaritzak Euskal Ekonomisten Elkargoaren aholkularitza jarri zuen. Kasu konplikaturen bat izan dugunean eskatu dugu laguntza, baina ezer gutxi lortu dugu. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak abokatuak jarri zituen, asmo onez, baina proiektua erdi bidean geratu da".

Hala ere, bailarako udalekin duten harreman ona nabarmendu nahi izan du Iartzak: "Harremana oso erraza da eta babesa jaso dugu". Merinok zehaztu du Eskoriatzan diru partida propioa dutela kaleratuei laguntzeko.

Zeintzuk izan dira hartu dituzun erabakiak egoera hobetzeko?

Diru-iturririk ez dudanez, ikusi genuen irtenbiderik egokiena izango litza-tekeela bankuari etxea ordain bezala ematea eta gu alokairu sozialeko etxe batera joatea. Dokumentazio guztia batu eta eskaera 2013ko abenduan aurkeztu genuen lehen aldiz. Erantzuna dokumentazioa falta zela izan zen. Bigarrean ere gauza bera, eta orain hirugarren erantzunaren zain gaude. Zer gertatuko den ez jakitea da okerrrena. Sei hilabete daramatzat kuotarik ordaindu gabe eta Kutxabankeko inor ez da nirekin harremanetan jarri zer gertatzen den galdetzeko. Eta larriena da Kutxabanke praktika oneko kodea onartu zuela.

Aurrera begira zer?

Bi aukera ditut: behera etortzea edo aurrera egitea. Nik argi dut. Erabaki dut banketxe batek ez didala bizitza hondatuko. Borrokatzen jarraituko dut. Ez dago eskubiderik jendeak bere buruaz beste egitea etxea ordaintzeko dirurik ez duelako. Nik aurrera egingo dut. Ikasten ere banabil, etorkizunari begira, niregatik eta, batez ere, nire alabarengatik.

Debagoieneko Stop Kaleratzeak

2012ko azaroan sortu zuten Stop Kaleratzeak plataforma Debagoienean. Boluntarioek, kaltetuek eta haien familiako kideek osatzen dute; hainbat sentsibilitatetako lagunek. Mugimendu soziala da eta helburua da kaleratuak izateko arriskuan daudenei laguntzea. "Injustizia sozial bati aurre egiteko nahiak lotzen gaitu", diote taldeko kideek. Egun, hamabi bat dira plataforman; nahiz eta egiten dituzten ekitaldietarako jende gehiagoren babesa dutela dioten. Euren helburua da herri bakoitzean arduradun bat izatea. "Gertutasuna ezinbestekoa da kaltetuaren egoerari jarraipen egokia egiteko", adierazi dute plataformakoek.

KONTAKTUA

688 89 76 99

Laguntza behar duen edonork edo boluntarioa izan nahi duenak zenbaki horretara dei dezake. Plataformakoak abokatuen bila dabilta.

"Lor daiteke"

Hutsuneak eta oztopoak ugari diren arren, plataformako kideen arabera lor daiteke aurrera egitea. "Ikasi dugun gauzetako bat da lasai egon behar dela, badirelako aukerak eta mekanismoak egoera arintzeko edo konponbidea bilatzeko", dio Iartzak. "Aztertu eta landu ditugun kasuetatik, esperientziatik, ikusi dugu posible dela", gaineratu du Jainagak. "Indarrak batuta posible da injustizia honi aurre egitea", amaitu du Merinok. Eta euren iritziz, borrokatu beharra dago herritarren eskubide sozial bat ez galtzeko, etxebizitza eskubidea: "Etxebizitza duin bat izatea herritar guztien eskubidea da eta banketxeek gobenuen laguntzarekin etxebizitzekin egiten dituzten astakeria guztien aurrean borrokatu egin behar da". Horrela, kaleratua izateko arriskuan dagoen debagoiendar orori egiten diete dei, laguntza behar izanez gero, euren gaitasuna jartzeko. "Erabateko diskrezioa eskaintzen dugu", zehaztu du Jainagak. Ordaindu ezinaren mina poliki-poliki gainditu daitekeela erakutsi nahi dute plataformako kideek.

RPS: 68/14



PHONO GUNE

otorrinolaringologia klinika

HEMEN GAUDE:

- Udalaitz Mediku Zentroa**
Euskal Herria Plaza 3 ARRASATE – 943 79 44 22
- Urbieta Mediku Zentroa**
Urbieta kalea 58 DONOSTIA – 943 47 01 44

Otorrinolaringologia kontsulta berria

ARRASATEN (Udalaitz Mediku Zentroan)

Juanjo Navarro eta Mikel Landa doktoreak

Azterketa diagnostikoa teknologia aurreratuarekin eta ENTZUMEN, SUDUR, EZTARRI eta LEPOko gaixotasunen tratamendu mediku-kirurgiko integrala:

- Gortasuna, zorabioak (bertigoak) eta akufenoak
- Arnasteko zailtasunak. Errinoplastia estetikoak
- Zurrungen eta loaren apnearen tratamendua.
- Ahotsaren patologia eta otorrinolaringologia pediatrikoa



AMAIA TXINTXURRETA

Esker ona adierazi diote Erkorekari

Herri Administrazio eta Justizia sailburu Josu Erkorekari eskerrak eman dizkiote Debagoienari egindako ekarpenengatik eta lortutakoarengatik, Oñatiko batzokian; hark Euskadiko egoeraz jardun du, EAJren helburuak azaldu ditu eta horiek lortzeko ze jardun egiten ari diren adierazi. Mugitu AHT Gelditzeko taldeko kideek protesta egin zuten kanpoan.

Lantokira oinez edo bizikletaz joateko eta etortzeko kanpaina bultzatuko dute gure eskualdean

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek lantokietara joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea sustatzeko programa jarriko dute martxan urriaren 1ean. Oraingoz, 22 enpresak erakutsi dute interesa parte hartzeko. Asteon aurkeztu dute Euskal Herrian aitzindari izango den ekimena. Aurrekontua 30.000 eurokoa izango da.

Isaias Carrasco zinegotzi sozialistaren ustezko hiltzailea eguaztenean pasa da epailearen aurretik

"Mutil hau [Beñat Aginagalde, Isaias Carrascoren ustezko hiltzailea] aurrean eduki nahi nuen eta, azkenean, heldu da eguna. Nire bizitzaren aro bat amaitu da". Halaxe mintzatu da Sandra Carrasco asteon, ETAk duela sei urte hil zuen Isaias Carrasco arrasatearraren alaba komunikabideetan. Adierazpen horiek egin ditu arrasatear gazteak, asteon epaitu dutelako Isaias Carrasco aitaren ustezko hiltzailea.

Uribetxeberria aske utzi izana "mesfidantza puntu batekin" hartu dute ezker abertzalean

Josu Uribetxeberriari baldintzapeko askatasuna eman ziotela jakin eta gutxira egin ditu adierazpenak Arrasateko ezker abertzaleko kide Enrike Letonak. Uribetxeberriak berak eta ingurukoak albiste "poztasunez hartu" zutela azaldu zuen, nahiz eta oraindik "mesfidantza puntu bati" eusten diotela aitortu. "Mendeku bat zegoen hor, baina ikusten dugu zentzu apur bat duen norbait ere badagoela, gutxienez, Auzitegi Nazionallean", gaineratu zuen.

Ospitaleko kirofanoak itxi egingo dituzte hamaika egunez, obretarako

Hainbat gaixo Arabako zein Mendaroko ospitaleetara bideratuko dituzte

U.M. | DEBAGOIENA

Uztailaren 24tik abuztuaren 3ra jarduna eten egingo du Debagoieneko Ospitaleko eremu kirurgikoak, "kirofanoetan behar diren hobekuntzak egiteko eta instalazioak ahalik eta egoera onenetan izateko, bertan ebakuntza kirurgikoak izan behar dituzten pertsonen arreta kalitatez eta segurtasun onena izan dezaten", esplikatu dute Ospitaletik. Bitartean, "larrialdietako kirofano bat egongo da zabalik, bizi-larrialdietarako".

Azaldu dute, baita ere, premiazko ebakuntzaren bat egin behar izanez gero, protokolo guz-

tiak gertu dituztela: "Larrialdi Zerbitzura etor daitezkeen eta premiazko ebakuntza behar izan dezaketen pertsonak berehala Arabako Unibertsitate Ospitale- ra edo Mendaroko Ospitalera eramateko".

Programatutakorik ez

Hobekuntza lanak data horietan egitea erabaki dute, "oporraldia eta gure eskualdeko ohiturak kontuan harturik, gaixoei eta euren senitartekoei ahalik eta eragozpen txikienak sortzeko. 11 egun horietan ez da programatutako ebakuntza kirurgikorik egingo", azaldu dute.

Haurdunak eta beste

Haurdunei eta erditzeko uneen daudenei dagokienez, berriz, Erditze Unitateko harrera itxita egongo da uztailaren 24tik (15:00) abuztuaren 4ra (08:00) erditzeko uneen dauden emakumeentzako. Hala, jakinarazi dute "izango duten erreferentzia Arabako Unibertsitate Ospitalea" izango dela, "betiere Ginekologia eta Obstetrixia Zerbitzutik emango zaizkien argibideei jarraituz". Edozelan ere, azpimarratu dute "jaio aurreko asistentzia maila altuenean mantenduko dela" Debagoieneko Ospitalean.



Agintariak (Arrasateko alkatea tarteko) azokaren irekieran. | MIRARI ALTUBE

Azoka arrakastatsua eta praktikoa egin dute Arrasaten, lan bila dabilzanendako

U.M. | ARRASATE

Ehunka langabek aprobetxatu dute atzoko eguna (eguna) enpresetan curriculumak entregatu eta lan-elkarriketak egiteko. Jakina, enpresek gauza bera egin dute, kasu honetan, langile berri izan daitezkeen horien datuak hartzeko. Hori guztia, Garaia Berrikuntza Gunean egin dute, Lanbai, II. Enplegu eta Formazio

Azokaren baitan, atzo hasi eta bukatu zena. Besteak beste, eta "gazteen laneratzea bultzatzeko" Arrasateko Udalak ere bat egin du aurten azoka horrekin.

Unibertsitate mailako eta goi-mailako heziketa-zikloko titulu-dunek parte hartu dute ekimenean eta hainbat sektoretako 30 enpresa eta erakundek, eskualdekoak zein kanpokoak.

Gure Esku Dago-ren etorkizuna aztergai bihar Arrasaten

U.M. | DEBAGOIENA

"Ekainaren 8a egun handia izan zela esan eta entzun dugu. Pozik gaude egindako lanarekin eta aurrera jarraitzeko indarrak hartzeko ere balio izan zigun igandekoak. Horregatik, ekainaren 21ean, larunbata, Euskal Herrian zehar sortu diren herri-batzordeen arteko bilera bat egingo dugu"; modu horretan iragarri du Gure Esku Dago ekimenak Arrasateko Amaia Udal Antzokian egingo duten lan-bilera. Laburbilduz, helburua da "azken urtearen balorazioa egin eta aurrera begira geure buruari jarri beharreko erronkez" aritzea.

Biharko batzarrerako 09:45ean elkartuko dira eta 13:15ean bukatuko dute.



AUKERA BIKAINA **ARRIOLA** herrian (Asparrena - Araba)

ASPARRENGO UDALAK

1.502,02 metroko partzela salgai du.

Urbanizatua, itxiera perimetrala.

Etxebizitza familiabakarra egiteko aproposa

Proposamenak aurkezteko azken eguna: ekainak 27

Informazio gehiago: www.asparrena.net edo

Udal Bulegoetan. Tel.: 945 30 40 06

PREZIOA:
83.471,47€
+ BEZa



(B) Diru (B)eltza, gizarte-zerbitzu (B)eltzak

“A” gizartea
lortzeko

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



 **Gipuzkoa**
BERRIA

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Guillermo Irazokik (Bera, 1956) 1982a ezkeror dihardu Ikerlanen. Eibarren eta Donostian egin zituen Ingeniaritza ikasketak, baina bukatu eta berehala hasi zen Arrasaten, lehenbizi, bekadun. Hortaz, Ikerlanen eman du lan bizitza osoa eta arlo guztiak ezagutu ditu. Marketinean dihardu orain, zuzendaria da. Ikerlanek 40 urte betetzen dituela-eta jo dugu harengana.

40 urte bete ditu Ikerlanek. Ezaguna da gizartean Ikerlan?

Enpresan, administrazioan eta Debagoieneko gizartean ezaguna da. Egia da, halere, ez dugula inbertitu komunikazioan, ez bada, gure alorrean.

Gizarteari Ikerlanek egiten dion onura nabarmena da, halere?

Bai. Izan ere, batzuetan, ez da gure izena ateratzen, baina berrikuntza eta ikerkuntzari buruz badihardugu Euskal Herrian, Ikerlanen eragina agerikoa da. Gure bezeroen proiektuak, zerbitzuak edo produktuak, askotan, ezagunak dira gizartean, baina gu geu, ez horrenbeste.

Adibide pare bat aipatzerik?

Orona da gure bezero garrantzitsuenetakoa eta harremanak ditugu aspalditik haiekin. Horrez gainera, erreferente da Espainian igogailuen sektorean. Bada, Ikerlanetik urtero saiatzaren gara berrikuntzaren bat aplikatzen igogailu horietan. Azkena, energia aurreztearekin lotutakoa. Motorraren orde, generadore bat erabiltzen dugu energia sortzeko eta bateria baten sartzen dugu. Edo energia trifasikoaren orde, etxeko konexioarekin erabil dezakegu gaur egun igogailua. Beste adibide bat da CAF tren konpainia. 2002a ezkeror dihardugu haiekin. Sistema elektronikoa garatu dugu eta negozio berria sortu dugu trenendako sistema elektronikoa aurreratuak saltzeko. Tranbiak katenariarik barik erabiltzeko moduan garatu ditugu... Bestalde, Lau Lagun enpresarekin ere harremanak ditugu. Haize-sorgailuendako makineria egiten du enpresa horrek eta haren bezero nagusia Gamesa da. Enpresak garbi badauka zer eta zeinek in egin nahi duen lan eta harendako teknologia inportantea bada, gurekin lan egin dezake.

Zerekin lotzen da Ikerlan marka?

Oso lotua dago bi esparrurekin: batetik, ahalmen handia dauka gu hainbat teknologia integratzeko eta, horrekin, enpresei

Guillermo Irazoki | IK4-Ikerlaneko marketin zuzendaria

"Enpresa batendako oso inportantea bada teknologia, Ikerlanekin lan egin dezake"

- IK4-Ikerlanek 40 urte bete ditu eta Garaia ikerkuntza gunean ospatu du
- "Europako proiektuetan parte hartzen hastea mugarri inportantea izan da"



Guillermo Irazoki, Ikerlanen Olandixoko egoitzaren aurrealdean. | ENEKO AZKARATE

soluzioak eskaintzeko; bestetik, inbertsioa oso ardaztuta dauka gu teknologia konkretuetara, eta horiek enpresekin batera zehaztuta daude. Oso praktikoak gara eta enpresen benetako beharrei erantzuten diegu. Hori da gure bereizgarria. Bestetik, tesiak egiten ditugu. Ikerlariak egiten

dituzte, eta tesi horiekin komunikazio handiak egiten ditugu kongresuetan edo aldizkari espezializatuetan. Horrek ere ematen digu ospea. Gure ezagutzaren transferentzia hor dago; baina, bestetik, adierazleak ere bai, markatzen dutenak ze egoeratan gauden Europako beste ikerkuntza zentro batzuekiko.

Europako ze herri dira Ikerlanendako erreferentzia?

Alemania, Ingalaterra, Suedia, Finlandia, Frantzia... Azken finean, ikerketarako inbertsiorik handienak egiten dituzten herrietako enpresak. Haiekin batera jarduten dugu hainbatean, gainera. Ikerketarako inbertsioak gobernuek egiten dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoa ze mailatan dago?

Europako herrialdeen artean, erdi inguruan, eta Espainiaren gainetik. Inbidiaz begiratzen dute gure egoera Espainian.

Eta ze sektoretan dihardu Ikerlanek?

Azken urteotan garrantzi handia eman diogu energia berriztagarrien alorrari, batik bat; energia eolikoari, esaterako. Baina fabrikazio prozesuetan energia zela sortu edo aurreztu ere oso garrantzitsua da guretako. Esaterako, Urola Solutions enpresarekin dihardugu, makina eraginkor eta efizienteagoak sortzeko. Fabrikazioko alorrean, makina erremintaren sektorean ere bai. Eta gero, automobilgintzan, osasunean... Azken honetarako, Garaian daukagu ikerketa gune bat. Etor-kizuna da.

CAF, Orona, Fagor Arrasate, Aernova... zuen bezero garrantzitsuak dira eta guztiak ere erreferentziakoak dira euskal industrian.

Bai, gure aliatuak dira eta horregatik gonbidatu ditugu gure 40. urteurrenko ekitaldietara. Berrikuntzarekin oso lotuak daude eta traktore dira euskal industriarendako.

Krisi honek erakutsi digu ikerkuntza eta berrikuntzari baliabide gehiago eskaintzen dioten enpresak direla ondoen doazenak?

Hein baten bai. Gutxienez, zure lehiakideen parean bazaude errazago joango zaizkizu gauzak, ezeren berme ez izan arren, faktore asko hartu behar direlako kontuan.

Ze adierazten du IK4 aurrizkiak?

Aliantza bat. Euskal ikerkuntza zentro ezberdinen autonomia bultzatzen du, baina, hainbatean, komeni da elkarrekin jardutea, estrategiak konpartitzea, erabakiak konpartitzea... Bezeroak soluzio integralak eskatzen dituenean IK4ko kide ezberdinen artean osatzen dugu eskaintza.

Bestetik, ikerketa batzuek tamaina handia eskatzen dizute eta elkartuz tamaina egokian lehia gaitzke.

Non dituzue bezero nagusiak?

Gehienak, Euskal Herrian, baina kanpoan ere baditugu. Esaterako, gure bosgarren bezeroarik onena da Altsom, energia sortzeko azpiegiturretan liderra dena. Bestela, CAF eta Orona dira gure bezerorik onenak.

MUko Ikerkuntza errektore ordea izana zara eta Ikerlanek lotura agerikoak ditu MUrekin, baina bestela ere harreman estuak gauzakue hezkuntzarekin?

Bai. Edozein unibertsitatearekin, izan hemengoak edo kanpokoak, jarduteko bokazioa daukagu. Bilatzen ditugu elektronikaren edo energiaren alorrean dabilen eta erreferente diren unibertsitateak. Hainbat proiektutara elkarrekin aurkezten gara. Bestalde, gure tesiak unibertsitateetan garatzen saiatzen gara, kanpokoetan. Edo ikasleak gura ere etortzen dira.

Zertan aldatu zarete 40 urteotan?

Europako proiektuetan parte hartzen hastea izan zen mugarri bat, 80ko hamarkada hasieran. Bestetik, enpresekin harremanak ere asko aldatu dira. Hasieran, enpresek ez zuten Ikerkuntza eta Garapeneko departamenturik. Euskal gobernua zentro teknologikoak bultzatzea ere beste mugarri bat zian zen. Azkeneko 10 urteotan, bestalde, ikerketa mailan asko inbertitu dugu: tesietan, harremanetan... Gero, IK4 aliantza ere nabarmentzekoa da.

Krisiak zela eragin du zuengan?

2011tik aurrera igarri dugu krisia, batik bat. Hobekuntza zantzuak ikusten dira, baina...

Zer da IK4-Ikerlan gaur egun? Datu batzuk emango dizkiguzu?

250 langileko kooperatiba da eta 210 lan bazkideak gara. Lau lan zentro dauzkagu: Olandixokoa da egoitza nagusia; beste laborategi bat daukagu, energiek lotutakoa, Miñanon; beste bat, mikro-teknologiekin lotutakoa, Garaian, eta aurrean, Oronarekin batera, Galarretako eraikin berri-joatekotan gara. Bestetik, 90 bezero izan genituen iaz eta diru sarrerak 18,6 milioi eurokoak izan ziren; horietatik 11 enpresetatik etorri ziren. Gure sarreren %40 erakunde publikoek ikerkuntzari eskaintzen dieten baliabideetatik datoz.

NISSAN QASHQAI BERRIA
BEHIN BETIKO HIRI ESPERIENTZIA



19.075 €*-tik

Behin betiko hiri crossover-a ezagutu. Ausarta eta teknologia onenarekin hornitua. Gidariarentzat kontrol osoa emateko egina. Nissan QASHQAI berria da.

GaurSa-ra
etorri probatzera

OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL.: 943 82 09 74
EIBAR



*Penintsula eta Balear uharteetarako salneurria 14/06/30 arte baliagarria da eta barnean hartzen ditu: PFF, garraioa, Nissan Asistancia, BEZa, matrikulazioa, PIVE 5 plana eta PIVE 5 planarendako ekizlearen ekarpena. Eskaintza baliagarria Nissan Qashqai berria erosten duten autonomo eta partikularrentzat, 10 urte baino gehiagoko ibilgailu bat ematen dutenentzat erosilearen izenean eta Espainiako sukursaleko RCI Banque S.A.-ren Magic Planarekin finantzatzeko dutenentzat. Gutxienezko irautea 24 hilebetekoa. Ez da jasagarria beste kanpaina batzuekin. Informazio gehiagorako GAURSA-ri etorri. Eskaintza baliagarria ekainak 30-a baino lehenago matrikulatzen diren ibilgailuentzat.

ZABALIK



GOTZON IPARRAGIRRE
goiena.net/komunitatea/

Rio Madre

Ohitura daukat, gidatzerakoan, errepideari ez ezik, inguruari ere begiratzekoa. Amets egiten dut sarri, halako edo besteko imajinatuz; paisaia politak, herri zoragarriak, naturgune ederrak... ikusteko eta eurekin gozatzeko aukera paregabea eskaintzen dit gidatzeak.

Duela hilabete batzuk, pentsakor, Errioxan barna nindoala, erreka baten izena zeraman seinalea tupustean agertu zitzaidan, arreta guztia bereganatuz: Rio Madre zioen. Ze polita! Denboran atzera, izena jarri zionaren ikusmiraz, liluraz eta sentiberatasunaz bat egin nuen berehala.

Ba ote izen politagorik erreka bati jartzeko? Bi hitzek bakanduta daukaten indarra batera doazela ikaragarri biderkatzen da. Sarritan erabili da erreka, bere joanean, bizitzaren paralelismoa egiteko; eta hara non, ama, beti biziaren sorburu.

Makina bat iturburutik jasotzen du erreka batek ura, handi, txiki, ur garbi, zikin... ez dio axola, errekak berak, garbi, garden bihurtuko baititu, nola ama batek bizitzak emandako eztenkada, mingots, garratzak, fereka gozo bihurtuko dituen bere umeentzat.

Errekak uda sargorian eskaini ohi duen freskotasuna eta babesa zabalduko ditu ama batek bere inguru gertukoenean, eta urrunagokoan ere sarri. Nor ez du erreka batek bere joate geldo edo bixkorrean liluratu, erakarri? Eta nor ez da noizbait hunkitu titia hartzeko distantziara umeak amari begiratzen dionean ezeren faltarik gabeko aurpegia erakutsiz?

Eta, biak ala biak, emankortasun oparo horretan, dena emandako lasaitasun eta baretasunaz jomuga erdietsiko dute: bata, geza gazi bihurtzen hasten den ingurune aldakorrean; besteak, ingurukoen artean joan izanaren gazitasuna utziz.

Uste dut urrun gaudela, akaso gertuago, ez dakit, Rio Padre kartelik errepide ertzen baten ezagutzetik. Imajinatzen duzue txinatar bat hori ahoskatzen? Ba horixe... Ai ama!

USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | iarregi@goiena.com

Foballaz bi berba

Eibartar petoak esango lukeen bezala foballaz, ez futbolaz. Bertako foball taldeak ondo mereziak ditu mundu zabaletik heltzen ari zaizkion laudorioak eta akzio harpidetzak. Merezi ditu aurrekontu txikia izanagatik goi mailara jauzia egitea lortu duelako, eta bere foballariak, talde umilak ere goi mailara iritsi daitezkeela erakutsi digutelako. Iristea zaila bada, gogorragoa izaten da itzulera, foballak sortutako burbuilaren jokamolde desegokietan erortzea erraza izaten delako. Diru-sarrerara eta gastu handiagoak, oraingoak baino hobeak ez diren jokalarien nahikeriak... Goranzkoan asmatu duten bezala, beheako bidea datorrenean ere, harro eta zuhur egiteko gai izan daitezela.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Sinpletasunaren erabilgarritasuna

Usua Cuende
argia.com/blogak/usoa-cuende/

Orain dela 3 hilabete, ustez konplexua, ezezaguna, eta erronka berria zen prozesu berri bati ekin nion.

Parte hartze prozesuetan aritua banaiz ere, orain arte esku artean landu gabeko gaiari eustea izan da sentsazio horien erantzule.

Pasa den larunbat goizean amaitu zen prozesuaren jende aurreko lana, eta egia esan, herritarrak emaitzarekin gustura daudela ikusteak ematen duen pozak ez du preziorik.

Parte hartze prozesuen baitan, hasieran beti dago inguru ezezagun bat, non elkarren arteko konfiantzaz aurrera jarraitzen den.

Emaitza zein izango den ez dakigu, baina bideari ekiteko prest abiatzen gara prozesu hauetan.

Aurreiritziak, mila: emaitza esanguratsua, originala, bakarra (beste inon ez dagoena), berritzailea, erabilgarria, eredugarria, eta "garria" guztiak eransten dizkiogu datorren horri.

Kontua da, prozesu bat hasten denean, behar bati erantzuteko asmoz, gehienetan, behar horri erantzuna emateko formula ugari ditugula, Sinpleagoak eta konplexuagoak, nolabait sailkatzearren.

Amezketan, azken hiru hilabeteko lanketaren ondorioz, herrian "alokairu zerbitzua" egituratu eta diseinatu dute, erabilgarria eta egingarria izango dena.

Baliteke, zenbaitentzat, emaitza sinplea izatea, eta nik gaineratuko nioke, konplexua ere badela, izan ere, prozesu guztian zehar parte hartu dutenen adostasunez eraikia izan baita.

Beraz, erabilgarria.

Takilla

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Orain gutxi arte, presoek neurri eta irtenbide kolektiboak eskatzen zituztenean, erantzun bera jasotzen zuten beti: ea, apaldu gandorra, eta pasa, pasa zaitezte banan-banan takillatik!

Orduan bai, orduan bakarrik aintzetsiko ditugu zuen eskariak!

Azken aldian, presoak hasiak direnean takillara hurbiltzen banakako gerturatzeak eskatzeko –atzo arte iritzi publikoak Estatuaren sekulako garaipentzat hartuko zukeen gertakari bat da–, takilla guztiak itxita daude giltzarra astunenekin.

Eta, itxura guztien arabera, takillak zabaltzeko asmorik ez.

Iritzi publikoak presoak *herrira ekarriko dituen sare* bat josten ez duen bitartean, zertarako zabaldu?

Eta iritzi publikoa deitzen duten horrek ez baitu protestan hasteko trazarik —aitzitik: administrazioak takilla zabalduko balu egingo luke protesta—, presoek banakako eskaeren paper-meta pilatzen eta pilatzen ari da leihatila kanderatu baten aurrean.

Eskuzabalak izango omen ziren.

Arazoetan lo

Bixente Serrano Izko
berria.info/blogak/bixente/

Zorionsua zu, arazo batek lorik kentzen ez badizu! Zureak egin du, ordea, arazo guztiek lotan harrapatzen bazaituzte.



KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioiko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

GUTUNAK

Mila esker
Arrasateko
Ospitaleko
errehabilitazio
zerbitzuari!

Javier Bujanda Diaz
Oñati

Lesio bat izan berri dut eta egunero joan naiz bertara errehabilitaziora. Tratua ezin hobea izan da, beti irribarrez hartu naute eta zalantza guztiak argitu dizkidate. Mariak, nire fisioak, lesioa nabarmen arintzea lortu du eta ni ospitalera gustura joatea beraren meritua izan da. Iñaki, Oihana, Charo eta Zorione fisioekin eta Isabel medikuarekin denbora gutxiago egon naiz, baina haien tratua ere primerakoa izan da, ezin kexatu naiteke. Nork esango zidan ospitalean lagunak egingo nituela! Bizitza honetan, zoritxarrez, ohituta gaude gauza txar guztiak edo ia guztiak esaten; gauza onak aipatu behar direnean isilik geratzen gara, ordea, eta ez ditugu aipatzen.

Baliteke lotsagatik izatea, harrotasunagatik ere izan daiteke. Zergatik adore bikoitz hau? Bukatzeko, esan beharra daukat gehiago baloratu behar dugula daukaguna. Egungo mundu neoliberal basati honek horrela jarraitzen badu, laster osasuna gutxi batzuen pribilegio bihurtuko da. Orduan oroituko gara lehen hainbeste kritikatzten genuenaz, eta orduan bai, Osakidetzari buruz ongi hitz egingo dugu, baina, beharbada, berandu izango da ordurako.

Sexu Askapen
Mugimendua
Debagoienean

Xabier Vallina Agiriano
Arrasate

Gay, lesbiana, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualek Debagoienean espazio bat izateko garaia heldu da. Debagoienean bizi garenok gure sexualitatea libre eta aske adierazteko eskubidea dugu, eta bide batez ondorengoei gauzak errazteko ardura ere.

Ohitura handia egon izan da heterosexuala ez den pertsona bat Debagoienean isiltasunean bizi izana urte luzeetan, "armairu barruan" deritzoguna, edota, tamalez askotan pasa izan dena, hiri handietara emigratu izana. Bada garaia homofobiari aurre egiteko, heteronormatiboak diren espazioak suntsitu, askatasun sexuala ikustarazi eta herri mailan sexuaz libreki disfrutatzea posible dela erakusteko! Ez dugu instituzioen zain egon behar, instituzioak ere heteronormatibotasunaren barne baitaude; beraz, heldu gogor bizitzari eta goazen sexuaz disfrutatzera! Horretarako, normatiboak ez diren baliabideez hornitu behar dugu, hala nola desobedientziaz, antifaxismoaz, okupazio mugimenduaz, antikapitalismoaz... laburbilduz: borrokaz. Goazen, ba, Euskal Herrian sortu den mugimenduarekin bat egitera eta Debagoieneko Sexu Askapen Mugimendua sortzera! Harremanetan jartzeko: *Debagoienako. sexuaskapena@gmail.com*

Esker ona
Arizmendi
Ikastolako
komunitateari

Edurne Balzategi
(Arizmendi Ikastola)
Debagoiena

"Kalean zehar joaten garenez / goizero ikastolara / gaur ikastola nahiko genuke / berriz kalera atara". Bertsoa horrela amaituta eman zion ongietorria joan zen ostiralean Ane Zuazubiskarrek Ikastolaren Egunari. Eta hain zuzen ere, bete-betean asmatu zuen ikastolaren aurtengo erronkarekin. Izan ere, Ferixalekutik Biterira egin dugu salto aurten, herrira are gehiago hurbilduz. Ikastolaren Egunaren formatu berri honetan nahi izan dugu, halaber, gure hezkuntza komunitatea izatea protagonista. Horrela, guraso, ikasle, irakasle, ikasle ohiak... gonbidatu ditugu artista eta artisau lanak parteka ditzaten gainerako ikastolako kideekin eta herritarrekin, oro har. Eskutitz honen bidez esker

onik handiena bidali nahi diegu horiei guztiei: bertsolariei, ikasle eta irakasleekin osatutako trikitilari taldeari, artisau postuetan izan ziren langile, ikasle ohi eta gurasoei, musikaren bueltan izandako bakarlari zein taldeei, Akrosport erakustaldiaren dantzariei, olinpiadak antolatzen ibili zirenei eta parte hartu zutenei, grafitilariari, komunitateetako txosnetako lagunei, aurkezle lanetan ibili zen ikasle ohiari, tailerretako monitore taldekoei eta arduradunari, Argitxori, ipuin kontalariari, euskal kantuekin txosnak alaitu zituztenei... eta jakina, zuri ere bai, gurekin batera arratsaldea festa giroan pasatu zenuen horri. Arizmendi Ikastolak hezkuntza ez formalari ere ematen dion garrantziaren isla izan zen joan zen ostiraleko ospakizuna. Marixe Ruiz de Austriren bertsoaren amaierak bete-betean egin zuen bat ideia horrekin: *"Denbora dugu erakusteko / festa hau bukatu arte / nola ikasteko moduak dauden / klaseetatik aparte".*

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5

Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A

Tel.: 943 79 98 86

Faxa: 943 77 01 08

blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5

Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.

Tel.: 943 71 21 12

zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1

Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3

Tel./Faxa: 943 79 29 26

andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4

Tel.: 943 71 25 49

Faxa: 943 71 17 79

asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36

Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.

Tel.: 943 71 21 12

Faxa: 943 71 22 68

zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea

Tel.: 943 79 80 33

www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4

Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea

Tel.: 943 79 51 25

Faxa: 943 71 19 85

uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

HERRIAK

BERGARA

Erabilera askotariko kultura espazioa martxan

Errege Seminarioko eliza eraberrituko dute, eta kanpoko lanak aurten hasi gura ditu Bergarako Udalak

IMANOL GALLEGO | BERGARA

UNEDeko patronatuak laga egin dio Errege Seminarioko eliza Bergarako Udalari. Aukera hori eskuan, Udalak Irala kalera ematen duten fatxada eta elizaren teilatua konpontzeaz gain, Seminarioko elizan erabilera askotariko kultura espazio bat ere egingo du.

Arrizuriagako jauregiaren eta Errege Seminarioaren arteko permuta gauzatu bitartean, Seminarioko elizak behar dituen lanekin hasteko onespina jaso du Bergarako Udalak. Konpontzeko falta zen fatxada konpontzeaz gain, teilatuko zati batzuk ere berrituko dituzte. "Baimen honek asko poztu gaitu. Luzeegia izaten ari den prozesu baten ostean, lan hauekin bultzada bat emango diogu Errege Seminarioan egin nahi dugun proiektuari", azaldu du Jaione Isazelaiak, Bergarako alkateak.

Hala, patronoek lortutako akordioak ezohiko osoko bilkurara eroan zituen gobernu taldeak, eta, aho batez proiektuaren alde egin eta gero, Hirigintza batzordera egin zuen salto, hark esleipen prozesua martxan jar dezan.

Hasiera batean, lan horiek erabiliko dira eraikinak beharrezkoak dituen hainbat konponketa egiteko, baina dagoeneko aurreikusita dagoen bigarren fase batean, eraikinaren barruan kultura erabileretarako espazio berri bat egokituko du Udalak. Lehen faseko proiektua idatzia dauka Udalak eta obren lehen faseak duen 242.155 euroko aurrekontuaren %65 Eusko Jaurlaritzak ordainduko du.



Bergarako Errege Seminarioko eliza. | IMANOL GALLEGO

Erabilera askotariko gunea

Elizan egingo den kultura espazio berri horren proiektua oraindik ez dago zehaztuta, baina aurten egingo dituzten kanpoko obren ostean ekingo diete barruko lanei. Lanen bigarren fase hori datorren urte hasierarako prest izatea espero du Isazelaia alkateak. Proiektu jakin bat garatu beharrian, Udaletik argi utzi dute espazioak dituen berezitasunak kontuan hartuko dituen erabilera askotariko kultura-gunea bat izango dela elizan egokituko den gunea berria.

Oraindik, baina, espazio handi hori nola banatu eta erabiliko den definitzen ari da Udala. Proiektua aurten prest izatea espero dute, eta, hori guztia, gainera, herritarren ideiak batuta egin nahi dute.

Fatxadaren eta teilatuaren konponketak

Asteleheneko ezohiko osoko bilkuran udal talde guztien babesa jaso eta gero, martitzenean Hirigintza batzordetik pasa, eta lehen faseko proiektuak lizitaziorako bidea hasi du. Urgentziazko prozedurarekin tramitatzea proposatu da, Errege Seminarioko kanpoko obrak ahalik eta bizkorren hasi nahi ditu-eta Udalak. Lehen pauso horren ostean, Udalaren asmoa da lanak hilabete batean hastea, asko jota, baina tramiteak direla eta, zaila da hasiera data zehaztea.

Lehen fase horretako obrak berritze lanak izango dira. Proiektuak jasotzen duen moduan, beharrezkoa izango balitz, berritu ezin diren elementuak berriengatik aldatuko dira. Berritze lanekin batera, eraikin originalaren jatorrizkoak ez diren elementu diskordanteak ere kendu egingo dira. Teilatuko lanak ez ezik, Irala kalera ematen duen fatxada ere konponduko da.

Bada, Udaletik adierazi dute enpresa adjudikatzaileak hiru hilabeteko epea izango duela berritze lana burutzeko, lanak hasten diren momentutik.



Irala kaleko fatxada. | I.G.

Hausnarketa prozesua

Elizan egingo den erabilera askotariko kultura espazioa definitzeko, Udalak hausnarketa edo kontraste prozesu bat abiaraziko du aurten. "Ez da prozesu parte-hartzaile luzea izango, baina herritarren iritzi eta onespina duen proiektu bat garatu nahi dugu", argitu du alkateak. Proiektua jendeari erakutsi aurretik, Udaleko teknikariek edukiera eta halako aspektuak definitu beharko dituzte.

Kontrastea Kultura arloak kudeatuko du, eta urtea amaitu baino lehen bukatuta egongo da kontsulta fasea. Hausnarketa prozesu horren ostean, Udaletik adierazi dute proiektua aurten idatziko dutela eta elizako egokitzapena datorren urte hasieran abiarazteko asmoa dutela.

JAIONE ISAZELAIA
BERGARAKO ALKATEA

"Sinadurak ez ditu lanak baldintzatuko"

Permuta eginda dago?

Ez, baina permutarensinadurak ez ditu obrak baldintzatuko, eliza eta Irala kaleko lanak egiten hasteko baimena jaso dugu-eta. Permuta oso gai korapilatsua da eta arlo ekonomiko eta juridikoa oraindik ez dago guztiz zehaztuta.

Permuta bere horretan mantentzen da?


Bai, baina zailtasun ugari dituen prozesua denez, lan hauek erabiliko ditugu eraikinak behar dituen lanak aurreratzeko. Urte askoren ostean oso albiste pozgarria dela uste dugu.

Noiz hasiko dira lanak?

Ahalik eta bizkorren ekin nahi diegu; kanpoko proiektua dagoeneko idatzita dugu.



GOIENA



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

San Juan jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.:943 79 81 68 • ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

Atzotik zabalik daude Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Astelenegian ziren zabaltzekoak, baina ez dute eguraldia lagun izan. Azkenegian, eguraldia lagun, atzo goizean ekin zioten kiroldegian udako deboraldiari. Musakolako kanpoko igerilekuak irailaren 14ra arte egongo dira zabalik, 10:00etatik 20:30era.

Berrikuntza ugari

Hainbat berrikuntza izango ditu aurtengo kanpoko bainu deboraldiak: eguraldi txarra bada, abonatuak barruko igerilekura joateko aukera izango dute, eta ekainaren 20a baino

lehen abonatzeko diren artean doako bonu bat zozketatuko da. Kiroldegira joaten direnek dagoeneko jarrita dauden txirristak erabiltzeko aukera izateaz gain, hamakak alokatu ahal izango dituzte.

Aurtengo berrikuntza nagusia arratsaldeetako animazioa da. Etxeko txikien gozamenarako, ur jolasak, txapelketak eta lehorreko jokoak egingo dituzte. Gainera, kanpoko igerilekuaren erabiltzaileei zerbitzu osoagoa emateko asmoz, lehen aldiz, kiroldegiko kantinean ogitartekoak, izozkiak eta edariak salduko dituzte.



Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak. | GOIENA

Biharko baserritarren azokaren baitan, barazkiak ontziratze tailer bat egiteko aukera egongo da

Eguraldiak hobera egiten duen heinean, baratzeak ere produktuz betetzen diren urtaro honetan, Seber Altube baserritarrek ekarritako produktuz beteko da. Gertuko ekoizleek etxeko produktuak eskainiko dituzte hilero egiten den hitzordu horretan. Biharko azokan, gainera, produktu horiek ahalik eta luzeen iraun dezaten, kontserbak ontziratze tailerra egongo da; bada, ikaslaroan parte hartzeko, azokara 10:30ean joatea komeni da.



Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu (txorizo, tripakiak...)

943 79 45 55
Olarke kalea 20
ARRASATE

**SAN JUAN
JAI ZORIONTSUAK!**



Langilea enpresa batean lanean. | GOIENA

Langabeak kontratatatzeko diru laguntzak

Arrasateko enpresa ertainetan herriko langabeak kontratatatzeko plana martxan jarri du Udalak

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Arrasaten lana sustatzeko udal planaren lau ildoetako bat da herriko enpresetan langabe arrasatearrak kontratatzea bultzatzea. Programa horretarako 100.000 euro bideratu ditu Udalak eta aurreikusten du 45 bat kontratu

diruz laguntzea. Atzoko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zituzten diru laguntza horien oinarriak, eta eskaerak BAZen aurkez daitezke jadanik.

Programa hori Udalak berak bakarrik kudeatu eta finantzatu du eta asmoa da 2014an zehar

egindako kontratuak laguntzea. Laguntza jasotzeko, enpresek lantokia herrian izan behar dute, eta kontratatutako langabeek Arrasaten errolatuta egon behar dute. Diruz lagunduko diren lan kontratuak gutxienez sei hilabeteak izango dira, egun osoko lan jardunekoak eta 50 langile edo gutxiago dituzten Arrasateko enpresetan.

Programa horretara, zehazki, 100.000 euro bideratu ditu Udalak, eta 2014an zehar lana sustatzeko plangintza orokorrera 500.000 euro. Horren bitartez, Udal sinergia berriak sortzen ari da Arrasateko langabeen, enpresen eta unibertsitatearen artean, denen artean enpleguari bultzada emateko.

Lanbai enplegu azoka

Atzo, Udalak eta Mondragon Unibertsitateak antolatzen duten Lanbai enplegu azokan ere aurkeztu zuten lana sustatzeko plan berria. Azokan, Arrasateko enpresek euren lan eskaintzak eta pertsonal beharrak partekatu zituzten bertaratu ziren ikasle eta langabeekin.

MUK Garaia gunean duen eraikinean egin zen azokan, Erki-degoko eta kanpoko enplegu eta orientazio zerbitzu ugari ez ezik, Udalak ere bere *stand* propioa izan zuen. Bertan, Udaleko Enplegu eta Garapen teknikariak azokan parte hartu zuten enpresa guztiei banatu zieten enplegua sustatzeko proiektuei buruzko informazioa.



ARRASATEKO HELDUEN ESKOLA

Helduen Eskolakoak Amsterdamen egon dira

38 lagun joan dira lau eguneko ikas bidaia egitera; zapatuan joan ziren eta gaur dira itzultzekoak. Amsterdango hainbat txoko ezagutu dituzte, eta haietan argazkiak atera, bide batez. Hain zuzen ere, horrelaxe egin dute Herengracht kanal gaineko zubi batean eta Spui plazan, esate baterako. Bisitaz gainera, besteak beste, ipuin kontaketa saioa eta bisita gidatua ere izan dituzte.

erreka

t a b e r n a - j a t e t x e a

Ondo ibili sanjuanetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

Gora,
San Juan
jaiak!



ARPE

Ile apaindegiko artikuluak

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09



Gora,
sanjuanak!

ARRASATE
OLARTE, 12 - 943 79 81 56

Sanjuanak ondo janda hasteko kantu afaria eta Dragoi Jana

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Kantu afaria izango da gaur Jose Letona plazan, 21:00etan (eguraldi txarrarekin Seber Altube plazan). Norberak eroango ditu jatekoa, edatekoa eta kanturako gogoa, eta jai giroa jarriko du Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldeak. Hirugarrenez egingo dute kantu afaria, orain hiru urte proposatutako ekimena indarra hartzen dabilen seinale. Udalak jarriko ditu mahaiak eta aulkiak, eta kantu-liburuak antolatzaileek. "Helburu nagusia ondo pasatzea da, guk musikariok oso ondo pasatzen dugu-eta. Kantu tradi-



Dragoi txuletak erretzen iazko San Juan jaietan. | GOIENA

zionalak izango dira nagusi, baina egungoak ere sartuko ditugu", jakinarazi du Iñaki Barrenak, musika taldeko kideak.

Bihar dragoi txuletak

Bihar, oster, Dragoi Jana izango da AEDren eta AEKren eskutik; 21:00etan, Herriko Plazan. Aurten ohi baino lehenago dator, baina betiko menuarekin: dragoi txuletak piperrekin; gazta eta menbrilloa; kafea eta tragoxka. 400 txartel jarri dituzte salgai AEDren eta AEKren egoitzetan eta Monte, Kajoi eta Irati tabernetan. Bihar ere erosi ahal izango dira plazan, afaria hasi arte (AEDko bazkideek eta AEKko ikasleek 8 euro; eta gainontzekoek, 10 euro).

Afalostean, 22:30ean, Dragoi Tribialean jolasteko aukera eta sorpresak izango direla iragarri dute antolatzaileek, eta 23:00etan, Txoborro magoaren ikuskizuna.

Parte-hartze libreko atletismo probak bihar

M.A. | ARRASATE

Erkidegoko pertika-jauziko atletarik onenak elkartuko dira bihar Mojategin parte-hartze libreko probak egiteko. Eta horien artean izango dira arrasatearrak. Probak izango dira gutxieneko marka absolutuak lortzeko.

Gizonezkoen luzera eta altura-jauziak izango dira lehenengo, 17:30ean. Gero, 18:30ean, jauzi hirukoitzak egingo dituzte gizonezkoek, eta pertika-jauziak gizonek zein emakumeek. Eta bukatzeko, 19:00etan, emakumeen 2.000 metroko oztopo-lasterketak izango dira.

Olatz musika akademiako ikasleek kontzertua dute gaur

Olatz Urkiak zuzentzen duen musika akademiako ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur Kulturaten (18:00). 35 ikasle inguru elkartuko dira -umeak, gazteak eta helduak- eta bakarka, binaka eta taldeka jardungo dute. Euskal kantak eta pop eta rock doinuak eskainiko dituzte.

Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketan izena eman daiteke

Uztailaren 12an jokatuko da Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa, eta izen-emaite epea zabalik dago uztailaren 9a arte. Hona bideak: e-mail bidez: zaldibarko24orduak@gmail.com eta telefonoz edo Whatsapp bitartez: 637 78 74 41. Talde bakoitzak 60 euro jarri beharko ditu.

Sanjuanetako pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur

Debarroko txapelketan Garate eta Zezeaga izan ziren txapeldunak gazteen mailan

M.A. | ARETXABALETA

San Juan jaietako txapelketako finalak izango dira gaur, 19:00etan, Uarkape pilotalekuan. Txikien partiduak izango dira lehenengo, haurrenak gero, eta kimuenak ondoren. Irabazleek garaikurrak jasoko dituzte eta txapelketa agurtzeko mokadutxo eskainiko die pilotariei eta horien senideei, Arrasate Pilota Taldeko kideek.

Joan den zapatuan Eskoriatzan jokatutako Debarroko txapelketan, oster, Joseba Garate eta Josu Zezeaga arrasatearrak izan ziren txapeldunak gazteen mailan. Sorluzeko bikoteari gailendu zitzaizen 22-15. Gainera, Garatek partiduko jokalaririk onenaren garaikurra jaso zuen.

Udaberriko eskola arteko txapelketako finalak ere jokatu ziren



Garate eta Zeziaga. | ARRASATE PILOTA TALDEA

joan den astean Oñatin; Oxel Garitano eta Manex Bengoa kimu arrasatearrek, baina, ezin izan zieten irabazi aramaiorrei eta 2-0 galdu zuten.

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
- Pet
- First
- Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batzilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es



LANDALUZE

HARATEGIA -TXERRIKITEGIA

BEREZITASUNAK

TRIPAKIAK
URDAIAZPIKOAK
ODOLOSTEAK

Gora, sanjuanak!

Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86



Olatz

Musika Akademia

San Juan jai zoriontsuak!

- MUSIKA HEZKUNTZA EGOKITUA-ALTERNATIBOA
- Gitarra, piano, ukelele eta baxu eskolak.
- Ikasi musika hizkuntza modu ludiko eta esperimentalean!
- Adin guztietarako.

Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.
Tel.: 627 13 26 14 • olatzurkia@gmail.com

sarrailagintza

RAUS

24h

Ondo ibili sanjuanetan!

SARRAILAGINTZA-LANAK

24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.

OINETAKOEN KONPONKETA

Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak

Bañez doktorea 6, beheka • Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57
www.cerrajería24hmondragon.com



Egunero 300 lagun dabilta ikusten lehengo Mondragoe

Arrasate Zientzia Elkartearen erakusketa uztailaren 6ra arte dago Kulturaten

UBANE MADERA | ARRASATE

"Erakusketa bizia izaten ari da. Jendeak edozein argazkiren aurrean geratu eta komentarioak egiten ditu. Esan daiteke klaus-troetan giza zarata dagoela, jendea erakusketa bizitzen dabile-lako. Nabaritzen ari gara, gainera, iazko erakusketatik hona (lehen esperientzia hura izan zen) ikusle mota berria agertzen ari dela: 40 urtetik beherakoak. Eta gainera, liburuak erosten dituzte, ez bakarrik eurentzat, baita opari moduan ere. Eta horiek ere argazki bakoitza estu-diatzen dituzte. Ez dituzte argaz-kiak pasadizoan ikusten. (...) Ahoa zabal-zabalik. Halaxe gera-tzen dira lehen aldiz sartzen diren asko. Eta horiekin batera, jakina, edadeko jende ugari dabil etortzen. Nik uste dut Mondragoe osoa pasatzen dabilela erakus-ke-tatik, eta sektore askotako jendea, gainera. Baina bizia dela, hori da akaso inportanteena. Gu oso pozik gaude. Gozatu egin dugulako erakusketa eta liburua egiten, nahiz eta luze joan; bai-na, gehienbat, esker ugari jaso-tzen gabiltzalako erakusketaren irteeran".

Hala deskribatu dute Arrasa-te Zientzia Elkarteko (AZE) kideek *Mondragoe beirazko plaketan* erakusketa izaten dabilen eran-tzun ikusgarria. Antolatzaileen-dako, garrantzitsuak dira ekai-naren 6an zabaldutako erakus-

ketaren bisitarien ezaugarriak: 40 urtetik beherakoak ere izatea eta argazkiak komentatzea.

Ordu laurdenean, 50 lagun

Dena den, bisita kantitatea ez da muzin egiteko modukoa, ezta gutxiago ere: oraingo martitze-nerako 2.395 bisita izanda zituen erakusketak. Bestela esanda, batez beste, 300 bat bisitari egunero dabil izaten. "17:30ean joaten da gutako bat erakusketa zabaldu

eta liburuak prestatzera, eta 17:45erako igual 50 petsona pasa-tu dira", diote AZEko kideek. Uztailaren 6ra arte egongo da zabalik.

Zenbakiak, "urdin"

Bestalde, erakusketaren besteko arrakasta dabil izaten erretratu horien inguruan argitaratutako liburua; Ttukunen, Eroskiko prentsa saltokian, erakusketan eta Arrasate Musikaleko Musika Bandaren sanjuanetako kontzer-tuaren bueltan salgai.

"Bi helburu ditugu liburuen salmentarekin: bata da zorra gaintzea. Ze liburua egiteko zor potoloan sartu gara. Kontuan hartu demaseko ahalegina egin dugula maila honetako liburua 15 eurotan jartzeko: tapa gogorrak,



Ikusle mordoak erakusketa ikusten, martitzenean. | JAGOBA DOMINGO

lau koloretan, paperaren kalita-tea... ez gara joan dirua egitera, baizik eta altxor hau mondra-goetarren eskura jartzera. Uste dugu, hala ere, aste honetan zen-baki gorriak urdinduko ditugula. Beste helburua, berriz, da eteki-na ateratzea, beirazko plaka gehia-go berritu ahal izateko", azaldu dute AZEtik. "Eta sanjuanetako astea orain artekoa moduan badoa, lortuko dugu dirutxo bat plakak digitalizatzen segitzeko. Halako ia 400 kristal daude, herrikoak zein kanpokoak. Esate baterako dago Garibairen idatzi bat, sina-dura originalarekin. Hori dirudi, behintzat. Gure asmoa litzateke,

beste lanen bat ez bazaigu irteten, horiek argazkiok berrekuratzea. Edozelan ere, diru mordoak behar da. Eta gainera, asteen erakus-ke-tan geundela beste pertsona batek beste altxor baten berri eman zigun, beirazko plaka gehia-goren berri", kontatu dute.

AZE, erreferente

Izan ere, bi erakusketa eta libu-ruren ostean, Arrasate Zientzia Elkartea erreferente bilakatu da herriar askorendako ondare-zaindari zeregin horretan. Eta seguru emango dietela beste "etxe-kolanen" bat. Eta eurek gustu handiarekin hartu.

Material historikoa izanez gero, hartu, eskaneatu eta bueltatu egiten dute



Barrutiabengoa eta Bengoa, 1.000 urte pasatxoko burdin harriekin. | U.M.

Burdina Arrasateko historian

Mondragoe beirazko plaketan liburua eta erakusketa egiteaz batera, beste proiektu batzuk lantzen ere badabilta Arrasate Zientzia Elkarteko kideak. Urtetan, gainera. Adibidez, uztailan halako batekin segituko dute: "Bi urte daramatzagu burdinak Arrasateko historian izan duen garrantzia aztertzen. Uztailan horrekin segitu eta kanpo lana egingo dugu. Galarako meatzeetara, Meatzerrekara, Murugainera, Lezetxikira... joango gara. Uste dugu Arrasateko historiaren zati horrekin lotuta hutsune handia dagoela. Bestalde, datorren urterako erakusketa ere bagabiltza antolatzen. Arrasateko historia landuko dugu, komertzioaren eta industriaren ikuspuntutik. Galtzear egon liteke historiaren zati hori, sasoi hori bizi izan zutenetako asko hiltzear daudelako, diote Javier Bengoak eta Jose Angel Barrutiabengoak.

eya

Ondo pasatu
sanjuanak!

**Etxetresna elektrikoak
eta dekoraziorako lanparak**

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Eduarne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Laguntza eskolarrak
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Arreta psikologikoa
genero indarkerian
Ikasketa teknika eta ohiturak

ONDO IBILI SAN JUAN JALETAN!

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

harresi
ILE - APAINDEGIA

**Jai
zoriontsuak
guztioi!**

Zerkaosteta 16 Behea
943 79 77 59
ARRASATE

ZUBI-LAN
KONPONKETAK ETA SALMENTAK

ONDO PASA SANJUANAK!

TRESNAK
Nekazaritza
Lorezaintza
Basogintza

MOTORRAK
Salmenta
Konponketa

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4, 17. pabilioia
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33 - jmabizeta@gmail.com
Arrasate

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Moda-modako jantziak (baita neurri handiak ere)

**Ondo pasa
San Juana
jaiak!**

Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

Bila gaitzazu:
kapikua.dendari.com

arbolapeta

beinke
arrasate

Rafa Etxabe | Ford Mugarriko arduraduna

"Ford Mugarriren erakusketa, salmenta eta zerbitzu bizkorra izango ditugu Bergaran"

Laster irekiko da Ford Mugarriren kontzesionarioa Bergaran, Amillaga auzoan. Azken urteotan zegoen hutsunea estaltzera dator, Bergarako bezeroek hala eskatuta

Laster irekiko da Ford Mugarriren erakusketak eta salmenta lekua Bergaran. Arduradunak, Rafa Etxabek, dioenez, "azken urteotan hutsik egon da zerbitzu hori".

Ze ibilbide izan du Mugarri Autoak enpresak?

1978an hasi ziren obrak, ekain inguruan, eta 1979ko otsailean ireki genuen. Orduz geroztik lanean jarraitu dugu. Badira urte batzuk!

Garai hartan nolako zen lehia?

Lehiakide handiena Renault marka zen. Hemen, beste marka askok ez zuten kontzesionariorik: Mercedes, BMW, Audi... marka horiek ez zeuden. Citroen kili-kolo zegoen orduan; gero aurrera egin zuen. Seat lur jota zegoen eta 80ko hamarkadan itxi zen, nahiz eta gero Espainiako gobernuak nazionalizatu egin zuen. Peugeot marka ere ez zegoen hemen.

Zuek betidanik Ford markarekin egin duzue lan, ezta?

Bai, kontzesionario ofiziala izan gara. Saldu izan dugu Honda, Toyota, Nissan, Mazda... eta orain ere, bezeroren batek eskatzen badigu, denetarik. Gama altuko autoak ere saldu izan ditugu; inportatuak, ordea, ez. Lehengo garaian, jendeak erosten zuen erreferentziazko marka Renault zen. Pentsa, ordutik zenbat aldaketa izan den! Orduan ez zegoen Koreako ez Japoniako markarik; Nissan lur-orotarikoarekin sartu zen 80ko hamarkadan; Toyota eta Mitsubishi, geroago, Mercedesen eskutik.

Bergaran eduki izan duzue gara-jea?

Zerbitzu ofiziala izan dugu han eta bazkide bat erretiratu egin zen, aldaketa batzuk egon ziren eta azkenean, euren gogoz eta akordioz, utzi egin zuten, eta espazio hori kubritu barik geratu zen. Horixe kubritzeko ireki-ko dugu honakoa.

Ze egongo da bertan?

Lehenengo, erakusketa; baina lekua gertatuta dago, eta, gero, erakusketaren ondoan zerbitzu bizkorra izango da, eta denetarik eskainiko dugu. Karrozeria, hondatzeak... Arrasatera ekarriko ditugu, baina Bergaran eguneko zerbitzua emango dugu; hau da, oinarritzko garajea han ere izango da.

Erakusketa Arrasatekoaren berdin izango da?

Bai. Bergaran zerbitzu hori eman barik zegoen. Orain dela bizpahiru urte arte, tailer ofiziala geneukan, baina azken urteotan hutsik egon da zerbitzu hori.

Zenbat langile ibiliko dira Bergaran?

Hasieran, bat eta erdi: saltzaile bat han egongo da, eta neu hara eta hona ibiliko naiz. Gerora, hiru edo lau lagun ibiliko gara. Bi salmenta-lekuak berdina izango dira eta langile berberak eroango dituzte; zuzendaritza ere berbera izango da.

Ford Mugarrirendako zer esan nahi du Bergaran zerbitzua ematen hastek, krisi garai hauetan?

Bergara plaza inportantea da, eta hilabete bukaerako helburuetarako asko kontatzen du. Salmentak Arrasatetik egiten ibili ginen

"Bergara plaza garrantzitsua da, matrikulazio asko egiten ditugu han"

"Erakusketaz gain, oinarritzko zerbitzua ere emango dugu Bergaran"



Rafa Etxabe, Ford Mugarriko arduraduna, Bergarako erakusketa eta salmenta lekuan

baina jendeak Bergaran zerbitzu hori eskatzen zigun. Horrez gain, bergararrak irekiak dira kontsumo kontuetan, bailarako beste leku batzuetakoak baino gehiago. Kontrastatuta daukagu hori: azken urteetan, Bergaran, matrikulazio kopuru ona izaten dugu, proportzioan. Hala, joan den hilabetean, Arrasaten 21 matrikulazio egin genituen, eta Bergaran, 20, eta joera horixe izan da. Beraz, kontuan hartzeko lekua da, estrategikoa.

Zeintzuk dira Ford Mugarriren berezitasunak?

Urte piloa daroagu lanean eta hor jarraitzen dugu. Urte txar hauek igarri ditugu baina lanpostuei eutsi diegu, ez dugu inor kaleratu. Gure bereizgarriak dira lana, konstantzia eta zerbitzu ona ematea.

Eta ze eskaintza duzue?

Gama handia daukagu. Gehien

saltzen duguna Focus eta bere taldeko monobolumenak dira. Furgoneta berrietan, produktu berri batzuk daukagu.

Bestalde, laster irtengo da merkatura Mondeo berria. Valentziara ekarri dute produkzioa.

Beraz, gama nahiko berritua daukagu, eta produktu fidagarriak eta onak.

Ze eskatzen du orain bezeroak?

Orain 30 urte, auto deportiboagoak eskatzen zituen; estetikari gehiago begiratzen zion. Orain, hori izugarri aldatu da: autoa polita den begiratzen zaio, bai, baina markek eurek aldatu dute guztiz joera.

Orain, jendeak zer egiten duen, horri begiratzen dio gehienbat bezeroak: mendira ote doan, umeak dituen, eta abar. Bestalde, sartu-irtena eroso izan dadin nahi du. Horixe da joera.

Askok eboluzionatu den beste gauza bat, niretako garrantzi-

tsuena, segurtasuna da, aktiboa eta pasiboa. Gaur egun, autoa ondo baduzu, oso zaila da errepidean mugitzea. Segurtasunean, egonkortasunean eta istripuen aurrean nola erantzuten duen, hori asko garatu da.

Prezio aldetik, lehen, proportzioan, garestiagoak ziren. Oraingo autoak orain dela 20 edo 25 urtekoen prezio berekoak dira, segmentu berekoak hartuta. Gaur egun, Pive planeko laguntzak direla eta bestelakoak direla, merkeagoa irteten da autoa erostea.

Bestalde, autoa oinarritzko-oinarritzkoa da gaur egun; autorik gabe ez duzu independentzia handirik.

Bergaran, non egongo zarete?

Amillaga 5 da helbidea; IAT ondoan eta merkataritza-gune inportanteen ondoan, autobideko sarrera bertan dagoela; oso leku ona da.

ETOR
ZAITEZ!

BERGARAN FORD MUGARRI

Amillaga 5ean, Ford zerbitzu berria



MUGARRI AUTOAK

Amillaga 5. BERGARA.
670 82 71 86

Bidea nahi dute Uberara oinez eta bizikletaz joateko

San Juango eta Uberako auzotarrek eta hainbat kaletarrek Auzobide plataforma sortu dute eta domekarako aldarrikapen martxa antolatu dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ubera eta San Juan auzoetako eta kaleko zenbait herritarrek Auzobide plataforma sortu dute helburu garbi batekin: Ubera-San Juan-Bergara ibilbidea -3,5 kilometro inguru- oinez eta bizikletaz egin ahal izateko bidea eskatzea, hain zuzen ere.

Plataformako kideek esan dutenez, ia 400 pertsona bizi dira bailara horretan eta 35 enpresa daude, "baina gaur egun oso arriskutsua da oinez eta bizikletaz atzera-aurrera egitea ez dagoelako ezta artzenik ere. Auzotarrek derrigorrez autoan ibili behar dute eta uste dugu ordua dela zerbait egiteko", esan dute. Eta zehaztu dute: "Aisialdirako eta kirolerako bai, baina mugikortasunerako bide moduan ikusten dugu. Garrantzi handiagoa ematen diogu horri, auzotarren, enpresetako langileen zein gainerako herritarren mugikortasun egokirako".

Lehen harremanak egin dituzte dagoeneko Udalarekin eta Foru Aldundiarekin: "Asmoa begi onez ikusten dute, baina jabetu gara ez dagoela euren lehentasunetan. Horregatik, komenigarri ikusi dugu herritarrok auziaz jabetzea eta mobilizatzea".

Hala, *Ubera-San Juan-Bergara oinez eta bizikletaz* lelopeko martxa antolatu dute domekarako, hilak 22, eta bi modutan egin



Buruaga, Uberako auzo-alkatea; Agirre, San Juangoa; eta Elexpuru, taldekoa. | I.G.

ahal izango da: menditik edo errepidetik -oinez edo bizikletan.

Mendiz joan nahi dutenentako 09:00etarako egin dute hitzordua, Oxirondo azokan, eta San Martzial eta Amatiño igarota iritsiko dira Uberara. Amatiñon hamarretakoa egiteko atsedendia egingo dute. Errepidetik oinez edo bizikletaz joango direnak, berriz, 11:00etan abiatuko dira Agorrosindik. Uberan elkartuko dira guztiak eta ekitaldia egongo da 12:00etan. Talde-argazkia egingo dute, eta ondoren, San Juane- ra abiatuko dira, 13:00etan salda eta txorizoa hartzeko.

"Lantzeko gaia da"

Udalean gaiaren gainean galde- tuta honakoa esan dute: "Auzotarrek egindako proiektua jaso dugu eta Aldundiarekin lantzen

ari gara gaia. Aldundiko tekniki- kariak etorriko dira lekua bertatik bertara ikustera. Auzotarrek eskatzen duten bidea ez dago gaur egungo bidegorri sarean sartuta. Dena den, aurrera begira lantzeko gaia da".

Jaiak San Juanen

Jaiak ospatuko dituzte San Juanen gaur, barikua, hasi eta hilaren 24ra arte. Asteburuko ekintzei dagokienez, gaur The Romanticos taldearen kontzertua egongo da Tartufon. Bihar, zapatua, patinekin saioa egongo da 11:00etatik 13:00etara, auzoko plazan, Hanka Labanbako kideekin: patinekin lasterketak egingo dira, ibiltzen ikasteko saioak, jolasak... eta sariak banatuko dira. 19:00etan makala jasoko dute eta 22:00etan herri afaria egongo da Tartufon.



Bergarako Sortu, Ernai eta LABeko ordezkariak Munibe plazan. | IMANOL GALLEGO

Bergara Aske eta Gorria, alternatiben ekimena

Ezker abertzaleak aurkeztu du, "krisitik irteteko eta konponbiderako proposamenak" ezagutarazteko

M.B. | BERGARA

Bergarako Ezker Abertzaleak Bergara Aske eta Gorria ekimena aurkeztu zuen eguaztenean. Agerraldian azaldu zuten, ekin- tza eta gertaeraz betetako ikas- turtea izan da aurtengoa, "ar- lo

politikoan emankorra eta arlo sozialean eraso neoliberaleraz josia", eta Bergara Aske eta Gorria eki- menaren bitartez, "ikasturteari errepasoa, eraso neoliberalari erantzuna eta alternatibak" pla- zatuko dituzte.

Alde batetik, "Bergarako Ezker Abertzaleak krisi egoeratik ateratzeko dituen proposamenak" emango dituzte ezagutzera; eta bestetik, "gatazkatik konponbi- derako zubia igarotzeko propo- samenak" azalduko dituzte.

Mahai-ingurua eta ekitaldia

Horretarako, bi ekintza antolatu dituzte ekainerako. Ekainaren 25ean mahai-ingurua egongo da *Krisia: nondik gatoz, non gaude, nora goaz* izenburuarekin. Hizlariak izango dira Asier Imaz, LAB sindikatuko Industria Fede- razioko idazkaria; Marian Bei- tialarrangoitia, Sorturen bozera- maila; eta Gotzon Elizburu, Ernaiko kidea. 19:00etan izango da, Munibe plazan, eta jatekoa eta edatekoa ere egongo da; egu- raldi txarra bada, berriz, Irizar jauregian izango da.

Horrez gain, ekitaldia ere egingo dute ekainaren 27an. 20:00e- tan izango da, Munibe plazan -eguraldi txarra bada, berriz, Seminarioko karpan-. Ekitaldia- ren ondoren, herri afaria egingo da leku berean, 21:30ean. Txar- telak dagoeneko salgai daude Arrano eta Pol-Pol tabernetan.

Azoka txikia egongo da domekan Oxirondon, edozer saldu edo trukatzeko

M.B. | BERGARA

Azoka Bergaratzen egitasmoa- ren baitan adostuta, domekan, hilak 22, azoka txikia egingo da 11:00etatik 14:00etara, Oxi- rondo plazan -Santa Marina eliza ostean-. Edozer saldu edo trukatzeko aukera egongo da, betiere, bigarren eskuko gauzak egindakoak. Ez dira produktu berriak onartuko.

Azokan mahai bana izango da eskuragarri zerbait trukatu edo saldu nahi duenak postua jarri ahal izateko, baina nork bere mahaia ere eraman dezake. Ekimenak interesa piztu duela ikusita, izen-ematea luzatu egin dute. Hala ere, azoka ondo anto- latzeko, parte-hartzea konfirma- tzea eskatu dute, www.bergara.net atarian edo kultura etxean 09:00etatik 21:00etara.

Udako postal lehiaketa antolatu du hirugarrenez Jardun euskara elkarteak

M.B. | BERGARA

Uda iritsi da, eta harekin bate- ra oporrak, bidaiak, jaiak, eguz- kia eta aisialdirako tartea. Bada, hirugarren urtez, udako postal lehiaketa antolatu du Jardunek. Elkarteko kideen esanetan, "udak askorako ematen du, eta oporretan urrutira joan edo bertan geratuta ere, istorio txi-

kiek asko esan dezakete". Pos- talek jatorrizkoak eta euskaraz idatziak izan beharko dute, eta interesa duten guztiek har deza- kete parte. Postalak jasotzeko azken eguna irailaren 17a izan- go da eta Jardunen bulegora -Errotalde jauregia z/g- bidali beharko dira. Telefono zenbakia zehaztu behar da bertan.

San Martzial erromeriarako mahaiak eta aulkiak eskatzeko epea zabalik da atzotik hilaren 26ra arte

Atzo ezker, eguna, zabalik dago epea San Martzial erromeria- rako mahaiak eta aulkiak hartzeko. Ekainaren 26ra arte egongo da zabalik, astegunetan, kultura etxean, 18:00etatik 21:00etara. Eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da eta ezin izango dira bost mahai baino gehiago eskatu. Erromeria bezperan, uztailaren 5ean, banatuko dituzte, 17:00etatik 20:00eta- ra zelaiaren sarreran, eta batu, berriz, erromeria ostean, 18:30e- tik 21:30era. Fidantza uztailaren 9tik 16ra batu ahal izango da.

Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosuan asteburuan eta trikitalari gazteen txapelketa jokatu da bihar

18:00etan jokatu da, baina gauza gehiago ere egongo dira. Dome- kan, 12:00etan inauguratuko dute gazteluan jarri duten panela eta 18:30ean, proba erakustaldia egongo da: Astigarraga-Oiartzungo neska taldea Txibiltar baserriko astoaren kontra arituko da.

Helduen Eskolan matrikula egiteko epea zabalik da dagoeneko, eta ekainaren 30ean itxiko dute

Irizar jauregian duten egoitzan eman behar da izena 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Eskaintza zabala dute: gazte- lania atzerritarrentzat, Bigarren Hezkuntzako graduatua, frantsesa, ingelesa, informatika eta unibertsitate eta goi ziklorako sarrera.



IPINTZA INSTITUTUA

Patxi Abasolo matematiketan saritua

Patxi Abasolo 8. sailkatu da Eduardo Txillida XII. Olinpiada Matematikoan. Ipintza institutuko DBHko 2. mailako ikaslea da eta eskolak berak aukeratu zuen, beste batzuekin batera, EAE mailako lehiaketara joateko. Matematikarako gaitasuna eta hura hainbat egoeratan aplikatzeko ahalmena neurtzen da proban. Irudian, Abasolo saria jasotzen, Hezkuntza sailburuorde Arantza Aurrekoetxeren eskutik.

Moneta sozialaren ingurukoak zehazten

Bilerak martitzenean: 10:00etan eta 15:00etan

JULEN IRIONDO | OÑATI

Herrian martxan jartzekoa den moneta sozialaren funtzionamendu arautegia lantzen dihardu Mahai Teknikoa deritzonak, eta Udalak eta zenbait merkatarik osatutako taldeak proposatzen duena azaltzeko eta eztabaidatzeko bilerak egingo dira datorren martitzenean, hilak 24, kultura etxean; bi ordu izango dira aukerak: 10:00ak eta 15:00ak. Bilerak dira herriko merkataria, ostalari eta zerbitzu-emaleentzat.

Zirriborroko xehetasun batzuk

Mahai Teknikoak landutako zirriborroak jasotzen duenaren arabera, *txantxi* deituko da Oñatiko moneta soziala, eta proiektura atxikitako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan erabili ahal izango da. *Txantxi* batek izango du euro baten balioa, eta 50 zentimoko eta bateko, bosteko, hamarreko eta hogeiko billeteetan eskuratu ahal izango da. Gutxienez, 20 euro aldatu beharko dira aldi bakoitzeko, eta 20 euro bakoitzeko 21 *txantxi* jasoko dira, 21. hori hobari gisa, moneta sozialaren erabilera bultzatzeko.

Oñatiko Udalak izango da moneta erakunde jaulkitzailea eta haren funtzionamendua kudeatzeko arduratuko dena: trukera-

Aurrena udal langileek erabili ahaliko dituzte 'txantxi'-ak

Iraungitze data pasatuta balioaren %2 galduko dute

ko bulegoa ere Udalaren ardura pekoia izango da.

Proiektuarentzat urtebeteko frogaldia ezarri dute, 2014ko urriaren 1etik 2015eko urriaren 1era, eta ematen duen emaitzaren arabera erabakiko da aipatutako datatik aurrera zer egin. Ekimenaren helburua da "kontsumoa fidelizatzea" eta "Oñatiko herritarren gastu-ihesa mugatzea", bertako merkatarientzat ere hain zailak diren garaiotan. "Oñatiko herritarrek nahiz enpresak tokikoa denarekiko konpromisora gerturatzea eta ikusgarri egitea" ere nahi dute.

Enpresak aipatzen dira, ze herritar erabiltzaileez eta esta-

blezimenduez aparte, proiektuko beste eragileetako bat izatea nahi dute: "Enpresek tokiko moneta erosteko aukera izan dezatela aurreikusten da, langileen artean hedatzeko helburuarekin", adibidez "Gabonetako saskiari atxikitako elementu gisa".

Hori, baina, aurreragoko fase batean izango da. Aurrena Udalako langileek izango dute Oñatiko moneta soziala erabiltzeko aukera; bigarren fasean hiritarrak sartuko dira, eta baita herriko zerbitzu eta industria-enpresa handi batzuk ere.

Gainera, tokiko monetaren erabilera "gizarte-funts bat sortzen lagunduko du, udalerrian proiektu solidarioak garatu ahal izateko eta tokiko merkataritza sustatzeko". Trukea egiteko orduan, erabiltzaileak bere hobia-riaren zati bat funts horretarako utzi nahi duen edo ez erabaki ahal izango du. Horrez gain, establezimenduek *txantxi*-ak berriz ere euroetara aldatzean ordainduko duten tasa ere funtserako izango da. Establezimenduek bai, baina erabiltzaileek ezingo dute itzulketa hori egin. Gainera, billeteek iraungitze data izango dute, eta zehaztutako data pasata galdu egingo dute balioaren %2; diru hori ere gizarte-funtserako izango da.



Manueltxo —eskuinekoa—, estraditatu aurreko argazkian. | JESUS MARI GOITIA

El Filtroko gertakariak gogoan, 20. urteurrenean

Manueltxorekin tertulia egingo dute gaur, eta egun osoko egitaraua prestatu dute biharko

J.I. | OÑATI

Uda honetan beteko dira hogeitau urte Montevideoko El Filtroko gertakarietatik. Jesus Mari Goitia *Manueltxo* oñatiarra eta beste bi euskal errefuxiatu gose eta egarri greba egiten ari ziren, estraditatu egin behar zituztela-eta. Uruguako milaka herritarrek erantzun egin zioten asmo horri, eta bi lagun hil ziren El Filtroko ospitale kanpoko mobilizazioetan eta beste 15 lagun zauritu zituen balaz poliziak, 200 pertsona atxilotzearekin batera. Ospitale aurrean ate-zaindari egon ziren hainbat eta hainbat uruguaitar, euskaldunen asilo-eskubidea defendatzen.

Bada, duela 20 urte gertatutakoen gainean jardungo du *Manueltxo*-k gaur, egubakoitza, gaztetxean egingo duten tertu-

lian. 21:00etan afari-merienda egin eta gero izango da.

Biharko, berriz, egun osoko egitaraua prestatu dute Askapenak eta beste zenbait eragilek eta herritarrek, zapatua Errefuxiatu eta Iheslari Politikoen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta, gainera.

12:00etan kalejira eta "poteo internazionalista" egingo dute, Herriko Plazatik abiatuta; 13:30ean, ekitaldi politikoa *Filtro*, 20 urte: herriak ez du ahazten izenburupean, Atzeko kaleko plazaratxoan; 14:30ean herri bazkaria izango da Antixena parkean, eta ondoren, Fran eta Zuriñe bikotearen (Hesian) emanaldi akustikoa; azkenik, 22:00etan, kontzertua, Atzeko kaleko plazaratxoan hori ere, Bad Sound System eta Izerdi Gorria taldeekin.

Udalak herritarrekin egin nahi du jaietako egitaraua

J.I. | OÑATI

Kultura Sailak gonbidatu ditu herritarrek herriko festetako egitaraua elkarrekin lantzea: proposamenak jasoko dituzte kultura etxean eta udaletxean ipiniko dituzten buzoietan. Bada, baita ere, *partehartzea@oina-*

ti.net helbidera bidaltzea. Hain zuzen, epea izango da ekainaren 27ra artekoa.

Izan ere, herritarrek proposamenak egiteaz gainera, Udalak nahi du jarduera horiek antolatzeko eta aurrera eramateko inplika daitezen.

Azala aukeratzeko lehiaketa

Horrez gain, jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa ere deitu du. Uztailaren 11ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira lanak, kultura etxean.

18 urtetik gorakoentzako lehiaketa da, teknika librea, eta ezin izango dira aurkeztu aurreko edizioaren batean finalista izandako lanak. *Oñatiko jaixak 2014* testua eraman beharko dute, eta irabazleak 500 euroko saria eramango du.



Musikariak mozorrotuta, kalejiran. | GOIENA

Ikurrina, monarkiari erantzuteko

"Egungo estatu ereduak Euskal Herriaren ukazioa eta herritarren eskubideen bortxaketa oinarri" dituelako eta "errespetu falta horren adierazle instituzional gorena Espainiako monarkia" delako, 15 minutuko etena egin zuen Udalak atzo, eta ikurrina atera.



ANE ELORDI

Ume eramaileen eta 'gNappies' sistemaren gaineko tailerra

Martitzenean egingo dute Txantxiki familia elkarte sortu berriak Eteon duen lokalean ume eramaileen eta *gNappies* sistemaren gaineko tailerra. 18:00etan izango da, izena *txantxiki@gmail.com* helbidean eman behar da eta 3 euro ordaindu beharko dira. Meitai-Maitiekoek emango dute tailerra.

Astelehenetik aurrera goizez soilik irekiko da haur liburutegia

Eskola oporrak direla eta, haur liburutegiak goizeko ordutegia izango du astelehenetik aurrera: 10:00etatik 13:00etara. Uztailaren amaierara arte izango du ordutegi hori; abuztuan itxita egongo da. Goizeko ordutegia dagoen denboran, arratsaldeetan helduen liburutegian egongo da haurrentzako txoko bat.

Iturrigorri eta Santa Marinar ospatuko dute gaur Elkar Hezi eguna, hainbat ekintzarekin

Elkar Hezi Eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza. DBHko eta Batxilergoko ikasle, irakasle eta langileak Iturrigorrira joango dira; mendi irteera, *Altxorren bila*, herri kirolak, pintxo lehia-keta, bazkaria... izango dira. Iluntzean, Elkar Hezi osatzen duten guztiok Santa Marina plazan batuko dira afari-merienda egiteko. Bukatzeko, Batxilergoko 2. mailakoei agurra egingo diete.

Datorren eguaztenean egingo du Aitor Oleak Julian Sagasta organo-jolearen omenezko kontzertua

Julian Sagasta organo-jole arrasatearra jaio zela 100 urte betetzen dira, eta horren omenezko kontzertua hilaren 25ean, eguaztena, izango da San Miguel Parrokian, 20:00etan. Aitor Oleak joko du organoa. Oñatiko Udalak lagundu du Sagastaren omenezko liburua eta diskoa argitaratzeko, eta Jose Antonio Azpiazu eta Xabier Ugarte oñatiarrak ibili dira haren bizitzako gertakariak eta musikan egindako lanak batzen.

Gerardo Markuleta itzultutako poesia katalaneko antologia aurkeztuko du gaur Elkar argitaletxeak

Gerardo Markuleta itzulita, gaur aurkeztuko du Elkarrek *Poe-ta katalan garaikideak. Antologia* delako lana. Markuletaren itzulpenaz gain, jatorrizko testua ere agertzen da. XX. mende osoa hartzen duten poeten lanak daude hor aukeratuta: klasizistak eta abangoardistak, bere herriarekin eta kulturarekin konprometituak, beste hizkuntzetako poeten oihartzunak berera ekarri zituztenak, berrikuntzak egin zituztenak...



lazko prozesioaren une baten, apostoluak eta dantzaria. | JOSETXO ARANTZABAL

Prozesioa eta musika, aurtengo protagonistak

Antonino Ibarrondoren 'Korpus Eguneako Arku Dantza' estreinatuko du musika bandak

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Corpus Christi eguna atzo, egue-na, zen arren, ohi moduan, gaur, egubakoitza, hasiko dira ospakizunak. Goizean, Oñatz Dantza Taldea eta Txistulari Banda auzorik auzo ibiliko dira, eta 14:30etik 17:00etara ikastetxeetan eta Ugar-kalden, San Martinen eta Kasablankan egingo dute dantza.

Domekan, txistulari bandaren goizeresia (09:00), musika bandaren goizeresia eta prozesioa irudiak San Miguel Parrokiara eramatea (10:00), San Miguel goiaingerua parrokiara ailegatzea (10:45), meza nagusia (11:00) eta, segidan, Corpuseko prozesioa izango dira.

Corpusetako bisita gidatu berezia egingo du aurtengo Turismo Bulegoak, 09:45ean, eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna (943 78 34 53); gehienez ere 15 lagun hartuko

dituzte. Sancti Spiritus Unibertsitatea erakutsiko dute lehenengo eta, segidan, Santa Ana antzokian San Miguel eta apostoluak nola janzten eta gertatzen dituzten ikusiko dute.

Hiru pieza berezi

Aurtengo Corpusetako protagonistetako bat musika izango da. Izan ere, Antonino Ibarrondo musikaria jaio zeneko mendeurrena ospatzeko, musika bandak prozesioa eta gero egiten duen kontzertuan, Foruen plazan 13:30ean, haren bi pieza joko dituzte: *S.E.E.I.* (martxa, oso gutxitan jotakoa) eta *Korpus Eguneako Arku Dantza*, Ibarrondok sekula entzun ez zuena eta domekan estreinatuko dutena. Jacob de Haan-en *Concerto d'Amore* ere joko dute.

Honela azaltzen du aukeraketa Inazio Ibarrondok, bandaren zuzendari eta Antoninoren

semeak: "*S.E.E.I.* 1951 konposaturiko martxa da eta garai hartan Oñatiko bandan tronboia jotzen zuten Zabarte, Angel (orduan S-z idazten zuen abizena); Etxegoien, Teofilo; Etxezarreta, Bizente eta Igartua, Bizenteri eskainia. Bereziak metalezko instrumentuentzat prestatutako lana da. *Korpus Eguneako Arku Dantza* 1982an egindako obertura da. 12 minutu inguru irauten duen obraren lehen konpasetatik, dantzariak arratsaldean eskaintzen diguten Arku Dantzaren doinuak sumatuko ditugu. Instrumentu desberdinen artean gurutzatuko diren esaldiz osaturiko etengabeko kanona da. Dantzaren gaiarekin berehala lotuko dugun melodia entzungo dugu 3/4 erritmoan. Ondoren, binario erritmoko Allegro bat dator, arkuen nahaspila garatzen ari dela adierazten diguna. Jarraian, Presto bat dator obraren bukera iragarritz".

Concerto d'Amore piezaz, honakoa dio: "Jacob de Haan autore holandarraren lana da. Urte honetako apirilaren 13an jo genuen lehengo aldiz Santa Anan. 7 minutu inguruko iraupena du eta entzuteko oso atsegina da".

Euskara

emaiozu euskararil

Udako ikastaroak

ikasturtea 13/14

matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikastaroak

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

BEDIA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@oinati.net

Bukatu da aurtengo Pilota Txapelketa

L.K. | OÑATI

Berrogeita hamar neska-mutiko inguruk hartu du parte aurtengo Herriko Pilota Txapelketan. Finalak hilaren 13an, egubakoitza, jokatu ziren Zubikoa kiroldegian, eta honakoak izan ziren emaitzak: Pre-benjaminak: Oier Osa 18 - Oier Castaños 13; 1. urteko Benjaminak: Malen Etxegarai 18 - Oier Altxelai 16; 2. urteko Benjaminak: Iñigo Guridi 18 - Imanol Perez 6; Alebinak: Peru Galdos 18 - Mikel Ugarte 9; Infantilak: Manex Urrutia 18 - Aitor Tatieggi 15; eta Kadeteak: Ander Biain 18 - Xabi Aiastui 7.

Parte-hartzaile gehienak mutikoak diren arren, neskatala batzuk ere ibili dira, eta aurtengo lehengo aldiz neskatala bat txapeldun izan da.



Txapeldunak, sariak eskuetan dituztela. | JOSU OSA

Txapelketaren balorazio ona egin du Sergio Gartzia ardura-dunak: "Bero egin arren, ikusle askotxo izan dira, eta neska-mu-

tikoak ere gustura ibili dira".

Irailean hasiko da Gipuzkoako txapelketa; ordura arte, oporrak dituzte pilotari txikiak.

Katalin Antxia | Patroigintza ikastaroko irakaslea

"Patroigintza pasioa da, eta poliki-poliki ogibidea"

Bi ikastaro emango ditu uztailen, Arkupen, hastapena eta hobekuntza

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Patroigintza ikastaro bi emango ditu Katalin Antxiak (Aretxabaleta, 1988) uztailen; 7tik 11ra (hastapena) eta 14tik 18ra (hobetzea). Izena emateko epea zabalik dago uztailaren 3a arte. Horretarako, mezu bat idatzi hona: modubatmoda@gmail.com.

Bigarren aldiz emango dituzu patroigintza ikastaroak, ezta?

Bai; iaz izugarri gozatu genuelako antolatu dugu berriro. Ia jende berria ere animatzen den! Izugarria da niretzako ezer ez dakitenek zein sorpresa eramaten duten ikustea; beraz, ez galdu aukera eta parte hartu.

Zer da patroigintza?

Patroigintza niretzat pasio bat, eta orain poliki-poliki ogibidea! Eta teknikoki, nola esan; jantzia bera planoan, bolumena hartu aurretik. Patroia da oihalaren gainean jartzen dena, oihala nondik moztu jakiteko.

Zer erakutsiko duzu?

Bi ikastaro daude: lehenengoa, Patroigintza Zero, ezer ez dakitenentzako. Gorputzaren patroia basea nola egin ikasiko dugu. Gure neurrietara moldatu eta lehenengo proba josi.

Bigarren ikastaroa, aldiz, zerbait dakitenentzako da edo lehenengoa egin eta jarraitu nahi dutenentzako. Coco Chanel diseinatzaileak sortu zuen *Petite robe noire* jantziak moda munduan zein esangura duen ikasiko dugu. Hala, soinekoaren patroia atera, gure neurrietara moldatu eta prototipoa egingo dugu oihalean. Coco Chanelek bere barne borroka askatzeko erabili zuen moda eta gustuko dut estetika gainditze hori.



Katalin Antxia, Ziburun. | KATALIN ANTZIA

"Jantziaren ideia izatetik gauzatu arteko guztia nik neuk egiten dut"

Ikastaroen ostean norberarendako zerbait josten jakingo dute parte hartutakoak?

Bai, noski. Janzten ditugun kamiseta eta soineko asko gorputz baseak dira, transformazio handirik gabekoak, ikastaroan egingo ditugunak bezalakoak.

Lantxo bat egin duzu Zergatik arropa etxearendako, ezta?

Bai! Dantza garaikidea egiten duen Dantzaz Konpainia taldearentzako jantziak egin ditugu. Donostiako Fnacen ikusgai egongo dira gaurtik aurrera.

Eta zeure marka ere sortu duzu: Modubat. Zein asmorekin?

Modubat da moda ulertzeko nire modua. Estetika ez kontzientea bultzatu nahi duena, ongizatea zentzu guztietan bilatu nahi duena, emozioak kontuan hartuta. Iraunkortasunean sinesten duena. *Slow fashion* mugimendurekin bat egiten duena. Niretzat moda da adierazpen eta komunikaziorako bide berri bat, emozioekin bat etorri behar duena, izateko dugun moduarekin. Jantziaren ideia izatetik berau gauzatu arteko prozesu guztia nik neuk egiten dut.

Laster zeure diseinuak jantzi ahal izango ditugu?

Dudarik gabe! Azarorako lehen jantziak salgai jarri nahi nituzke.

Besterik esan gura baduzu...

Ekintzaile izateko familia eta lagunak behar beharrezkoak direla. Eta nik zorte hori dut. Mila esker handi bat eman nahi nieke, beste behin, apartak direlako guztiak!

Ikasturtea agurtuko dute gaur bertso eskolakoek

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Lekaixoka bertso eskolaren lehenengo ikasturtea bukarara iritsi da, eta urte osoan egindako lana borobiltzeko jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza.

Bertso eskolako talde guztietako kideek hartuko dute parte festa horretan, gazte-txoenetatik helduetaraino. Eta iluntzean hasita gauera arte luzatuko da festa udaletxe zaharreko atarian. 19:30ean, bertso eskolako kideek batbateko bertsoak, bertso jarriak eta bertso musikatuak eskainiko dituzte; eta 22:30ean, Bi

Bala bertso musikatuak abesten dituen taldearen ekitaldia izango da. Barra zerbitzua ere egongo dela iragarri dute taldeko kideek, edariekin eta pintxoekin, jaialdi hasieratik bukaera arte.

Bi Bala taldearen emanaldia

Bi Bala hirukoteak betiko doinuak berrituta eta tokian tokira egokituta eskainiko ditu. Aitzol Barandiaran eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariak eta Julen Goikoetxea musikariak osatzen dute taldea. Gurrutxagak gitarra ere jotzen du.

Ume eta nerabeen zerbitzuei agur esateko jolasak eta 'Bat irabazteko' lehiaketa gaur

M.A. | ARETXABALETA

Umeei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuen bukaera festa ospatuko dute gaur, egubakoitza. Udaleko Gazteria Sailak antolatu du, hainbat zerbitzu eta elkarterekin lankidetzan; besteak beste, ludotekarekin, errefortzu programekin, gaztelekuarekin

eta bertso eskolarekin. Hainbat ekitaldi izango dira Herriko Plazan: arratsaldeko bost eta erdietan, jolasak umeendako; eta sei eta erdietan, *Bat irabazteko* lehiaketa nerabeendako. Zazpi eta erdietan, bertso ekitaldia egingo dute Lekaixoka bertso eskolako kideek.

Andramaixak girotzeko herritarrek botatako esaldien zain dago Udala

M.A. | ARETXABALETA

Andramaixetarako esaldi lehiaketa deitu du, beste behin, Udalak. Esaldiak ekainaren 27rako eraman behar dira udaletxera edo Arkupera gutun-azal batean sartuta. Gutun-azal horrek taldearen izena izango du eta barruan beste gutun-azal batean sartuta egileen datuak: taldearen izena, taldekideen izenak, adinak eta telefono zenbakiak.

12 urtetik gorako aretxabaletarrek har dezakete parte, eta gura beste esaldi aurkeztu. Hori bai, ez dituzte onartuko neurritzat kanpoko kontsumoa eta jarrera sexistak bultzatzen dituztenak.

Irabazleen berri uztailaren 7an emango dute, eta sari bakarra izango da: 100 euro, Aretxarteko merkataritza zerbitzuetan erabiltzeko. Esaldi horrekin pankartak egingo dituzte.

Harpa eta perkusio emanaldia Gurea atzeko partean, gaur iluntzean

Ane Artetxe harpa-jole donostiarrak eta Iñaki Letamendi perkusio-jole tolosarrak kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan, Gurea tabernaren atzeko parteko plazatxoan.

Donostiako harpa orkestrako zuzendaria da Artetxe eta Harp & Co. taldean jotzen du. Letamendia, ostera, Euskadiko Gazte Orkestran eta Espainiako Gazte Orkestran ibilia da.

Orain dela aste batzuk Udalak abian jarritako 7x7 Kultura Kanean ekimenaren barruko ekitaldia da -7 aste, 7 ekintza-. Hurrengo uztailaren 4an izango da. Dirt Jump eta trialsin ikuskizuna eskainiko dute orduan, Herriko Plazan (19:00).



ANABEL DIEZ

Urkuluko bazterrak garbitzen

Urkuluko bazterrak garbitzera joan ziren domekan 30en bat herritar. Talde batek Goroeta aldera jo zuen eta besteak, hegaztien behatoki ingurura, eta han topatu zuten zikinkeria gehien. Konturatu ziren, gainera, jendeak poltsetan jasotzen duela zaborra, baina gero bertan utzi. Jasotako zabor guztia Herriko Plazan ikusgai jarri zuten.



M.A.

Musikariek ikasturteari agur

Martitzenean egindako jaialdiarekin esan zioten agur Leizarra musika eskolako kideek ikasturteari. Txistulariak, akordeoi-joleak, biolin-joleak... musikari mordoak elkartu ziren ekitaldian, eta bandak ere hainbat kantu eskaini zituen. Txikienean, ostera, kantuan egin zuten; besteak beste, *Txoriak txori* eta *Euskara da Euskal Herri*.

Ekainaren 28an itxiko dute kiroldegiko sotoa

Makina gelako zorua konponduko dute, eta igerilekuaren sakonera murriztu

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Uztailean, abuztuan eta irailean gimnasioak eta kantxa bakarrik egongo dira zabalik Manuel Muñoz kiroldegian. Beheko solairuan dauden zerbitzuak, hau da, kanpoko zein barruko igerilekuak, frontoi txikiak, sauna eta beste-lakoak itxita egongo dira.

Makina gelan eta barruko igerilekuan egin beharreko lanek eragingo dute itxiera hori. Kirol aholkulari Rosa Lasagabasterrek obren berri eman du: "Makina gela hondatuta dago; 2002. urtetik lurra altxatzen dabil eta makinak behartuta daude. Hortaz, guztiz derrigorrezkoa da konpontzea nahi badugu Osakidetza onartzea instalazioak zabalik mantentzea".

Horren aitzakiarekin, beste hainbat obra egingo dira; tartean, esan bezala, barruko igerilekuaren sakonera murriztu. Urritik 1,20 eta 1,60 metro arteko sakonera izango du. Egungo sakonerak funtzionalitate arazoak emateaz gain, gastuak ere handitzen ditu, hala nola ur zein ur hori berotzeko erabili beharreko gas kontsumoarena eta uraren kalitatea bermatzeko produktu kimikoena.

Goiko aldageletan ur beroa

San Pedro bezperan itxiko dute kiroldegiko zati hori. Horren harira, honakoa azaldu du aholkulariak: "Jaietan aprobetxatuko da goiko solairuko aldageletan ur beroa mantentzeko lanak egiteko; eta urrirako espero dugu dena zabalik izatea".

Lanek erabiltzaileengan eragina izango dutela badakite Udalean, eta, hori dela eta, kiroldegiko bazkideek ez dituzte udako kuotak ordaindu beharko; zabalik dauden zerbitzuak debalde erabili ahal izango dituzte.

Horrez gain, inguruko herrietako udalekin ere kontaktuan jarri izan dira, udan eskoriatzarrek tarifa bereziak izan ditzaten inguruko igerilekuetan. Bergaran, esaterako, bertakoak izango baliara bezala ordainduko dute eskoriatzarrek; eta Oñatin, oñatiarren kuota gehi %5.



Edonon ikus daitezke pitzadurak makina gelako zoruan. | MIRIAN BITERI



Makinak behartuta dabilta gaur egun lan egiten. | M.B.



Zorua altxatzen dabil eta mugituta dago guztia. | M.B.



Egitaraua aurkeztu zuten martitzenean. | AMAIA TXINTXURRETA

Txosnetan Bibote Eguna egingo dute aurten

Txosnetako egitaraua aurkeztu dute asteon; aurten, hilaren 27an emango diete hasiera jaiiei

A.T. / M.B. | ESKORIATZA

Jaiegun bat gehiago izango dute aurtengo San Pedro jaietako txosnetako egitarauan. Izan ere, hilaren 27an, egubakoitza, emango diete hasiera jaiiei. Bibote Eguna egingo dute egun horretan lehen aldiz; parte hartzeko, arratsaldean egongo den *photocall*-ean argazkia atera beharko da benetako bibotearekin edo artifizialarekin; sari banaketa gauean egingo dute.

Bestelako berrikuntzarik ere izango da; esaterako, hilaren 30eko Kuadrilla Egunean joko berriak egingo dituzte. Parte hartu gura dutenek hilaren 25a baino lehen

eman behar dute izena Inkernun, Aldatzen edo Facebooketik mezu bat bidalita.

Baina aurretik, hilaren 28an, Sexu Askatasunaren Nazioarteko Egunean, Izan Libre Eguna egingo dute. Nabarmendu behar da, gainera, danborradako presoan aldeko konpartsan 95 lagun irtengo direla koloretako jantziak soinean dituztela. San Pedro egunean, berriz, *fracking*-aren aurka sinatzeko aukera egongo da eta Drop! eta Ezinean taldeen kontzertuak egongo dira.

Einginkeko kideak, presoan lagunak eta herritar talde bat ibili dira egitaraua gertatzen.

Puri Regidor izango da EAJren udal taldeko zinegotzi berria

M.T. - M.B. | ESKORIATZA

Agintaldia amaitu bitartean, Puri Regidorrek ordezkatu du Aitor Urrutia EAJren udal taldearen zinegotzi moduan. Martitzenean egindako agerraldian, Regidorrek azaldu zuen "ilusioz eta gogoz" ekingo diola erronka berriari, eta herritarrekin "harreman estua" izan nahiko lukeela gaineratu du.

Jakinarazi zuen, aldi berean, astean behin, kexa edo iradokizunik duen edozein herritarrekin biltzeko gertu egongo dela udaletxean. Eskoriatzarrak datorren hilean egingo du karguaren zina. Urrutiak, bestalde,



Puri Regidor, asteon. | MAIALEN TORRES

esan zuen "beti" egongo dela alderdiari laguntzeko prest, eta eskoriatzarrei eskerrak eman nahi izan zizkien.

Sanpedroetako esaldi lehiaketak badu irabazlea

Mila kolore, mila kultura, aurtengo jaiak sekulako abentura. Horixe da aurten esaldi irabazlea. Mix-Max-Mix taldearena da; hain justu, Gadea Errastik, Iratxe Arresek, Miriam Isasmendik, Jaione Oianguren, Joseba Gabilondok eta Ibone Arexolaleibarrek osatzen dute. Esaldi irabazleak 150 axtroki irabazi ditu.

Herritarrek loreen lehiaketako finalistak bozka ditzateke

Loreen lehiaketan finalista gelditu diren balkoiak eta leihoak erakusgai daude kultura etxean eta Interneten, gura dutenek iritzia eman dezaten; bakoitzak boto bakarra eman dezake. Irabazlea aukeratzeko hiru boto izango dira: Kultura batzordeak emango duena; Olazar erretiratu elkartearena bestea; eta herri bozketa bidez aukeratutakoa azkena.

80 urtetik gorakoen afarian izena eman daiteke

Olazar erretiratu elkarteak 80 urtetik gorakoen urteroko afaria gertatu du uztailaren 17rako, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea. Interesatuak uztailaren 10a baino lehen joan behar dute elkartearen bulegora, martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era. Debalde da Elixoste elkartean egingo den afaria.

OHARRAK

GAZTELEKUA

Gaztelekuko asteroko ekintzen barruan, hankapalu ikastaroa dute gaur, egubakoitza, gazteek; bihar, oster, *Blance bike* zirkuia egiteko aukera izango dute; eta etzi, domeka, mendira joateko asmoa dute.

GABEZ TAKARRARAN

Bihar, zapatua, Gabez Takarran-en, gaueko mendi lasterketaren, laugarren edizioa egingo

dute. Parte-hartzaileak 23:00etan irtengo dira plazatik. Izen-emateak zabalik daude *Kirolprobak.com* webgunean; egunean bertan ere eman daiteke izena.

UDAERO

Gazteek astelehenera arte eman dezakete izena Udaero programaren bueltan antolatutako ekintzetan. Gainera, astelehenean bertan, 11:00etan, batzarra dute Torrebasen.

GI-623 errepidea itxi egingo dute, leherketak egiteko

M.A. | ANTZUOLA
Urretxutik, Legazpiko lotu-netik Bergararaino egiten ari diren obrak direla-eta, Matz Erreka inguruan –Lapatza baserria eta antzinako harrobiaren atzealdea– leherketak egingo dituzte. 30 eta 45 minutu ingurukoak izango dira eta aurrez abisatuko zaie zein egunetan izango diren leherketak inguruan bizi diren etxeetan eguna eta orduarekin atarian oharra jarrita. Leherketa egin baino lehenago, GI-632 errepideko zirkulazioa eten egingo dute, baita Antzuola barruan kaltetuak izan daitezkeen gunek ere.

'Dispersiñuan 25 urtien aurka' bazkaria eta kontzertua bihar

Antzuolako Ez dot Moztuko Bizarra taldeak antolatuta, ekainaren 21ean, zapatua, *Dispersiñuan 25 urtien aurka* lelopean, festa giroko eguna egingo dute. Eguerdian, herri bazkarirako batuko dira. Ondoren, The Potes taldearen eskutik, punk jarreraz bustitako folk doinuak gaztetxean, 18:30ean hasita.

Herriko oztopoak batzeko irteera egingo dute erretiratuek

Ekainaren 24rako, herriko oztopoak eta beharren berri jasotzeko irteera antolatu du Landatxopek. Ibilbidean zehar monitore bat izango dute. Torresoroatik abiatuko dira 10:00etan herrian barrena ibiltzeko. Ondoren, mokadutxo bat hartzeko aukera izango dute parte-hartzaileek Landatxoeko tabernan.

OHARRAK

HITZALDIA
Zer ari da gertatzen Kutxa-bank-en? hitzaldia egingo dute Ainhua Beolak eta Ino Galparsorok, Kutxako kontseilariak. Ekainaren 26an, Olanaren, 19:00etan.

GED: BIDEO EMANALDIA
Eguaztenean, Olanaren, 19:00etan, Gure Esku Dagok bideo emanaldia egingo du (*Antzuolako 37. km*); balorazioa ere egingo dute. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

BOTIKEN DIRU ITZULERA
Erretiratuei, urtean zehar erositako botiken dirua itzultzeko egin behar dutena azaltzeko, batzarra gaur, 18:00etan, Landatxopen.



Ondarre auzoko plazatxoan iaz jarritako plastikozko igerilekuaz disfrutatzen gaztetxoak. | GOIENA

Corpusez eta San Juan jaiez gozatzeko aukera

Ondarre auzoan Corpusak ospatuko dituzte aste bukaeran, gaurtik hasita; Uzarragan, berriz, sanjuanak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Udarekin batera iritsi dira Corpus eta San Juan jaiak. Bihartik martitzenera bitartean festa giroan murgilduko da Antzuolako herria.

Hala, bihar, zapatua, Ondarre auzoko plazatxoan 12:00etan hasita jinkana egingo dute. 16:30ean, berriz, ur-jolasak izango dira gaztetxoendako. "Mangera bat

jarriko dugu eta ur-jolasak ere izango dira. Umeei begira antolatutako arratsaldea da, tartean merienda emango diegu auzora etortzen diren ume guztiei", azaldu du Beñar Kortabarria antolatzaille eta auzotarrak.

Arratsaldeko seietan, antzerkia, ipuin-kontalaria eta pailazoak izango dira gaztetxoek gozamenarako. 19:00etan krosa egingo

dute animatzen diren txikitxo guztiek.

Gauean, 30 bat lagun batuko dira auzo-afaria egiteko eta ondoren, erromerian dantza egiteko aukera izango dute Antzuolako trikitilariak. "Ohiturari eutsiz, auzora etortzen diren guztientzako kafea osagarri guztiekin izango da. Txuleten eta botila-ardoen zozketa ere orduan egingo da".

Domekan, txistularien diana-rekin hasiko da goiza eta 12:00etan prozesioa egingo da. Ondoren, gaztetxoek dantza saioa egingo dute. Jaiei bukaera salda eta txorizo dastatzeak emango die.

San Juan bezperan, sua
Astelehenean, ekainaren 23an, San Juan bezperako ospakizuna egingo da Herriko Plazan.

Iluntzeko zortzietan, arbola jasoko da eta Oinarin dantza taldearen saioa ikusteko aukera izango da arbolaren bueltan. "Urtero moduan, San Juan zortzikoa dantzatuko dute aurrena, eta gero katean neskek eta mutilak, denek elkarrekin, soka-dantza egingo dute", azaldu du Jon Lizarazuk, Oinarin dantza taldeko kideak.

Hala, astelehenean, Oinarineko hogeitabat lagun ariko dira arbolaren bueltan dantzan. "Soka-dantzan 17 urtetik hasita, askotariko adineko herritarrek hartzen dute parte San Juan bezperako dantza saioan".

Dantzak egin ondoren, sua piztuko dute Herriko Plazan.

San Juan eguna Uzarragan
Uzarraga auzoan sanjuanak ospatuko dituzte aurten ere. Hala, ohiturari eutsiz, ekainaren 24an, martitzena, egingo dituzte ospakizunak auzoan.

Uzarraga Bizirik taldeak antolatuta, arratsaldeko zazpi eta erdietan arbola jasoko dute. Ondoren, txingarretan egindako txorizo errazioa banatuko zaie Uzarragara gerturatzen direnei.

Arratsaldeko zortzietan, auzoko trikitilariak erromeria egingo da jai giroan.

"Ohitura zaharrak jarraituz eta Uzarraga zutik eta bizirik mantentzeko ahaleaginean etortzen den oro ongietorria izango da", diote antolatzaileek.

Arrolakoak Urepelen gustura

Hemeretzi lagunek egin dute Arano, Urepel eta Leitzalarrean barrena irteera. "Paraje ederrak" ikusita etorri dira. Uztailaren 5erako Europako Mendietara irteera antolatu dute. Izena hilaren 23an eman daiteke, Olanaren, 18:30ean.



JABI ETXANIZ

Gaztetxoek musikaz gozatu dute

Musika eskolako ikasleek kontzertuak Torresoroa bete zuen astelehen arratsaldean. "Urte askoan gabiltza musika erakusten Antzuolan eta azken urteetan goraka egin du gazteen musika zaletasunak", azaldu du Marije Ugalde irakasleak.



JONE LARRAÑAGA

Ordezko medikuak euskaraz jakingo du, Osakidetzak jakinarazi duenez

Herriko mediku Aitor Montesek iaz ere eskaera bera egin zuen: "Ez zidaten jaramonik egin", dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Aramaio familia mediku Aitor Montes oporretan dagoen bitartean, hura ordezkatuko duenak euskaraz jakingo du. Hala jakinarazi du Osakidetzak asteen, astelehenean Montesek berak Debagoieneko ospitalean eskaera ofiziala aurkeztu ostean.

Montesen eskaerak jasotzen duenez, Aramaio da Arabako herririk euskaldunena –%85,6eko euskaldun tasa zuen 2001ean– eta ordezko medikua elebiduna

izateko "beharra" dago: "Osakidetza herritarren alderik pertsonalenari lotzen zaio, osasunari, eta honek hurbiltasuna eskatzen du derrigorrez. Erabiltzailearekiko komunikazioa ezinbestekoa da eta hortaz, zerbitzua euskaraz eskaini behar zaio, ahoz eta idatziz, paziente euskalduna bada edo euskaraz nahi badu", dio Montesek. Eta honakoa ere gaineratzen du: "Erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzeko eta kalitatea helburu izanik,

Aramaion ordezko medikua elebiduna izan behar da". Iaz e-postaz egin zuen eskaera: "Ez zidaten jaramonik egin", adierazi du.

Aitor Montes aitzindari

Montes ekainaren 28tik uztailaren 14ra eta abuztuko azken hiru asteetan egongo da oporretan eta bost aste horietan Garazi Hidalgo izango da ordezko medikua; EGA titulua dauka.

Ez dira berriak osasungintzan euskara errespetatzeko egin izan diren eskaerak. Nagusiki udalek eta euskara elkarteek egin izan dituzte eskaerok, baina oraingoan Aitor Montes herriko familia medikua bera izan da ekimena abiarazi duena; ondoren batu zaizkie Udala, Txirritola eta Uema. Izan ere, joan den egubakoitzean prentsa agerraldia egin zuten hiru erakunde horietako kideek, beste herritar batzuekin batera. Montesen zalantza da datorren urtean eskaera errepikatu beharko duen. Horren aurretik, aldaketa dela-eta, Osakidetza eskar esker ona adierazteko eskutitz bat bidaltzeko asmoa duela aurreratu du.



Lagunartean taldearen erakustaldia 2000. urteko jaietan. | ARAMAIOKO UDALA

Lagunartean taldearekin askotariko dantzak gaur

Dirua lortzea da ekitaldiaren helburu nagusia

J.B. | ARAMAIO

Lagunartean dantza taldeak erakustaldia egingo du gaur. 18:30ean goiko tabernetan elkartuko dira eta kalejiran jaitsiko dira Bizente Goikoetxea plaza-erakustaldia amaitzeko. Talde bakoitzak saio "motz" bat eskainiko du, asmoa delako bertaratzen diren herritarrek dantzan jartzea: "Dantza herrikoia izango dira, guztiek parte hartzeko", adierazi du Lagunartean taldeko kide Ainara Inuntziagak.

Gastu berriei aurre egiteko

Gaurko erakustaldiaren helburu nagusia da dirua lortzea. Horregatik, tragoa eta tortilla zein txistorra pintxoak salduko dute plazan bertan, bakoitza euro baten. Izan ere, Udalak urtero ematen duen diru laguntzarekin eta dantzari bakoitzak urtero ordaintzen duen 60 euroko kuotarekin ez da nahikoa gastu berriei aurre egiteko –gastu horien artean dago Aitor Villareal irakasle berriaren soldata, besteak beste.



ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

Europako Mendietara irteera, "mundiala"

Orixol Mendizale Elkartearen eskutik hamar lagun elkartu ziren joan den aste bukaeran Europako Mendietara joateko. Zapatuan eta domekan egin zituzten mendi irteerak –zapatu gaua Urrielluko aterpetxean igaro zuten–, eta, besteak beste, Torrecerredo mendia igo zuten. Eguraldia lagun izan zuten asteburu osoan eta oso gustura ibili zirela adierazi dute: "Taldean oso giro izan genuen, mundiala izan zen!".



JOSU OLAIZOLA

Del Campo eta Olaizola txapeldun, lehia estuan

Ekainaren 14an Oñatin jokaturako Debagoieneko Eskolarteko Pilota Txapelketaren barruan, Julen Olaizola eta Asier Del Campo pilotari aramaioarrek Arrasateko Oxel Garitano eta Manex Bengoa hartu zituzten mendean (16-9). Lehia handiko partidua izan zen, bero handiarekin. Bestalde, Arabako promozio txapelketaren barruan, Aimar Arriolabengoak, Zuhaitz Astondoak eta Iñaki Molerok txapeldunorde izatea lortu zuten. Zorionak guztiei!

Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Plana lantzeko saioa egin zuten atzo udaletxean

Udalak, Daiteke aholkularitza enpresaren laguntzaz, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Plana idatzi gura du, eta, horretarako, herritarrekin bilera egin zuten atzo udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Aurretik egin zuten diagnostiko bat, eta, hori oinarri hartuta, Daiteke enpresako arduradunek herritarren iritzia jaso gura izan zuten plan berria osatzeko. Aldatu beharreko zein mantendu beharreko neurri eta jarreraren gainean eztabaidatu zuten, besteak beste.

NIRE USTEZ

SONIA ETXENAUSIA



Lurraren zaindariak

Baziren behin gertuko herri baten, barazkiak, arbolak, landareak eta lurra. Euren sustraiak ondo errotuak zeuden eta fruitu zapoetsu, mila koloretako usain eta nutriziorako propietate paregabeak zituzten. Herriak Lurraren Zaindariak ere bazituen, baina, bat-batean, lurra zaintzeari utzi zioten eta landarearentzat bakarrik izan zituzten begiak. Landareak sendo bazetozen, arbolek fruituak ematen bazituzten, pozik!

Baina jarrera horrek gaixotasuna agerraraztea eragin

zuen. Hau ekiditeko tratamendu tradizionalak eta berritzaileak erabili zituzten, batzuk naturalak eta besteak ez horrenbeste... Eta ahaztu zitzaizkien lurraren ezaugarriak, haren beharrak...

Maisu baten hitzak: "Landareak pertsonak bezalakoak dira, sustraien indarra ezinbestekoa da landareen garapen osasuntsurako eta gaixotasunak lurrean zerbait desorekan dagoenaren mezua ematen digu, eskertzekoa da gaixotasunaren intentzioa".

Esaldi horiek gaixotasuna aukera bezala ikusten dugunoi eskainiaki dira. Bereziki, Araba, Errioxa eta Gorbaildeko sorginei, medizina hartzarekin soilik konformatzen ez garenoi, pertsonon Lurraren Zaindariak garenoi, sustraiak errotuta ditugunoi. Eta, nola ez, barazki eta fruituak ekoizteaz gain, lurra zaintzen ahalgintzen garenoi.

ELGETA

Domekan emango du Udalak kontsultaren emaitzaren berri

Herritarrek badihardute botoa ematen; atzo goizean parte-hartzea %15,82 zen

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Herritarren iritzia jaso nahi du Udalak, eta martxan da hiri hondakinen bilketa sistemaren inguruko herri galdeketa Elgetan. 954 herritar daude botoa ematera deituta. Udalak atzo 09:00etan emandako datuaren arabera, ordura arte 151 lagunek eman dute botoa.

Herri kontsulta horretan parte hartzeko beste edozein hauteskundetan moduan jokatu behar da. Norberak joan behar du botoa ematera, eta identifikatzen duen agiri bat aurkeztu behar du. Botoa emateko ezinbestekoa da erroldan egotea.



Herritarra, astean, botoa ematen. | L.Z.

Emaitza egunean bertan

Domekan, 20:00etan itxiko dute botoa emateko mahaia. Ontziak egongo dira aurrez emandako botoak zein egunekoak. Ikuska-tzaileek ere botoa emandakoan hasiko da kontaketa. Udaletik aurreikusten dute ezusterik ezean 21:00 alderako esku artean izango dutela behin betiko emaitza. Bada, talde politikoek emaitza errespetatzeko konpromisoa hartu dute, parte-hartzea, gutxienez, erroldaren herenera ailegatzeko bada.

Domekarako guztia gertu udaletxean

Domeka, hilak 22, da kontsulta eguna. Botoa emateko mahaia 09:00etatik 20:00etara egongo da zabalik udaletxean. Gertu dituzte errolda, boto-papera, gutun-azalak, botoa emateko ontzia eta botoa prestatzeko kabinatxo udaletxean. Gogoratu behar da baiezkoa edo ezezkoa emateko gurutzua egin behar dela boto-paperean. Herritarrei galdetzen zaiena da ados dauden Udaleko talde politikoek hondakinen bilketarako adostu duten sistemarekin. Sistema horrek bost edukiontzi aurreikusten ditu, horietatik hiru txiparekin —horia, organikoa eta errefusa—. Edukiontzi berdea desagertu egingo litzateke. Paperean eta beiraren edukiontzien berdin jarraituko lukete.

Astelehenetik aurrera 58 ume udaleku irekietan

L.Z. | ELGETA

Astelehenean, hilak 23, zabalduko du Udalak udaleku zerbitzua, 09:00etatik 13:00etara. Adinka antolatuko dituzte umeak eta bost hezitzaile gidatuko dute zerbitzua: Nerea Villak, Mireia Andreuk, Kepa De Vegak, Adrian Gorostizak eta Eider Gisasolak. Gurasoendako informazio bilera antolatu dute: astelehenean izango da, 19:00etan, ludotekan.

Gazteleku zerbitzua ere eskaini du Udalak, baina ez du inork izena eman.

Torrealdea inguruko auzotarrek jaiak antolatu dituzte lehen aldiz

L.Z. | ELGETA

Beheko kaleko jaixak izenarekin auzoko jaiak antolatu dituzte Torrealdea, Gudarien bidea eta Salvador zeharbidea kaleetako auzotarrek. Barikurako, hilak 20, antolatu dituzte ekintzak.

Jaiak 18:30ean hasiko dira eta buruhandiak, DJ festa, afaria eta erromeria iragarri dituzte. Afariko menua da entsalada errusiarra, saiheskia eta izozkia —ura eta ardoa barne—. Prezioa da 12 euro eta txartelak salgai daude Goikoetxe harategian. Festa-gunea Torrealdean kokatuko dute, ludotekaren aurreko plaza-txoan.

JAIETAKO EGITARAUA

Ekainak, 20

18:30 Jaien hasiera, buruhandiekin.

19:00 DJ festa Amaia Txintxurretarekin.

21:30 Afaria.

22:30 Erromeria Gau Argi taldearekin.

Ekintza guztiak Torrealdean izango dira.

Sua, saiheskia, sardinak eta jolasak, astelehenean, plazan

UBANE MADERA | GATZAGA

Arratsaldean, eta Gurel elkartearen eskutik, jolasak izango dira gatzagar gaztetxoendako San Juan bezperan. Iri-sortak ere aurkituko dituzte herrigunean bizi diren gatzagarrek biharamunean, arietan, horretaz ere Gurel elkarteko kideak arduratuko dira-eta. Hortik aurrerako San Juan bez-

perako gainontzeko ekitaldiak Udalaren eskutik etorriko dira.

22:30ean, sua

Hain justu, astelehenean, 20:30ean hasiko dituzte ospakizunak, jatekoarekin. Sei kilo saiheski eta zortzi kilo sardina erreko dituzte plazan, herritarrendako. Eta 22:00etan piztuko dute San Juan

sua. Hortik aurrerakoa norberaren nahiaren edo norberaren esku geratzen da.

Barikuan, agur ludotekari

Bestalde, gaur, egubakoitza, ludotekaren ikasturte amaiera da. Eta merienda eginez agurtuko dute ikasturtea, 17:00etan. Ludoteka bukatu ostean, udalekuak hasiko dira Gatzagan. "15 bat neska-mutikok eman dute izena, eta pozik gaude", adierazi dute udalekuen antolatzaile den Gurel elkartekoek.

Gaztetxoek prest dute San Juan sua pizteko piloa, eta guraso elkarrekin ogitartekoak iragarri ditu

Badator San Juan bezpera eta Elgetan ere piztuko dute sua hilaren 23an, astelehena. Badira aste batzuk neska-mutikoak piloa egiten hasi zirela, eta, urtero moduan, iluntzerakoan piztuko dute. Maala Guraso elkarrekin, berriz, ogitartekoak iragarri ditu. Luze jotzen du San Juan bezperak, eta, egun berezia izanik, 20:00 aldera ogitartekoak banatuko dituzte Herri Eskolako neska-mutikoen artean. Urtero moduan, Bolatoki tabernaren parean egingo da banaketa.

Astelehenetik aurrera ordutegi aldaketa Udal Liburutegian, eta abuztuan itxita egongo da

Ekainaren 23tik irailaren 7ra bitartean udako ordutegia hartuko dute Udal Liburutegian. Beraz, aldaketa egongo dira ohiko ordutegiarekiko. Astelehenetik eguenera, 16:30etik 19:30era egongo da zabalik liburutegia, eta martitzenetan, eguaztenetan eta barikuetan, 14:30etik 17:30era. Opor sasoian zerbitzua itxita egongo da abuztuaren 1etik 31ra bitartean. Liburutegitik gogorazten dute Elgetako erabiltzaileek sareko gainerako liburutegietan erabil dezaketela txartela.

OHARRAK

KARATE ERAKUSTALDIA

Elgetako eta Bergarako karate ikasleek erakustaldia egingo dute zapatuan, hilak 21, 17:00etan, frontoian.

SAN ADRIAN JAIK

Domekan meza esango dute San Adrian ermitan, 13:00etan. Ondoren, salda eta edatekoak banatuko dituzte auzotarrek.

MENDI IRTEERA

Kantsatzekek mendi irteera antolatu du domekarako. Elgetatik 08:00etan abiatuta, Arantzazu-Arbelaitz-Arantzazu ibilbidea egingo dute.

ERRETIRATUEN IRTEERA

Xalbadorpek antolatuta, herriko erretiratuek Santanderren egingo dute egun-pasa hilaren 26an. 08:15ean abiatuko dira Elgetatik.

herri kontsulta

Ekainak 22

Pauso berri bat ematera goaz eta zure eritzia jaso gura dugu.

"Udaletxean adostu den hondakinen bilketa sistemarekin ados zaude?"

Garrantzitsua da zure parte hartzea.



SASKIBALOIA

Kantxetatik kalera, zazpigarren urtez

Bergarako Saskibaloi Elkarteak antolatuta, hiruko tornea jokatu dute

X.U. | BERGARA

Hiruko Saskibaloia Txapelketaren zazpigarren edizioa jokatu dute asteburuan Bergaran. Zapatuan eta domekan izango dira norgehiagokak, eta horrez gain, beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte Bergarako kaleetan egiteko.

Bihar, zapatua, 10:00etan hasita infantilek eta kadeteek jokatuko dute –San Martin plazan izango dira partiduak– eta 16:00etan, berriz, juniorrek eta seniorek. Ondoren, afaria egingo dute, eta aurkezpenean Marian Mellado Bergara KEko lehendakariak hauxe esan zuen: "Afarian oso giro ona sortzen da; iaz, esaterako, 85 pertsona inguru batu ginen mahaiaren bueltan. Gainera, kanasta bat ere jartzen dugu, umeei bertan saskibaloian joka dezaten".

Domekan, gaztetxoak

Domekan txikien eguna izango da; 10:00etan hasita, benjaminen eta alebiren jokatuko dituzte hiruko partidak, horiek ere plazan. Saskibaloiaz gain, txosna bat ere izango da kalean bertan, eta Muni-be plazan haurrendako puzgarriak jarriko dituzte.

Babesletza berriaz

Aurtengoa zazpigarren edizioa izango da eta berrikuntza batekin dator hirukoa, antolatzaileek La Caixarekin hitzarmena sinatu dute eta ekimenaren babesle izan dadin. Gainera, 16 urtetik beherakoek Port Aventura-ko sarre bat jasoko dute. Babesleek laguntzaz gain, gurasoena ere bereziki eskertu nahi izan dute antolatzaileek: "Izan ere, haien



2012ko edizioko une batean, gazte mailakoak lehiatzen. | GOIENA

ESANAK

"Gurasoen laguntza barik ezinezkoa izango litzateke"

MARIAN MELLADO | ANTOLATZAILEA

laguntza gabe ez litzateke hau guztia posible izango".

Geroago eta ezagunago

Urtetik urtera ezagunagoa da Bergarako Hiruko Saskibaloia Txapelketa eta bertako zein kanpoko talde asko etortzen dira urtero. Hala, elite mailako kategorian lehia ikusgarriak aurreikusten dira, urtero moduan.



lazio irteerako unea; Josep Maria Pijuan izan zen azkarrena. | I.SORIANO

MENDIA

Atleta asko takarraren ibiliko dira bihar gauerdian, Eskoriatzako gaueko lasterketan

X.U. | ARRASATE

Bihar, zapatua, 23:00etan hasita egingo dute Eskoriatzan Gabez Takarraren mendi lasterketa proba, laugarren edizioa jada. Atletek Eskoriatzako plazan hasiko dituzte lanak, eta handik Asentzio tontorrera egingo dute eta Mazmela auzotik bueltan plazara itzuli. Gero, Atxorrotzerantz joango dira, eta, Makatz gainera igota, plazan bukatuko

dute proba. Guztira, 23 kilometro izango dira, 1.200 metroko igoerarekin.

Gazteak ere bai

Gazteendako lasterketa ere egingo dute; 16-18 urte bitartekoek Asentziara joan-etorria egingo dute, bederatzi kilometro guztira. Hala, lasterketa hasi aurretik Eskoriatza Kirol Elkarteak omenduko dute.

MENDIA

Paiju Peak-era buelta, WOPeak proiektuko lehen urratsa

X.U. | ARRASATE

Denboratxo zeramaten ezkutuan Alberto Iñurrategik, Juan Valle-jok eta Mikel Zabaltzak, baina aste barruan bertan aurkeztu dute epe ertainera izango dituzten proiektuak.

Hasteko, zailtasunez betetako Paiju Peak-era (6.610 m) itzuliko dira, Karakorumera, iaz amaitzeke geratu zen proiektuan beste ahalegin bat egitera: "Oraingoan horma horren gaineko informazio gehiago dugu, baina horrek ez digu arrakasta ziurtatzen", adierazi zuen Aretxabaletako mendizaleak aurkezpenean.

Beste bi proiektu segidan

Paiju Peak, baina, WOPeak proiektu solidarioaren barruan duten lehen erronka izango da, Jannu (7.710 m) eta Cho Oyu (8.201 m) begiz jota dituzte eta –horiek 2015era begira.

Gaixotasun neurologikoen kontra borroka egiteko asmoz sortutako fundazioa da WOP, eta honako proiektua jarri zuten abian: 1.000 eta 8.000 metro arteko mendiak igotzea. Gorbeia igotzea izan zen lehen erronka, eta Pirinioetan, Andetan eta Argentinan helburuak lortu ostean, hiru mendizale horiek hartuko dute erreleboa.



GIMNASIA ERRITMIKOA

DRAGOI

Ikasturtea behar den moduan agurtzen dabilta

Emaizta onak lortu ditu Arrasateko Dragoi Gimnasia taldeak L'Hospitaleten. Domekan lehiatu ziren I Trofeo Gimnastica Aerobica L'Hospitalet torneoan, eta 3. mailan hainbat modalitatetan lehenengo sailkatzeaz batera, bigarren mailan ere txukun jardun zuten. Ariznoakoek, oster, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan emaitza onak lortu ondoren, gaur, egubakoitza, amaituko dute denboraldia (19:00, Labegaraia).



ARIZNOA

PILOTA

San Fermin torneo jokatu du Beñat Rezustak, Xalarekin

Bigarren mailako binakako eta buruz buruko txapelketak irabazi eta gero, Aspek udako torneo garrantzitsuenetako batean sartu du Beñat Rezusta bergarra. Xala izango du lagun uztailaren 6a eta 14a bitartean Iruñeko Labriten jokatu den torneoan. Bera-saluz II-Beroiz eta Ezkurdia-Barriola izango dira euren multzoko beste bikoteak, eta beste multzoan ariko dira Julen Retegi-Zabaleta, Idoate-Albisu eta Olaizola II-Are-txabaleta.

TXIRRINDULARITZA

Lizarralde eta Etxabe, Espainiakorako aurre-zerrendan

Eneko Lizarralde (Gipuzkoa) eta Jokin Etxabe (Debabarrena) bergararrak ekainaren 28an Ponferradan jokatu den Espainiako Txapelketarako aukera dutenen artean daude. Hamabi laguneko zerrenda egin du Angel Balzola hautatzaileak, eta horietatik hamar izango dira azkenean Euskadiko selekzioarekin ariko direnak. 146 kilometroko lasterketa izango da, bi igoeratzu dituen zirkuituan. Domina bat lortu nahi dute euskaldunek.



Sergio Gartzia oñatiarra –erdian–; aurten ere irteeran izango da. | IMANOL SORIANO

ATLETISMOA

Euskal Herriko atleta onentsuenak, beste behin, XII. Herri Lasterketan

Bihar, zapatua, izango da, 19:00etan, 10.000 metroko ibilbidearekin

JULEN IRIONDO | OÑATI

Izaera berria eman zioten iaz Corpus jaietan egiten den Herri Lasterketari, eta izan zuen emaitzarekin pozik –eta garai bateko nazioarteko izen handiak ekartzea,

gaur egun, ezinezko–, errepikatzea erabaki dute aurten Antxintxiketan Kirol Elkartekoek: distanziako Euskal Herriko atleta onentsuenak ariko dira lehian bihar Oñatiko kaleetan.

Hogei korrikalari inguruk hartuko dute parte, guztiak antolakuntzak gonbidatutakoak; lasterketan izango dira, besteak beste: David Gartzia durangarra –iaz bigarren–, Imanol Cruz donos-

tiarra, Unai Uriarte bilbotarra –Euskadiko Txapelketa irabazi berria 3.000 metroko hesi proban– eta Kike Sebastian dulantziarra –Laredoko maratoia irabazitakoa berriki–. Horiek dira aurreko lehian ibiliko direnak, Antxintxiketaneke Asier Osinagaren arabera.

Atletak gonbidatzeko orduan, mailaz gain beste irizpide bat ere eduki dute kontuan, zenbait kasutan, antolatzaileek, eta herriko edo inguruko atleta batzuk ere gonbidatu dituzte: Sergio Gartzia oñatiarra, Endika Donnay arrasatearra, Tasio Gomez zumarragarra –Aloña Mendin ari da– eta Ander Agirre bergararra. Xabier Luis oñatiarra ere bazegoen gonbidatuta, baina, min hartuta, ezin izango du egon, Ivan Fernandezek –iazko irabazlea– eta Asier Cuevasek bezala –bi hauek onenen zerrendan leudeke bestela.

Ibilbidea azken urteetako bera izango da, postetxe parean hasita, Atzeko kalean, Kale Barrian eta Kale Zaharrean barrena, zortzi itzuli –aurrenekoa laburragoa–, 10.000 metro: lasterketa "polita eta konplexua", antolatzaileen esanetan, 33 bihurgune eta gora-beherak ere badituelako. Nagusien lasterketaren aurretik, neska-mutikoenak egingo dituzte, 12:00etan hasita.

Torreazoko krosa

Ekainaren 29an, berriz, Torreazon izango da zita: Mendizabal kirol denda eta www.kirolprobak.com-en eman daiteke izena.

Hagin berriztapen zehatz-zehatzak


CEREC TEKNOLOGIA : odontologia digitala

Egun bakar batean, beharrezko pieza diseinatu, fabrikatu eta ipini

HARRI ZURI
HORTZ KLINIKA

Ibargarai 21, behea - BERGARA
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00
Zapatuetan:
Aurrez deituta.



Eskaneatu + Diseinatu + Fabrikatu + Ipini

Zeramikazko hortz-koroak Inkrustazioak Zubiak Karillak

- Molderik ez du behar.
- Behin-behineko konponketarik ez du behar.
- Denbora aurreztuko duzu.
- Behin etorri beharko duzu kontsultara.
- Egun berean hortza eskaneatu eta egun berean jartzen da.
- Iraupen luzeko enpasteak dira.

**Bisita bakarrean,
neurri-neurrira egindako pieza
eta estetika paregabekoa.**




**Astebukaeran urgentziaren bat
baduzu, deitu lasai mugikorrera!**

Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu

Medizina erregeneratzailea lantzen dugu
(PRGF plasma), zikatrizazio hobea lortzeko
eta hobeto osatzeko

Kromoterapia eta Shiatsu erlaxatze teknikak
erabiltzen ditugu, lasai senti zaitezten

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Zazpigarrenez, Errekan Gora

- ▶ Aitzorrotz kultura elkartearen udako musika jaialdia uztailleko asteburuetan izango da
- ▶ Aurreko edizioetan baino ekitaldi gutxiago izango diren arren, indartsuagoak dira

A. ARANBURUZABALA | ESKORIATZA

Herriko jaiak bukatuta, Errekan Gora jaialdiak hartuko du Eskoriatzako kultura eskaintzaren lekukoa. Udalaren eta beste hainbat erakunderen babesa badu ere, Aitzorrotz kultura elkarteak du oraingoan ere antolatzekeo ardura nagusia.

Aurrekoekin alderatuz ekitaldi gutxiago badira ere, erronka bikoitzari egin diote aurre uztailaren 4an hasiko den egitarauan: musikari ezagunak ekartzea, batetik; eta herriko hainbat txokotara heltzea, bestetik.

Lau egunean, bost kontzertu

Musika emanaldiak izango dira guztiak. Askotariko estiloak, publiko zabalarik eskainitakoak eta doakoak. Lau egunean banatuta eta herriko txoko banatan izango dira uztailleko asteburuetan, baina ez guztietan.

Lehenengo asteburuan bi izango dira. Besteak beste, flamenko eta fusio ukituekin ekingo diote egubakoitzean Amparo Sanchez (Amparanoia ohiak) eta haren taldeak, Huheziko klaus-troan. J&P nafarren brass doinuek hartuko dute hurrengo egunean lekukoa; horiek herriko plazan



Aitzorrotz kultura elkarteak udal ordezkarekin, martitzenean Azkoaga Enean egindako aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

ESANAK

"Herriko gune gehiagotara heltzea lortuko dugu aurten"

J. L. ZUBIZARRETA | AITZORROTZ

egingo dute kontzertu nagusia. Bigarren asteburuan ez da emana naldirik izango eta uztailaren 18an Azkoaga Eneako terrazan izango da Anje Duhalde, bere gitarra bakarrik lagun duela.

Azkeneko zapatuan, uztailaren 26an, izango da azkena. Kontzertu bikoitza: KASHBÄD eta Eratu!, berriaz, telonero moduan. Santa Marina plazan joko dute eta Aitzo-

rrotzekoek barra zerbitzua jarriko dute, 20:00etan hasita.

Aurreko edizioen bidetik

2008an sortu zuten jaialdia, herriko kultura eskaintzari bestelako ekarpena egiteko.

Aurtengo erronka nagusia ekimena herrian sustraitzea eta, era berean, bailaran indartzea dute Aitzorrotzekoek.

Aurtengo Errekan Gora jaialdiko protagonistak

AMPARO SANCHEZ

- ▶ **Uztailak 4, 22:30.**
- ▶ **Huheziko klaus-troan.**

Eskarmentu handia du musikagintzan garai bateko Amparanoia taldeko gidariak. Boskote akustiko formatuan dator orain arteko ibilbidearen gainbegiratu egitera. Ricard Parera (bateria), Jordi Mestres (kontrabaxua), Allan Perez (perkusoia) eta Willy Fuego (gitarra) izango ditu Eskoriatzan taula gainean lagun.

J&P BRASS BAND

- ▶ **Uztailak 5, 22:30.**
- ▶ **Herriko plazan.**

Bateria lagun dutela, haizezko askotariko musika tresnak (saxoak, tronpetak, tuba...) batzen dituen Iruñeko talde gazteak kantu propioekin eta askotariko bertsioekin osatutako emanaldi dibertigarria egingo du. Herriko plazako kontzertuaren aurretik, kamioneta baten barruan doazela, kontzertu ibiltaria egingo dute kale eta auzoetan zehar (20:00).

ANJE DUHALDE

- ▶ **Uztailak 18, 22:30.**
- ▶ **Azkoaga Enea hotelean.**

Oso ezaguna da ibarrean musikari lapurtarra. 70eko hamarkadan Errobi taldean hasi eta ibilbide pertsonalagoari heldu zion gero. Askotariko talde eta musikariekin egin ditu elkarlanak; Akelarre taldearekin, adibidez. Bizkar gainean dituen askotariko diskoen gainbegiratu akustikoa egitera dator Eskoriatzara, gitarra eta bere ahotsa lagun bakar dituela.

KASHBÄD + ERATU!

- ▶ **Uztailak 26, 22:00.**
- ▶ **Santa Marina plazan.**

Lozorroan egon ondoren, zuzenekoetara itzuli da 90ko hamarkadan sortutako Oretako laukotea. Duela hamabost urte azkenekoa kaleratuta, maiatzean aurkeztu zuten laugarren diskoa: *Arrakala*. Sorkunen ahotsak gidatuta, hardcorearen, rockaren eta reggaeren arteko nahasketa da; batzuetan, abiadura azkarrean; eta lasaiago, berriaz, bestetan.



AMPARO SANCHEZ
MUSIKARIA

"Entzutekoa, dantzatzekoa eta parte hartzekoa izango da"

45 urte beteko ditu irailan; taularen gainean gustura dago eta egindako ibilbideaz harro. Etorkizunari kolore berdeaz begiratzen dio.

Lehen, Amparanoia eta Amparo, Amparo Sanchez orain; antzekotasunik edo desberdintasunik bien artean?

Bihurrikeria eta jaia zen oinarrian Amparanoia; orain, berriaz, bihurrikeria guztiz alboratu barik, kantuekin bihotzeraino heltzea da asmoa. Amparo Sanchez pertsonalagoa edo intimoagoa da.

Alma de cantora diskoa- rekin zatoz, baina urrirako duzu hurrengoa.

Oraintxe grabatu dut, Arizonan, eta Euskal Herrian nahastu gero, Calxico lagunekin, *Espiritu del sol* lana. Emakume moduan izan dudun bilakaeraz abesten dut, besteak beste. **Liburu bat duzu labean.**

Irailan kaleratuko dut *La niña y el lobo*; 14-24 urte nitueneko autobiografia da. Orduko bizipenak partekatu gura ditut egun indarkeria matxistak bizi duten edo ama nerabeak diren emakumeekin.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014
ekainak 21

uztailak 19
irailak 20
urriak 18
azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoen Sarea

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
hurbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.





Maidar Arregi oñatiarra Gipuzkoako finalean. | GOIENA



Peru Abarrategi aramaiorra bertsotan. | PERU ABARRATEGI

Debagoieneko bi ordezkari izango dira eskolarteko bertsolari txapelketan

Maidar Arregi oñatiarra eta Peru Abarrategi aramaiorra arituko dira kantuan bihar, 11:00etan, Orion

ANE ELORDI | ARRASATE

Oñatiar batek eta aramaioar batek ordezkatzuko dute Debagoiena, bihar, Orion jokatzeko den Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finalean. Guztira, hamaika gazte lehiatuko dira, herrialde bakoitzeko txapeldunak eta txapeldunordeak.

Gipuzkoako txapelduna da Maidar Arregi oñatiarra. Arrasateko Amaia antzokian jokatu zuen finalean lortu zuen garai-pena, maiatz amaieran. Iaz ere areto berean kantatu zuen, eta gustura geratu ez izana adierazi zuen. Aurten, aldiz, lortu du final handira heltzea, eta pozik dago

Arregi. Oporretatik bueltan kantatzuko du, zapatuan, Orion. Final baten atarian lasai egotea garrantzitsua dela adierazi du oñatiarrak, eta prestaketa lanik ez duela egin, "fresko" joatea komeni dela dio. Hala ere, Gipuzkoako finala prestatzeko egindako lanak oraindik gogoan dituela dio.

Peru Abarrategi gazte aramaiorra ere oholtzara igoko da bihar. Arabako txapelduna da hura, eta finalaren eguna gerturatu ahala urduritasuna nabaritutuz doala adierazi du. Hala ere, finalera begira, prestaketa lanak egiten aritu da bertsotan. Orion lagunerekin eta hurbilekoen babesa

ere jasoko du, bihar: Aramaioko jarraitzaileak han izango dira, herrikidea animatzen.

Saio ona egitea helburu

Biharkoa final garrantzitsua bada ere, bi bertsolari debagoiendarrak bat datoz: saio ona egitea dute helburu, egunaz gozatzea eta jai giroaz disfrutatzea. Hori guztia eginda, txapela lortzen badute, askoz alaiago egongo direla adierazi dute. Ez dute lehia helburu nagusi, ezta txapela lortzea ere.

Guztira, hamaika bertsolarik kantatzuko dute finalean. Arregik adierazi du lehia gogorra izango dela, eta oso parekatua. "Ez dago faborito argirik, eta ez naiz kiniek egitera ausartuko", dio Maidar Arregik. Bertsolarietako batzuek ezagutzen dute elkar, adibidez, bertso udalekueetatik, baina beste batzuek ez. Peru Abarrategirentzat finalistetako batzuk ezezagunak dira, baina dio Gipuzkoako eta Bizkaiko bertsolariek maila handiagoa izaten dutela, eta haiek izan daitezkeela txapela eskuratzeko faboritoak.

Egun osoko egitaraua

Bertsozale Elkartek antolatuta, 11:00etan hasiko da finala, bat-bateko saioarekin. Arratsaldean, 15:00etatik aurrera, bertso-eskolen emanaldiak eta erromeria egongo dira. Beñat Gaztelumendik aurkeztuko du saioa eta Maialen Lujanbiok jantziko dio txapela irabazleari.

Virginia Imaz | Oihulari Klown taldeko kidea

"Munduarekiko kezka guztiak kanporatzen ditugu antzerkiaren bitartez"

Hamabost hilabeteko lanaren ostean, antzezlan berria aurkeztuko du Oihulari Klown taldeak gaur

ANE ELORDI | BERGARA

Klown munduan ezaguna da Virginia Imaz. Izatez donostiarra bada ere, bizitza erdia darama Bergaran. Bertako Oihulari Klown taldeko kide da, eta sortu berri duten azken lana aurkeztuko dute gaur Zabalotegi aretoan, 22:30ean. *Desorientadas* du izena antzezlanak, Virginia Imazek zuzendutako lana da, eta Rakel Imaz eta Maria Viadero aktoreek etorkizuneko pailazo bidaiari bi gorpuztuko dituzte.

Bergaran egingo duzue antzezlanaren aurkezpen nagusia.

Bai, hala da. Azken ukituekin gabiltza, pixka bat urduri. Aurre-estreinaldiak egin ditugu Lizarran eta Iruñean, bertan jarraitzaile asko ditugulako. Proba moduan egin dugu, eta emaitza ona izan da. Pozik gaude publikoak izan duen erantzunarekin.

Zein da zuen antzezlanaren oinarria edo abiapuntua?

Gure lan guztietan bat-batekotasuna da nagusi. Jorratu nahi ditugun gaien inguruan inprobisatzen hasten gara, eta sortzen



Virginia Imaz. | VIRGINIA IMAZ

ditugun esketxeekin egituratzen ditugu antzezlanak. Gidoia azken urratsa da.

Desorientadas antzezlanak gizartearen egungo egoera kritikatzeko du helburu?

Gure helburua beti da gure buruaz barre egitea, gure egoera, kezka nagusi eta arazoaren gainean barre egitea. Mota horretako gaiak lantzen dira antzezlanean. Gizarteari lotutako gaiak; munduarekiko kezka guztiak kanporatzen ditugu antzerkiaren bitartez.

Gizarte arazoak eta balioak abiapuntu dira azken antzezlanean.

Bai; sentsibilizazioa garrantzitsua da guretzat. Aktore biek hurbi-letik bizi dute kulturartekotasuna eta generoen berdintasunaren ikuspuntua, ideia biak islatu nahi izan dira antzezlanean. Ekofeminismoa, munduaren jasangarritasuna eta halako kontzeptuak landu ditugu. Polita da gai larriak umorearen bitartez publikoari eskaintzea; horrela nahiko urrun heldu garela uste dut.

Antzezlanaren helburua da publikoa hausnarketara bideratzea?

Bai; erreflexioa bilatzen dugu. Izan ere, esaterako, hitzaldi baten bitartez gai horiek lantzerakoan publikoa larritu egiten da. Baina antzerkiaren bitartez, barnerketa xamurragoa da, arazoa leundu egiten da. Hala ere, bi ikusle mota daude: batetik, antzezlanarekin barre egiten dutenak; eta bestetik, barre eta jorratutako gaien inguruan hausnarketa egiten dutenak. Adierazpen lana denez, irakurketa zabala da.

Desorientadas lanean pailazo bi datoz mundua eraldatzera.

Karufa eta Muxutruka pailazoak etorkizunetik etorritakoak dira, eta mundua eraldatzeko esperantza dute. Beraien munduan dena aldatuta dagoelako. Mezu hori zabaldu nahi dute, irtenbideak ere aurkeztu dituzte, baina kritikaren bitartez. Hitz potolo asko erabiltzen dira antzezlanean, batzuentzat arrotzak izan daitezkeenak, eta horiei guztiei umore puntua erantsi diete, kontzeptuak arintzeko asmoz.

Balioetan oinarritutako antzezlanaren eskainiko du Hortzmugak Oñatin

ANE ELORDI | OÑATI

Oñatiko Corpus jaiak direla eta, askotariko ekintzaz osaturiko egitaraua antolatu dute, adin guztientzako. Bihar, 17:30ean, haurrei zuzendutako ikuskizuna eskainiko du Hortzmuga antzerki konpainiak. *Libertia* kale antzezlanaren egingo du Etxeluzeko parkean. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian egingo da.

Abentura fantastikoa du abiapuntu antzezlanak, eta hiru txotxongiloren bitartez hainbat

balio eta kontzeptu lantzen dira; besteak beste, askatasuna, ausardia, haurren autonomia eta independentzia, laguntasuna, konfiantza eta errespetua. Hori guztia, txikien ikuspuntutik eta umoretik landuta.

Errealitatearen isla

Haur guztiek ez dute garapen garai ezta maila bera, eta txotxongiloek hori erakutsi nahi dute. "Garena izatera heltzeko denok egiten dugun bidea", hala definitzen dute *Libertia*.

Eulateren lana hizpide hartuta, Arantzazun haurrentzako lantegia

ANE ELORDI | OÑATI

Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko Adiskideek antolatuta, haurrei eskainitako lantegia egingo da bihar, goizez, 10:30etik 13:30era, Arantzazuko Gandiaga Topagunean.

Helburua da haurrek Xavier Alvarez de Eulateren obra plastikoa ezagutzea, eta ulertzea argi eta koloreek sor dezaketen eragina. Horretarako, *Eulate, Argi Handi Bat!* lana izango dute hizpide. Donostiako Maushaus arkitektura estudioak

gidatuko du lantegia. Hasteko, basilika bisitatuko dute, Eulateren egindako beirateak ikusteko, hain zuzen ere.

Bigarren saio praktikoa

Apirilean egin zen lehen lantegia; arrakasta ikusita, bihar errepikatu egingo dute.

Haurrek lan artistikoak egin dituzte, hiru arlotan: mosaikoak, eskulturak eta pinturak. Argiekin aretoa transformatuko dute eta gurasoek lanak ikusteko aukera izango dute.

ARRASATE
JAIETAN!

SANJUANAK 2014

Jaietako egitaraua
'Zeuk in zeuk jan' bazkaria
Danborrada, batailoi berri eta guzti

Herirko nagusiei omenaldia
Tarbernak: jaiaren hauspoa
Umorea eta ikuskizunak

Txikiendako ekitaldi guztiak
Kanpoan bizi diren arrasatearrak
Makala jasotzea

Argazki zaharrak, oroitzapen berriak
Antzerki eta musika eskaintza
ARRASATE JAIETAN!



ARITZ GORDO



Gora, San Juan jaiak!

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

☎ 943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.





AGURRA

INAZIO
AZKARRAGURIZAR
Arrasateko
alkatea

Alkatearen
agurra

Konturatu gabe
igaro da beste
urte bat da eta
gainean ditugu
sanjoanak.

Urtean zehar une on
asko bizi izan ditugu, bai-
ta gogorrek ere. Berrito
onenarekin geratuko gara
eta, txarretik ere ikasi
dugunez, txarra berriro
botako dugu sutara.

Atsegin dut modu
parte-hartzailean landu-
tako egitarau honen altzo-
tikzuek agurtu ahalizatea.
Programa hau eragile,
kultur talde eta herriko
txosnetako komisioren
ekarpenarekin egin dugu.
Gure asmoa da jaietan
guztientzat eskaintzea
gune atsegin bat.

Aurten ere jaiak tope-
ra biziko ditugu, eskain-
tzen dugun egitaraua eta
bat-batean sortuko diren
jarduerekin gozatuz. Gure
plazak eta kaleak erabili
ditzagun, kantatzeko,
dantzatzeko, jateko, elkar
ezagutzeko... beti bestea
errespetatuz.

Besarkada handi bat
arrasatear guztioi eta
batez ere arrazoi desber-
dinengatik gurekin egon
nahi eta ezin duzuenoi.

JAIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA

20

17:30-20:30 Kulturateko areto
nagusian, ERAKUSKETA:
Mondragoe beirazko plaketan.

18:30 Amaia antzokian Arrasate
Musikalen ikasturte bukaerako
EMANALDIA.

21:00 KANTU AFARIA Jose Letona
plazan SEI PISTOLS ETA
TRABUKO BAT taldearekin.

ZAPATUA

21

09:00 Seber Altube plazan, hileroko
III. zapatuko BASERRITARREN
azoka. Jakionek KONTSERBA
TAILERRA eskainiko du, doan,
11:00etatik aurrera.

09:00 Goiz osoan Alde Zaharrean
10. Herensugea PINTURA
LEHIAKETA. Arrasate Margo
Taldeak antolatuta.

10:00 Mojategi kiroldegiko
Skatepark-ean eta egun osoan
PATXIMATXIN SKATE JAIA.

11:00 Herriko Plazan ARRASATE
AIKIDO TALDEAREN
ERAKUSTALDIA. Ondoren,
ENTRENAMENDU irekia.

13:30 Txosnagunean bazkaria St
PAULI taldearen BESTE BAT!
peñak antolatuta.

14:30 Harresi aretoan PINTURA
lehiaketaren SARI BANAKETA.

17:30-20:30 Kulturateko areto
nagusian, ERAKUSKETA:
Mondragoe beirazko plaketan.

16:30 BESTE BAT! peñak

antolatuta haurrentzako parkea
txosnagunean.

20:00 ELAI abesbatzaren
kontzertua PARROKIAN.

21:00 Herriko Plazan DRAGOI
JANA. Plazan erretako dragoia
hantxe bertan dastatzeko aukera.
AEDk eta AEK-k elkarlanean
antolatzen dute herri afari hori.
Interesatuok AED, AEK, Monte,
Kajoi eta Irati tabernetan dituzte
txartelak eskuragai. AEDko bazkide

zein AEK-ko ikasleek 8 euro
ordaindu beharko dituzte;
gainontzekoek, 10 euro. Guztira
400 txartel jarriko dira salgai.

22:30-23:00 Dragoi TRIBIALA eta
sorpresak.

23:00 TXOBORRO magoa.

23:00 KONTZERTUA
txosnagunean: SCREAMERS &
SINNERS, SEÑOR NO eta SEX
MUSEUM.

DOMEKA

22

Goizean zehar, Seber Altube
plazan, ESKUARTEAN artisau
taldeak antolatutako AZOKA.

17:30 EUSKARAZ BLAI,
Txosnagunean.

20:00 BERTSO JAIALDIA Seber
Altube plazan, AEDk antolatuta.
Parte-hartzaileak: Miren Amuriza,
Iker Zubeldia, Aitzol Barandiaran,
Jone Uria. Gai jartzailea: Asier
Ibaibarriaga.

ASTELEHENA

SAN JUAN BEZPERA

23

12:00 Txosnagunean AEDk jaurtiko
du TXUPINA. Gero TRIKI-POTEOA.

14:30 Herri BAZKARIA Uarkapen.



Erraldoien konpartsa, kalejira egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Ondo pasa
sanjuanetan!

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,
txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



16:30 ETXAFUEGOAK eta GRANADA JAPONIARRAK Biteri plazan.

17:00 Seber Altube plazan IKUSI MAKUSI taldearen MUNDUKO IPUINAK ikuskizuna.

17:30-20:30 Kulturateko areto nagusian, ERAKUSKETA: *Mondragoe beirazko plaketan.*

17:30 TXOPO-POTEO plazaraino makalarekin INCANSABLES txarangaren laguntzarekin.

18:45 Herriko Plazan MAKALA jasotzea.

19:30 San Juan Bataiatzailearen parrokian SALVE SOLEMNEA.

21:00 ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

23:00 Nafarroa etorbidean hasita eta herriko kaleetan zehar, HELDUEN DANBORRADA. SUDCEk antolatuta.

Segidan, Herriko Plazan, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.

MARTITZENA SAN JUAN EGUNA

24

08:00 TXOKOLATE-JANA txosna batzordeak antolatuta.

08:30 DIANA, Arrasateko gaiteroekin.

09:00 ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Laubide. Gero, zaleentzako bigantxak zezen-plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokian, MEZA NAGUSIA.

11:00 Arrasateko Erraldoien eta



Hiru lagun, iazko kantu afarian; aurten ere egingo da. | GOIENA



Danborradako amaierako ekitaldi nagusia. | JOSETXO ARANTZABAL

Kilikien KONPARTSAK KALEJIRA egingo du.

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDArekin KALEJIRA. 11:30ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsarekin eta gaiteroekin.

12:00 Herriko Plazan ohorezko AURRESKUA eta San Juan ZORTZIKOA.

12:30 Etxaluzen (Abaroa) 80 urtetik gorako NAGUSIEI omenaldia.

13:00 Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDArekin.

Egitaraua:
El tambor de granaderos (obertura), R. Chapi

La dama de Anboto (opera aukeraketa), B. Zapiain
Beatles collection, J. Lennon, P. McCartney

El cumbanchero, R. Hernandez
Las fiestas de Estella (pot-pourria), J. Romano

Zuzendaria: Mikel Markiegi.

17:30-20:30 Kulturateko areto nagusian, ERAKUSKETA: *Mondragoe beirazko plaketan.*

17:30 Herriko kaleetan zehar STREET BOULDER txapelketa.


18:30 Seber Altube plazan Eidabe taldearen SARDINA FRESKUE ikuskizuna.

19:00 Herriko Plazan eta Eusko Labelen eskutik OILASKO-DASTATZEA Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin.

19:00 Uarkape frontoian PILOTA PARTIDUAK: Mikel Goñi eta Fernando Goñi hauen aurka: Sebastian Gonzalez eta Eulate. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte.

19:30 Zezen-plazan ERREKORTADOREEN ERAKUSTALDIA.

20:00 Erdialdeko kaleetan zehar



HORTZ KLINIKA
UARKAPE
Nicolas Bermejo doktorea

RPS: 294/13

- Odontologia orokorra
- Endodontziak
- Implantologia protesiak

*Ondo pasa
San Juan
jaixetan!*

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85



epele
Calderería

KALEJIRA gaitero eta Arrasate Musikaleko haize taldearen eskutik.

23:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa pirotekniaren eskutik.

23:15 HerrikoPlazan, Fan&GO taldeak girotutako DANTZALDIA.

23:15 Monterron parkean, Demode Quartet taldeak EPA! ikuskizuna aurkeztuko du.

EGUAZTENA
HAURREN ETA GAZTETXOEN
FESTA

25

08:30 DIANA ARRASATEKO
GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko



Zea Mays-ek kontzertua egingo du. Argazkian, Oñatin egin zuenekoak. | J. CALLEJA



Skate festa izango da aurten. Irudian, iazko jaietan, gatzetxoa monopatinean. | GOIENA

eguneko ibilbidetik; gero, zaleentzako bigantxak zezen-plazan.

10:30 Biterin HAURGUNEA eta Zaldibarren GAZTEGUNEA jarriko dira martxan 14:00ak arte.

12:00 EGUZKILARURI ongietorria, karaokea eta makal txikia jasotzea Biteri plazan.

12:00 Maisu Aranon Zeuk iñ zeuk jan BAZKARIAren prestaketa.

13:00 KALEJIRA HERRIKOIA txistularien eskutik.

13:30 APAR JOLASA Jokin Zaitegi plazan. Bainujantziak ekarri eta igerilekura... apar artean jolastera.

14:30 Kuadrillen arteko Zeuk iñ zeuk jan HERRI BAZKARIA Maisu Aranon; ondoren THE POSTRES taldea. Udalaren eskutik sagardo kupel bat egongo da parte-hartzaileentzat.

16:00 Haurrentzako JOLASAK Maisu Aranon.

17:30-20:30 Kulturateko areto nagusian, ERAKUSKETA: Mondragoe beirazko plaketan.

18:00 Kalejira TTEK Elektrotxarangarekin.

18:30 ERREKORTADOREEN ESKOLA gatzetxoentzat zezen-plazan.

19:00 PIRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS Monterronen. Gero, Eguzkilaruri agurra.

19:00 Kalejira ESENCIA DE MEXICO taldearen eskutik.

22:30 ZESENSUZKOen irteera Portaloitik Herriko Plazara.

22:30 GATIBU, ZEA MAYS eta LAS TEA PARTY taldeak txosnagunean.

23:00 Herriko Plazan LOS DEL GAS taldearekin kontzertua.

EGUENA

26

08:30 DIANA ARRASATEKO
GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleentzako

bigantxak izango dira zezen-plazan.

11:00 Arrasateko ERRALDOIEN ETA KILIKIEN Konpartsaren kalejira.

12:00 Arrasateko TRIKITILIARIEN eskutik, kalejira.

12:00-14:30 KULTURA ARTEKOTASUN AZOKA. Herriko Plazan kultura askotariko jaki tipikoak dastatzeko aukera.

17:30-20:30 Kulturateko areto nagusian, ERAKUSKETA: Mondragoe beirazko plaketan.

18:30 PATATA TROPIKALA taldearen eskutik Kondaira baten truke ikuskizuna Seber Altube plazan.

19:30 Herriko Plazan SOKA DANTZA.

20:00 DANTZALDIA Jon Urbieta DJarekin Herriko Plazan.

20:00 ZOPILOTES TXIRRIAOS taldearen kontzertua Seber Altube plazan.

22:30 Herriko Plazan OIHAN VEGArekin, DISKO-FESTA.



Bainuontzia kendu eta
dutxa jartzen dugu

iKER
Bainu altzariak

Ondo pasatu
San Juan jaietan!

BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52
ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 99 42

'Zeuk in zeuk jan', errotu den bazkaria

2012an 200 lagun eta iaz ia 400; aurten ere jende asko espero dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2012ko San Juan jaietan egin zen lehenengoz eta lehen bi edizioetan arrakastatsua izan da oso. Lehen urtean 200 lagunetik gora elkartu zituen eta iaz, berriz, ia 400 pertsona batu ziren. *Zeuk in zeuk jan* bazkaria berezia denik ezin ukatu, eta dagoeneko errotu den ekintza da. Are gehiago, jaietako zinegotzi Kepa Urteagak uste du "gorantz" joango dela oraindik: "Jendeak aurrez izena ematea eskertu genuke, ze azpiegitura beharko dugun jakiteko". Hau da, zenbat aulki, zenbat mahai eta zenbat sukalde behar-

ko diren jakitea da izen-ematea jartzearen arrazoia. Izan ere, Udalak bertan janaria prestatu gura dutenei sua jarriko die; aurrez izena eman dutenek izango dute lehentasuna.

Atzo itxi zen izena emateko epea, baina egunean bertan parte hartzeko aukera egongo da. Hori bai, sua erabiltzeko lehentasuna aurrez izena eman dutenek izango dute. Era berean, Udalak aditzera eman du plater, edalontzi eta gainerako mahaitresnek berrerabilgarriak izan behar dutela eta gero sortzen diren hondakinak modu selektiboan batuko direla. Era berean, Udalak sagardo kupel bat jarriko du parte-hartzaileendako.

Parte-hartze prozesutik jaioa

Jaiak antolatzeko parte-hartze prozesutik sortu zen *Zeuk in zeuk jan* bazkaria: "Hilaren 25ean giroak behera egiten zuela ikusi genuen eta beste herri batzuetan ere egiten zela aprobetxatu genuen ideia hori Arrasatera ekartzeko. Egia esan, ez genuen espero hala-



Adin guztietako jendea batu izan da Arano eta Gartzia Maisu-maistrak kalean. | GOIENA



Iaz askotariko paella ederrak prestatu zituzten kuadrillek. | GOIENA

ko arrakastarik izango zuenik, poztasunez hartu genuen". Bazkariaren oinarria oso sinplea da: norberak etxetik eraman behar du janaria, aurrez eginda edo bertan egiteko.

Arano eta Gartzia Maisu-maistrak kalean egingo da bazkaria ekainaren 25ean; prestaketak 12:00etan hasiko dira eta bazkaria, berriz, 14:30ean. Ondoren, karaokea egingo dute.

Iaz paellak protagonista

Saririk ez dago, baina iaz, "pike sanoa" sustatzeko, paellak egin zituztenen artean epaimahai inprobisatu batek adostu zuen txistulariena izan zela paellarik "profesionalena". Iaz zazpi edo zortzi paella egin ziren eta aurten ere paella batzuk egongo direla ziurtatu dute kuadrillek.

ESANAK

"Hilaren 25ean giroak behera egiten zuelako antolatu zen"

KEPA URTEAGA | JAIETAKO ZINEGOTZIA

JMA®

*belaunaldiz belaunaldi
herriko sena landuz*

*gora arrasate,
gora san juan*





ALDEDI

Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

**Diseinua, ingeniari-tza, prototipoak, fabrikazioa eta kontrol tresnak,
dena zure esku**



Produktuen garapena

Kontrol tresnak



diseinua



fabrikazioa



prototipoak

**plastikozko eta
txapazko piezentzat**



**bisio
artifiziala**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu! Gora San Juan jaiak!

Ekide SL Telleria kalea F2 20500 Arrasate Tel.- 943 71 25 43 www.ekide.es



Nagusien danborradako entsegua Gaztelupen (lehengo San Viator). | MIREN ARREGI



Batailoi berria, entseguan. | M.A

Batailoi berria aurten nagusien danborradan

Pakistandarrez, nepaldarrez eta marokoarrez osatutako konpainia da aurtengo berrikuntzetako bat

MIREN ARREGI | ARRASATE

Hamar konpainiak eta 250 bat danbor-jotzailek hartuko dute parte SUDCek antolatzen duen San Juan jaietako nagusien danborradan; hamar konpainia horietatik bost dira danbor-jotzaileenak eta beste bost barrileroenak. Aurten, gainera, bada berrikuntzarik parte-hartzaileekin lotuta; izan ere, lehenengoz, pakistandarrez,

nepaldarrez eta marokoarrez osatutako konpainia batek hartuko du parte. Hain zuzen ere, Arranoko konpainiak ez du danborradan parte hartuko aurten eta haien ordeztatu da batailoi berria. "Udalak eta antolakuntzak egin zuten eskaera", dio Imanol Rojok, Helduen Heziketako irakaslea. Hura da danborradako konpainia berriko zuzendaria.

Gaztelaniako eskolak ematen dizkie parte-hartzaile berriei eta hura da, hein handi baten, konpainia berriaren sorreraren erantzule: "Oso garrantzitsua da etorkinei herrikoa den zerbaitetan parte hartzeko aukera eman izana. Kulturartekotasuna islatuko du aurtengo sanjuanetako danborradak", dio Rojok. Eta gaineratu du: "Eskertu gurako nuke

Arrasateko herria, eurengatik egiten duen guztiagatik".

Zuzendaria bera arrantzale jantzita joango da eta barrilerok praka bakeroak, kamiseta zuria eta zapatila beltzak eramango dituzte soinean.

Entsegetan fin

Fin ibili dira konpainia berriko kideak entsegetan. "Doinuak berriak dira eurenak, baina oso ohituta daude instrumentu erritmikoak erabiltzen, eta hori alde dute. Azkar ikasi dituzte doinuak", dio Imanol Rojok. Eta ondo gustura aritu dira entsegetan, gainera: euren aurpegia ikusi besterik ez zegoen horretaz ohartzeko.

Betiko ibilbidea

Nafarroa etorbidean hasiko da nagusien danborrada, ekainaren 23an, San Juan bezperan, 23:00ean. Beti bezala, herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu eta plazan emango diote bukaera. Hainbat pieza interpretatuko dituzte jotzaileek; tartean, *San Sebastian* eta *Deba* martxak, *Gora Arraste*, *Mondragon*, *Diana*, *Danok Bat*...

Hamar konpainiak eta 250 lagunek hartuko dute parte danborradan

? GAUR EGUNGO GALDERA GUZTIEN ERANTZUNA AUTO HONETAN

Ondo pasau sanjuanak!

www.citroen.es



Citroenek nahiago du Total

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 emisioa (g/km): Citroen C4 Cactus: 3,1-4,6 / 82-107

CITROEN C4 CACTUS BERRIA

Zergatik kontsumitzen dute horrenbeste motorrek? Zergatik ez dute zerbait asmatzen autoen ateak babesteko? Zergatik izan behar du hain konplikatu gidatze-panelak? Zergatik eseri behar dugu elkarrengandik urrun, elkarrekin bagoaz bidaian? Ondo pentsatuta, erantzun erraz batera garamatzate galdera horiek guztiek: Citroen C4 Cactus berria. Gaur egungo galdera guztiei erantzuten dien autoa. Gidatzeko modua irauli egin du eta erraz egiten du dena. Igo zaitez autora eta detaile bakoitzean igarriko duzu teknologia eta autoaren beraren diseinu intuitiboa; auto honek erantzun guztiak ditu.



BABES TERMIKO HANDIKO SABAI PANORAMIKOA KRISTALAREKIN 7"-KO UKIPEN-PANTAILA SOFA-ESPIRITUA DUEN ESERLEKUA
AIRBUMP AIRBAG ROOF TEKNOLOGIA MAGICWASH

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Villapinte
911 km

Osny
912 km

Ocaña
448 km

Jaen
716 km

Murcia
780 km

Sevilla
899 km

Puerto
955 km

GAIXORIK DAUDEN PRESOAK
ASKATU!

AMAIUR - BASATI - EKAITZ
ETXOSTE - ILUNTZ - IRATI
MUXIBAR - OSORIK - TAUPA

Nagusiei gorazarre egiteko ordua

San Juan egunean omenaldia egingo diete 80 urte baino gehiago dituzten arrasatearrei, Etxaluzen

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Tabernekin, ligatzearekin eta gaupasekin lotuko dituzte batzuek sanjuanak. Eguzkilarurekin eta barrakekin beste batzuek. Hainbatek, elkarreetan kuadrilla giroan egindako bazkariarekin eta danborradarekin. Baina nola bizi dituzte jaiak Arrasateko nagusienek? Urteak joan eta urteak etorri, bada jaietako egitarauan tinko mantendu den eta eurenak bakarrik den ekitaldi bat: 80 urtetik gorako arrasatearrei egiten zaien omenaldia, hain zuzen ere.

Xumea, baina hunkigarria

Jaietako egun handian, San Juan egunean bertan izan ohi da omenaldia, eta aurten ere halaxe izango da. Ekitaldia 12:30ean hasiko da, Etxaluzen, Abaroa erretiratuen elkartearen egoitzan. "Omenaldiaren helburua da herri-

ko nagusiei gorazarre egitea", dio Kultura teknikari Jon Garaik, xumea baina era berean hunkigarria ere izan ohi den ekitaldiaz berba egiteko orduan. Bada, normalean, alkateak eta beste udal ordezkariaren batek hartzen dute parte bertan.

Aurtengo omenaldian, eta betiko bideari jarraituz, mokadutxo eskaintzeaz gainera, opariak ere banatuko dizkiete bertara joaten diren 80 urtetik gorako guztiei; horregatik eskatzen dute aurretik izena ematea. Era berean, urtero legez, aipamen

berezia egingo zaie ekitaldira joango diren gizon eta emakume zaharrenei. Musika ere ez da falta izango, ekitaldiaren hasieran Abaroako Abesbatzak kantatuko du-eta.

Topalekua ere bai

"Arrasaten gauden lau erretiratuen elkarteetako zuzendaritzetatik oso ondo ikusten dugu ekitaldia", dio Abaroa elkarteak Jose Rivierek, eta gaineratzen du omenaldia, zenbait kasutan, topaleku ere bihurtzen dela: "Badira urtean zehar omenaldian bakarrik elkar ikusten dutenak; bata Zigorrolakoa eta bestea Erguingoa diren lagunak, esate baterako".

Akaso, ez dute zezenaren aurrean korrikarik egingo, edo ez dira goizeko ordu txikiak arte kalean bueltaka ibiliko; baina adinekoek ere badute lekua sanjuanetan.

Parte hartzen duten 80 urtetik gorako guztiek jasotzen dute oparia



lazko omenaldiko une bat: Ignacia Llodio eta Sebastian Artola, omenaldian parte hartu



SAN JUAN

*Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zanetan
aurten ere Sain Juan Bautista.
Jesukristoren lehengusua zan
Sain Juan, Sain Juan Bautista.*

*Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.*

*Ibai guztiak agortu dira
arrain gaixoak egarri
datorren urtean mutikotxuak
nun egingo dute igari*

*Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.*



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

*zure
zerbitzura*



zuten nagusienak, udal ordezkariak eta Abaroako presidenteari. | GOIENA

Zelakoak ziren lehen sanjuanak? Zelan ikusten dituzu egun?

KONTXI GARRO**"Jende asko kanpora joaten da"**

"Gaztetako sanjuanak oso dibertigarriak ziren, herri guztia bertan egoten zen. Gero, hainbat urtean lana egitea tokatzen zitzaigun eta... Baina azken urteetan jende asko kanpora joaten da. Lehenengo eguna errespetatzen duten arren, gero herritik joaten dira".

FRANCISCO AGUILAR**"Lehenengo jaiak sanoagoak ziren"**

"60 urte daramat Arrasaten, eta lehenengo sanjuanak sanoagoak ziren: plazako giroa, dantzaldiak... Gaur egun, jaiak gehiago dira gauekoak egunekoak baino. Daukadan adinarekin gauza gehiegi ere ez dut egiten jaietan: buelta bat eman, tragoxka batzuk hartu eta kito".

GASPAR FERREIRA**"Ez ditugu jaiak lehen bezala hartzen"**

"Garai batekoak ezberdinak ziren, jende gehiagorekin-eta. Mugimendu handiagokoak gogoratzen ditugu, baina egia da orain dugun adinarekin ez ditugula jaiak lehen bezala hartzen. Oso ondo iruditzen zait 80 urtetik gorakoendako ekitaldia; adinekoekin bikain portatzen dira Arrasaten".

MARIA GOMEZ**"Orduko jaiak zoragarriak ziren"**

"23 urterekin etorri nintzen Arrasatera lan egitera. Orduko jaiak zoragarriak ziren; dena gustatzen zitzaidan. Hirugarren eguna, esaterako, oso polita zen. Azkenean ezin izan nuen, baina iaz 80 urtetik gorakoendako omenaldira joatekotan izan nintzen".

MARIA LUISA AGIRRE**"Gutxiagorekin konformatzen ginen"**

"Lehen gaur egun baino askoz hobeto pasatzen genuen, gutxiagorekin konformatzen ginen. Egun osoa kalean ematen genuen: dantzaldiak, txaranga, kuadrillan kanpoan egiten genituen bazkariak... Gaur egun ez duzu kalean inor ere ikusten!".

RAMONA OBREGON**"Jaiak nahikotxo egin dute behera"**

"Lehenengoak hobeak ziren, nahikotxo egin dute behera. 86 urte ditut, eta hartu izan dut parte 80 urtetik gorako omenaldian: jatekoa ematen digute, nagusienei opari bat ere bai... Polita izaten da; ematen diguten apurrarekin konformatzen gara gu".

Estetikan behar duzun guztia eskaintzen dizugu



Zure azala egunero zaintzeko edertasun-programak
eta tratamendu espezializatuak

•
Zure gorputza zaintzeko tratamendu-programak

•
Beltzarantze osasuntsua izateko programak

•
Terapia mediko-estetikoak



Ondo pasa sanjuanetan!

AMAGARA RPS: 228/10

Erdiko kalea 54 behe
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09
www.amagaraestetikazentroa.es

Tabernak, San Juan jaiak hauspotzen

Herriko tabernariak dena prest dute, eta festetan ez da girorik falta izango barraren bi aldeetan

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Badatoz sanjuanak eta Arrasateko taberna eta jatetxeetan dagoeneko dena prest dute jaientarako. Horrelako jaiegun jendetsuak lanegun gogor izan ohi dira tabernarientzat, eta, horregatik, orain dela astebate hasi ziren dena antolatzen.

Jaietan askotariko aukerak izaten dira, otordu arinak zein berbaldi luzeak lagun dituztenak. Eskaintza zabala dago Arrasaten. Amets tabernan ogitartekoak eta plater konbinatuak eskaintzen dituzte, batez ere, eta bertako langile Elizabeth Torresek adierazi duenez, jendeak ez du azken ordura arte erreserbarik egiten. Horrek, noski, eskaerak egiteko kalkuluak ateratzea asko zailtzen du. "Inoiz ez dakizu zenbat jende etorriko den", dio Torresek. Santamasetan, adibidez, bezero uholdea izan zuten tabernan eta ogirik gabe geratu ziren. Edozelan ere, Torres ziur dago sanjuanetan ez zaiela horrelakorik berriro pasatuko.

Erreka jatetxean, berriz, giro lasaia izango da festetan. Kuadrilla eta familia otorduak izaten dituzte gehien; horrekin batera datorren tertulia eta konpainia,

ordea, jana bezain garrantzitsuak izaten dira. Aintzane Valles jatetxeko jabeak azaldu duenez, erreserba asko izan ohi dituzte alde aurretik "San Juan eguerdirako, adibidez, dena beteta izango dugu. Izan ere, askorentzat egun berezia da eta jendeari ondo jatea gustatzen zaio".

Ahalegin berezia

Tabernarientzat egun hauek oso garrantzitsuak izaten dira eta

bakoitzak eskura dituen baliabideak erabiltzen ditu jendea erakartzeko. Izan ere, Torresek haxe nabarmendu du: "Halako egunetan, ohiko bezeroez gain, beste asko ere hurbiltzen dira tabernara, eta haiek gureganatzeko saiakera egiten dugu, kalitatezko produktuak eskainita".

Erreka jatetxean ere aurten apustu berezia egin dute jendea erakartzeko. Lehendabizikoz terraza izango dute eta bertan



Amets tabernako Elizabeth Torres. | M.T.

Lanean bada ere, tabernariak gustura hartzen dituzte herriko jaiak

ogitartekoak eta plater konbinatuak eskainiko dituzte. "Gurea bezalako jatetxeetara joateko ohiturarik ez da izaten gauetan eta terrazarekin giro informalagoa bilatzen duten bezeroak erakarri nahi ditugu", dio Vallesek.


Jaietan ere lanean

Aurten ere, beraz, gainontzekoak parrandan dabilzan bitartean lan egitea tokatuko zaie tabernariari eta jatetxeetako langileei, baina dagoeneko ikasia dute festak beste modu batera bizi izaten. "Pena ere ematen dit, noski, baina dagoeneko ohitu naiz. Beste modu batera bizi ditugu jaiak eta amaitzen direnean izango dugu atseden hartzeko aukera", azaldu du Vallesek.

Gainera, Torresek dioen moduan, "barraren bestaldean ere posible da jaietz gozatzea, taberna festa giroz kutsatzen delako". Tabernariak, beraz, aurten ere alaitasuna zerbitzatuko dute sanjuanetan.



Erreka tabernako Aintzane Valles, alabarekin, aurten ireki duten terrazan. | MAIALEN TORRES




Chatarrería Mondragón, s.l.

Era guztietako txatarra eta metalak erosten ditugu.

• Pabiloiak, ganbarak... garbitu, eraikinak bota...

• Makineria handia dugu.

Ondo pasa San Juan jaiak!



Txurisena poligonoa, 1. lokala. Musakola auzoa, Pesako garajeen ondoan. ARRASATE
Telefonoak: 943 04 44 03 eta 605 75 70 04.



BEIRAN BEHAR DUZUN GUZTIA

- Beirazko lan pertsonalizatuak.
- Denetariko kristalak.
- Manparak, ispiluak.
- Ate irristagarriak.
- Plastikoak.

ERAKUSTOKI BERRIA

- Beira koloreztatua.
- Segurtasun beira.
- Etxe barruko itxierak.
- Barruko ateentzako kristalak.
- Etxeko osagarriak.

LANTEGIA ETA ERAKUSTOKIA

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4 • 23-25 pabiloiak • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 77 07 74 (4 linea) • Faxa: 943 71 10 15
akfactory@arrasatekristaldegia.com • www.arrasatekristaldegia.com

ARRASATE
KRISTALDEGIA









Ate sekzionalak



Ate industrialak



Hiri tresneria



Pertsianak





Garajeko atearak
 Segurtasunezko pertsianak
 Automatismoak
 Konponketak
 Urrutiko agente tresna homologatuak
 Oinezkoen ateentzako
 sistema automatikoak

*Jai zoriontsuak opa
 dizkizuegu eta eskerrik asko
 gudan izan duzuen konfiantzagatik!*

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17 • 110 posta-kutxa • ARRASATE
 jubarateak@jubarateak.com • www.jubarateak.com

Egunero dago txikienendako ekitaldiren bat

Eguzkilaru, barrakak, pailazoak eta konpartsa dituzte gustuko umeei



Pirritx, Porrotx eta Marimotots, iazko ikuskizunarekin; urtero gainezka egiten du Monterronek. | GOIENA

UBANE MADERA | ARRASATE

Eguaztena, ekainaren 25a. Sanjuanetako egitarautik horixe da neska-mutikoen egutegian gorritz markatzekoa, Haurren eta Gaztetxoek Festa Eguna da-eta. Edozelan ere, "egunero dago umeendako eskaintzaren bat. Beti ditugu presente umeak eta gurasoak, eta gure ahalegina izan da arratsaldero jartzea zerbait haiei begira", azpimarratu du Jon Garaik, Arrasateko Udaleko Kulturako teknikariburuak.

Antzerkia, dantza...

Xehetasunetan sartuta, ekainaren 23an (astelehena) ipuinen bidetik joko dute, Ikusi Makusi taldearen *Munduko Ipuinak* ikuskizuna izango da-eta, 17:00etan, Seber Altube plazan. "Gainera, arrasatearrak parte dira ikuskizun horretan", dio Garaik.

Martitzenerako, berriz, beste ikuskizun bat antolatu dute, dantzarekin lotutakoa: Eidaberen *Sardina freskue*, 18:30ean, Seber Altuben. "Hor ere badira arrasatearrak; Jon Zubiaga, adibidez",



Eguzkilaru, ume eta gazteen laguna, beti irribarretsu. | GOIENA

dio udal ordezkariak. Gero, eguaztena Haurren eta Gaztetxoek Festa Eguna pasatu ostean, Arrasateko jai nagusiak borobiltzeko, egunean Patata Tortila taldearen *Kondaira baten truke* ikuskizuna izango da, 18:30ean, Seber Altuben. "Eta jakina, ekainaren 24an eta 26an konpartsa irteerak izango direla ere kontuan hartu behar da, haiek gaztetxoek artean demaseko arrakasta izaten dute-eta", gogorarazi du Garaik.

Barrakak, merkeago

Jaietako egitarauaz aparte, baina, bada Arrasateko Udalak kontuan hartzen duen umeendako beste eskaintza bat: barrakak (Maiazaren Bata plazan). "1,50 euro balio dute. Udalak zehaztuta. Beste leku batzuetan baino merkeago da. Barrakei tasak kendu egiten dizkiegu, prezioa guk zehaztearen truke. Horrekin batera, euskal musika jartzera ere behartzen ditugu", diote Udaletik.

Makal txikia eta Pirritx eta Porrotx

Haur eta Gaztetxoek Festa Egunaren gidari ezinbestekoa gertu du Txatxilpurdi elkarteak: Eguzkilaru. Biteri plaza (umeen gunea) eta Zaldibar (gazteen gunea) jolasgune bilakatuko ditu hark, goiz eta arratsalde. *Jumping*-a, bola erraldoien igerilekua, balance-bikea, apar festa, karaokea, jolas kooperatiboak, mundukoak... iragarri ditu. Baita makal txikiaren igoera ere, iaz horren estreinaldia egin ostean. Eguerdian izango da hori, Biterin, 12:00etan; Eguzkilaruri ongi etorria egin ostean jasoko dute hiru metroko makala. Ekitaldiz ekitaldi, gainera, Eguzkilaruk aterako ditu umeekin horren gustuko dituzten argazkiak. Eta egun osoko jaia Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldiarekin borobilduko dute (19:00etan, Monterronek, doan).



ION

ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK

leihoak

K21

ECOVEN

Ondo ibili San Juan jaietan!



www.ventaion.com
arrasate@ventaion.com

ARRASATE

Telleria kalea 4 • Pab.11
• Tel.: **943 79 11 35**

GASTEIZ

Olagibel 51
• Tel.: **943 26 71 73**

Sanjuanak 2014
Arrasate



URTEKO GAURIK MOTZENA, ETA JAIRIK LUZEENA!

Arrasate • Bengoa • Ezkiña • Itzala • Monte • Okoretegi • Rumba • Txoko II

Arrasatear guztiek dute San Juan jaiak ospatzeko aitzakia

- ▶ Egunez besterik ez bada, gehienak gerturatuko dira Arrasatera San Juan jaiez goatzera
- ▶ Batez ere, familiak baldintzatzen ditu jaiak



Jon Etxebarria,
Oñatiko plazan.

AMAIA ESTEBAN
ESKORIATZA

"Lanak baldintzatuko ditu nire jaiak"

"Sanjuanetan kukutxoren bat edo beste egingo dut, betiere lanak uzten badit", azaldu du Amaia Estebanek. Sanjuanak oso gogoko ditu, "gehienbat, gaueko giroa", aipatu du. Aurten, baina, arratsaldean bueltatuko da bere herrira. "Ez dut planik egin, egunean bertan lagunei deitu eta listo. Jaietan ez da gehiagorik behar", azaldu du Eskoriatzartu den arrasatear honek.

Amaia Esteban,
Eskoriatzako
plaza aurrean.




IMANOL GALLEGO

MAIDER OSINAGA
OÑATI

"Oporretara joateko ohitura daukagu"

Maiderek dioskunez, ez dituzte sanjuanak ospatzen: "Txiki-txikitatik gurasoei oporretara joateko ohitura izan dugu. Eta hala egiten jarraitzen dut etxeko txikiekin. Lanean jai hartzen dut bi edo hiru egun eta umeekin oporretara joaten naiz. Aurten ere hala egingo dugu. Guretzako, festak Santamasak eta Musakolako jaiak dira, Zigarrolakoa naiz-eta".



**anpanzar
obate**
— harrobiak —

Ondo ibili Sanjuanetan!

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

KANPANZAR HARROBIA S.A.

Meatz-Erreka auzoa 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.

Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51



Grupo Amantegi

JON ETXEBARRIA
OÑATI

"Kuadrillarekin egoteko dira herriko jaiak"

Lanak uzten dion neurrian ospatzen ditu Jonek herriko jaiak: "Lanagatik, atzerrira joaten nahiz eta hemen banago festaz gozatzen dut. Posible bada, lanean jai ere hartu izan dut.

Jaiak kuadrillarekin egoteko eta ondo pasatzeko aprobetxatzen ditut; ez daukat ekintza berezi edo jakin batean egoteko ohiturarik; lagunekin egotea izaten da nire plana sanjuanetan".



Agurtzane Agiriano,
Aretxabaletako plazan.

AGURTZANE AGIRIANO
ARETXABALETA

"Urtero gozatzen dut sanjuanetan"

Agurtzanek dioenez, urtero-urtero joaten da herrira, giroaz goatzera, eta "kanpora joateko ohiturarik ez" duela dio. "Egunez gozatzen dut, nagusiki, baina errementari-dantza, danborrada eta suzko errubarak ikusteko ohitura daukat. Senarrak lana izaten du eta nik jai. Hala, lagunekin elkartzeko eta festaz goatzeko aprobetxatzen dut beti".

MAIDER ARREGI

MIRARI ALTUBE



Maidar Osinaga,
Oñatiko plazan.

MAIDER ARREGI

MIKEL LAGUNILLA
ARETXABALETA

"Orain jaiak egunez bizi ditut"

Aretxabaletan bizi den arrasatear honek ez du hutsik egingo. "Beti gerturatzeko naiz jaietara", dio Mikel Lagunillak. Musikazalea da, eta, aita izan denetik, egunez soilik gerturatzeko da jaietara. "Kontzertuak, pailazoengatik aldatu ditut", azaldu du. Kuadrillakoez ere seme edo alabaren bat izan dute, eta horri esker "plan lasaia" egiten dituztela esan du.



Mikel Lagunilla,
Aretxabaletako
Durana kalean.

MIRARI ALTUBE

Eskerrik asko arrasatear guztioi!

Ondo pasa San Juan jaiak!



sustrai
FRUTA - DENDA
Olarte kalea 1. Arrasate.

Makala jasotzea serio hartzen den kontua da

- Gazteak "kontzientziatuta" doazela dio Udal Segurtasun arduradunak
- Ohitura berreskuratu zenetik hiru istripu gertatu dira altxaldietan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Makala, tantai eta zut, jaietako masta gisa plazaren erdian koka-tearena oso antzinatik datorren ohitura bakarrenetakoa da Arrasaten. Frankismoaren garai ilunetan tradizioa erauzi bazuten ere, berreskuratu egin zen sinbolikotik asko duen ohitura zaharra. Ikuskizunetik ere badu dezente makalaren igoerak, eta, azken urteetan bezala, aurten ere herriko kuadrilla gazteenek helduko diote erronkari San Juan egunaren bezperan. Ikusminik handien, noski, zuhaitz zuritua berehalakoan, kostata edo ezinean kamioiak azkenean jasoko ote duten ikusteak pizten du.

Aretxabaletarrak aholkulari

Makala jasotzearen ohitura berreskuratzen hasi zirenean Udalak kamioi batekin jasotzen zuen zuhaitza, ezelako xarma barik. Xabier Zubizarreta alkate zeneko garaietan aldatu zen ohitura, aretxabaletarrendik ikusitakoa. Izan ere, alboko herrian makala jaso bai, baina gazteek tiraka eta indarrez altxatzen zuten

tantaia –han berba horrekin esaten baitzaio–, eta mondragoetarrek gutxiago ez eta haiengana jo zuten, Jorge Zubizarretaren eta Alberto Etxebarriaren laguntzarekin, Arrasateko kuadrillek ere jaietan gauza bera egin zezaten. Hain zuzen, Alberto Arrasateko Udaleko Segurtasun Zibileko arduradun Jose Luis Etxebarriaren anaia da eta euren baserritik ekarri zituzten lehenengo palan-

ka eta kakoak. "Lehenago ondo irten zen eta sistema horri" eutsi ziotela kontatzen du Etxebarriak. Ordutik hona makina bat jasoaldi ikusi ditu Etxebarriak, susto bat baino gehiago eta erorketaren bat edo beste ere bai.

Historikoa, bai, behintzat, herrian oraindik askok gogoan dutena, 1996. urteko jaietakoa izan zen. Lurrera seko jausi zen orduan zuhaitza eta ikusle bat

harrapatu zuen bete-betean. Iker Zabalo arrasatearra izan zen zoritxarreko protagonista hura, eta gaur gogoratzean barre txikia ateratzen bazaio ere, momentuko sustoa egundokoa izan bide zen, inondik ere.

Polea sistema berria

Ezbehar arriskuaz jabetuta, sistema taxuzkoago baten bila hasi ziren Udalean. Udaleko aparejadore Añibarrori bururatu zitzaion sistema berria, polea eta sokekin egindako triangeluz baliatuta, altxaldia segurtasun handiagoz egiten zuena, kontrola erraztuta. Angeluak kalkulatu eta indarrak neurtuta, gaur egun arte eutsi zaion sistema da hori.

Jose Luis Etxebarriak dioenez, hiru bat bider jausi da malaka Arrasaten, hark gogoan duela, behintzat. Nekezago edo aiseago, kuadrillek tente jartzea lortu izan dute beti, osterantzean. Memorian bizi, oraindik, orain dela bi urtekoa izango dute askok, susto txikia egon baitzen. Sokatik larregi tira egin, polea askatu eta udaletxeko fatxadatik askatu zen



Kuadrillak, iaz, makala plazara garraiatzen. | ARTXIBOA



1996ko makalaren igoeraren unea. | ARRASATE PRESS

Lehenago Udaleko kamioiak jasotzen zuen makala

GURPILEN KANPAINA BEREZIA



ESKU LANA DOHAINIK

GURPILAK ALDATZEAGATIK


Ondo pasa
Sanjuanak!



San Andres Auzoa 10-D
Arrasate
Tel.: 943 77 30 10
takoloautoak@hotmail.com



*San Juan jai
zoriontsuak!*





Makalaren igoera, 2010ean. | ARTXIBOA

Puntan saririk ez, badaezpada ere...

Makalaren igoerarekin lotutako beste ohituretako bat zuhaitzaren puntan jarri ohi zen sariarena da. Segurtasun kontuak direla eta, badira hamabost bat urte jada gutun edo saririk ipintzen ez dena. Banderak, gutunak eta halakoak jartzen ziren lehen, eta hartzen zuenari saria ematen zion Udalak; urdaiazpiko bat sarri. Arantzadun alanbrea jartzen da ordutik hona, igotzea galarazteko. Igo zen azkenari, antza, puntara heltzerakoan indarrak ahuldu zitzaizkion, eta jaistean, erdi bidean, labaindu eta ipurdiz jausi zen lurrera. Orduan erabaki zen ohitura hori bertan behera uztea.

poleetako bat. "Zorionez, ez zuen inor jo", dio Etxebarriak, eta aitortzen du urte hartan antolakuntzako aginduei kasu handirik ez zietela egin gazteek. Jausi izan den hiru aldietan jendea "apur bat karanduta" zegoe la aitortzen du Etxebarriak, eta gehitzen du "agian poteo aurretik" egin beharko litzatekeela makalarena. "Orduan ez zen sistemaren hutsa izan", dio Etxebarriak: "Jendea beti ez da egoerarik onean egoten". Udaleko segurtasunaren arduradunaren gomen-dioa da makala eguerdian jasotzea: "Baina Arrasaten arratsaldeko seietan egitekoa da ohitura eta horren aurka ezin daiteke ezer egin eta badakigu bazkalosteak zer dakarren". Azkenean, orain dela bi urte makala kamioiak jaso zuen.

Hala eta guztiz ere, gazteei aitortza egiten die Etxebarriak eta baieztatzen du azkenaldian "oso fin" dabiltzala, ekintzak dituen arriskuez jabetuta, eta egoera onean eta antolatuta etortzen direla esaten du, "kontzientziatuta", haren berbetan. Udaltzaingoaren ikuskapena dago eta plaza ahal den neurrian libratzen da berme handiagoa izateko.



Iker Zabalo, gurasoekin, Udaleko emandako loreekin. | ARRASATE PRESS

Makalak jada makal

Gaiaz galdetuta, bide batez, azken ohar bat ere badu hark, ekitaldia bera kolokan jar dezakeena etorkizun gertukoan. Izan ere, makal egoki kopurua gutxitzen dabil. Udalak Elorregin duen sail batek ateratzen dira makalak, baina basoa soildu ahala geroago eta gaitzagoa da kalitatezko makalak aurkitzea; urteek, elurte eta haize gogorrek okertu eta kaskartzen dituztelako. Gutxi geratzen direla dio Etxebarriak. Lizarrak landa daitezkeela dio, makalik ezean tantai bezala erabiltzeko egoki liratekeenak.

Polea sistemarekin segurtasuna kontrolatu zen

Egun, udaltzainek ikuskatu eta plaza libratzen da gaur

INGELES, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA...

Uda honetan, **aktiba zaitez**

mondragonLingua rekin



Gure ikastaro trinkoekin
Ekainean, uztailan eta irailean... ez duzu ordu mugarik izango.



Gure udaleku irekiekin
Haurrek jolasean eta ondo pasatzen duten bitartean ingelesa ikasteko aukera dute.



edota gure **ikastaroekin atzerrian**

www.mondragonlingua.com

ARRASATE

Araba etorbidea 4. Tel.: 943 71 20 55

OÑATI

Motxon kalea. Tel.: 943 71 60 00



Iraganaz disfrutatzeko tresna ezin hobeak dira argazkiak

Kaleak alaitasunez eta umorez betetzea izan da beti jaizaleen helburu

SERGIO AZKARATE | ARRASATE

Garai baten, San Juan jaietako hirugarren eguna sekulakoa izaten zen herrian. Orduan bai, orduan mundu osoa irteten zen kalera, ume, gazte, heldu eta nagusi, eta, ondoko argazki batzuetan ikusten denez, denetariko ekitaldiak egiten zituzten.

Izan ere, Kuadrillen Eguna izaten zen hirugarrena, eta lagun taldeak moxorrotuta irteten ziren festa giroan; ondo landutako arropak guztiak ere.

Jendea, jendea eta jendea

Gaur egun, herriko zaharrenei entzunda batez ere, denek gogoratzen dute garai bateko sanjuanetako ezaugarri bereziena jendea zela; parte-hartzea, zelanbait esatearren. Bada, askok faltan igartzen dute hori, eta diote jaiak gauez bakarrik ospatzen dituztela gazteek.

Mozorrotu eta euskal ezkontza antzetzatu, banda berezi bat sortu... irudimena dantzan jartzen zuten herritarrek.

Hori bai, jaiak irauten zuten gainerako egunetan, herritar bakoitzak bere arroparik onenak ateratzen zituen festara.

Kontuak kontu, iraganaz disfrutatzeko, argazki zaharrak ezinbesteko lekukotasun dira.

Goitibehera lasterketan abiada bizian

Garai baten, goitibehera lasterketak egiten zituzten sanjuanetan Arrasaten; eta horren erakusle da ondoan dagoen argazkia. 1976koa da, eta, hain zuzen ere, Jose Maria Arizmendiarieta pasealekuan behera lehiatu ziren urte hartan, abiada bizian. Bertan agertzen dira, zutik, ezkerretik eskuinera: Luis Arregi, Juanjo del Valle Parron, Pedro Ezkurra Arkitekto eta Miguel Uranga; eta goitibeheran: Juan Bautista Agirre (aurrean) eta Josetxu Etxebarria Arkauz; kaskoa buruan, goitik behera jo eta sua.

Argazkia: Juan Bautista Agirre.



Ikuskizun paregabea eskaini zuten: euskal ezkontza

Errementari-dantza: zirrara berezia pizten du herritarrengan

Jai guztiek izaten dute ekitaldi bereziren bat, eta sanjuanetako errementari-dantza da, besteak beste. Izan ere, herritarrek denbora luzean egoten dira kaleetan, dantzariak noiz iritsiko zain. Eskuineko argazkia 1996ko jaietakoa da. Xabier Zubizarreta alkatea dago bertan. Bada, egun hartan, musikariak eta dantzariak Herriko Plazara iritsi ostean, alkateak errementari-dantza dantzatu zuen, horren ondoren sua piztu zuten eta Zubizarretak sutara bota zituen alpargatak; ohitura kontuak horiek ere, arrasatearren ekitaldi kuttunean.

Argazkia: Jose Luis Calleja.



SAN JUAN JAIK 2014



GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | JAIK: SANJUANAK 2014, ARRASATEKO JAIK

ASTEARTEA, ASTEAZKENA ETA OSTEGUNA, EKAINAK 24,25 ETA 26, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIK: SANJUANAK 2014, ARRASATEKO JAIK

EGUBAKOITZA, EKAINAK 27, 19:30 ETA 22:00

BABESLEA:

ARETXARGI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



1957ko ekainaren 26an euskal ezkontza egin zuen kuadrilla batek. Ezkongaiak, abadea, mikeletea, gonbidatuak eta musikariak. Denak zeuden. Emaztegaiaren arrea gurdi baten eraman zuten, idi pare

batek tira eginda. Harrezkero, argazkiko asko ezkondu egingo ziren, baina ezkontzako argazki politagorik ez zuten lortuko.

Argazkia: Mari Angeles Muruamendiaraz.



Beti Gazte kuadrillak 'banda' bat sortu zuen

1955ean Beti Gazte kuadrillak *banda* bat antolatu zuen, sanjuanak girotzeko. Batzuk Arrasateko Bandako kide ziren; benetako musika tresnak eta imitazioak atera zituzten.

Ikusten denez, kartel bat ere atera zuten, Julio Markaidere esaldi batekin, euskarak zentsura handia bizi zuen garaian.

Argazkia: Beti Gazte kuadrilla.



Garai batean herri osoa irteten zen kalera jaietan

Oso esaldi tipikoa da hau: "Jendetsuak izaten ziren orain dela urte batzuetako sanjuanak". 1940-50eko hamarkada inguruko argazki horretan argi ikusten da garai baten herri osoa

irteten zela kalera. Gutxi batzuk argazkilariari begira, eta gehienak makalaren inguruan dantzan; jaietako hirugarren eguna zen.

Argazkia: Jose Mari Lasagabaster.

Zorionak, Arrasate!

San Juanetan euskara ezpainen

aralar

www.aralar.net

Antzerkia, rock-and-rolla eta erromeria

Sex Museum izango da aurtengo izarra eta Demode Quartet-en 'Epa!' ere ikustekoa izango da

ZAPATUA

21

Sex Museum, Señor No, Screemers and Sinners

Txosnagunea | 22:00etan

Señor No eta Sex Museum; hasiera ezin hobea izango dute aurtengo jaiek. Bi talde horietaz hitz egitea Euskal Herriko zein Espainiako *underground* eszenaren talde handiez hitz egitea da; lehenengoak Xabi Señor No buruan dutela, EHko Lemmy Motorhead

Kilmister, eta bigarrenak Pardo anaien inguruan sorturiko talde edo mito bat. Urte hauetan guztietan zerbait argi utzi badute, zuzenekoetan gupidarik ez dutela da; estatu mailan zein Europa mailan ezagunak biak, urteotan izan den kontzertu erakargarrietako bat izango da, zalantza barik. Eurekin batera Screemers and Sinners boskotea arituko da. *Demon Tales* diskoa aurtun argitaratu dute arrasatearrek eta azkenaldian kontzertuz kontzertu ibili da taldea. Psychobilly estiloa ikur daramate eta zuzeneko bizi eta dibertigarriak eskai-



Miguel Pardo, Sex Museum taldeko abeslaria | JAGOBA DOMINGO

ni ohi ditu taldeak; etxean jotzeak eta bi talde mitikoekin jotzea motibazio estra emango die.

Señor No donostiarrak La Perrera taldearen errautsetatik jaio ziren 1993an Buenavista entsegu lokaletan. Hasieratik estatu mailan kritikak harrera ona egin zien; lehenengo lanak No Tomorrow diskoetxearekin argitaratu zituzten, eta ordutik hona hamar erreferentziatik gora publikatu dituzte. Azken urteotan formazioak hainbat aldaketa izan dituen arren, Xabi Garre gitarrista eta abeslariak taldearen buru izaten jarraitzen du eta, besteak beste, Flamin' Groovies taldeko Roy Loney abeslariaren talde bezala lan egin dute.

Sex Museum madrildarrei buruz zerbait berria esatea ia ezinezkoa da. Rock-and-rollaren langile sutsu eta nekaezinak, Marta Ruizek, Miguel eta Fernando Pardo anaiek, Javi Vacasek eta Roberto Loza Lozanok osaturiko taldea –azken hirurak Los Coronaseko taldekoak– berriz ere Arrasatera etorriko da. 360 aretoa itxi zutenetik Malasaña-

koak ez dira sarrailagileen herri-tik pasatu, eta, ziur asko, boskotea gogotsu etorriko da.

1987an *Fuzz Face* estreinakoa argitaratu zutenetik urte asko pasatu dira, eta, taldeak gorabeherak izan zituen arren, azken boladan indartsu agertu dira oholtzan. *Big City Lies* (Tritone Records) da boskotearen erreferentzia berria, eta, musika adituen arabera, hasieretara bueltan da Sex Museum. Hala ere, *Big City Lies* berria besapean ekarri arren, *Two Sisters*, *Flying High* eta *Let's Go Out* klasikoek bozgorailuak gogoz urratuko dituzte.



Demode Quartet. | DEMODE QUARTET



Xabi Sr. No zuzenean. | JAGOBA DOMINGO

ASTELEHENA

23

Gaubela

Herriko Plaza | 24:00ean

Gaubela boskotea izango da San Juan jaietan erromerien ordezkaria. Zortzikoak, arin-arinak, balsak eta kantu mexikarrak Gaubelaren oinarri diren arren, gaur egungo pop-rock kantuek ere lekua izango dute.



aroztegia
arrascal

SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK

%20ko
DESKONTUA



ONDO PASA SAN JUAN JAIK!

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com



Zea Mays, Oñatiko gaztelekuan. | GOIENA



Los Zopilotes Txirriaos. | ZOPILOTES TXIRRIAOS

MARTITZENA

24

Fan&Go

Herriko Plaza | 23:15ean

Fan&Go zarauztarrek kantu eza-gunekin girotuko dute Herriko Plaza. Boskoteak dantzaldia egin-go du Herriko Plazan.

Demode Quartet

Monterron parkea | 23:15ean

Musikak eta antzerkiak bat egin-go dute Monterronen Demode Quarteten eskutik. *A capella* abes-turiko kantuak oinarri hartuta, umorez beteriko ikuskizuna sor-tu zuten duela lau urte. Oraingoan, ikuskizun berriarekin dator lau-kotea; *Epa!*. Aurrekoan Queen, edo Madonnaren kantuak abesten bazituzten, orain, Itoiz, Lertxun-di eta Leteren klasikoak interpre-tatuko dituzte; guztiak, galderaz betetako antzerkian integratuta.

EGUAZTENA

25

Gatibu, Zea Mays, Las Tea Party

Txosnagunea | 23:00etan

Eguaztenean Zea Mays eta Gatibu taldeek girotuko dute txosnagunea. Zapatuan ez bezala, pop eta rock musikak hartuko du taula. Euskal Herri mailan, azken urteotan lehe-nengo irrati formulen lehenengo ilaran egon dira bi taldeak, eta publikoa erakartzeko apustua bes-te urte batzuetan ondo irten bazaie, oraingoan ere hala izango da.

Gatibuk, Alex Sarduik sortu-tako taldeak, *Zazpi kantoietan* lana argitaratu zuen orain dela bi urte, eta uda kontzertuz josita du. Bizkaiko laukotea jaietan iaioa da, eta *Bang bang Txiki txiki*, *Gabak zerura begire* eta *Musturrek sartunde* abestiek dan-tzan jarriko dituzte gaztetxoak.

Zea Mays bilbotarrak ere dis-

ko berriarekin etorriko dira Arrasatera. Azaroan kaleraturi-ko *Da* diskoa besapean dutela. Abendua ezkerok alderik alde ibi-li da laukotea. Taldearen zazpi-garren erreferentzia diskografikoa da, eta, oraingoan, Depeche Mode eta The Sisters of Mercy taldeekin lan egin duen ekoizlearekin, Dave M. Allan-ekin, egin dute lan. Aio-ra Renteria abeslariaren gidari-pean, rock-zaleak asetzera eto-rriko dira.

Gaua amaitzeko, Las tea Party disko-jartzaileak igoko dira txos-naguneko oholtzara. Eva Gutie-rrezek eta Lorea Argaratek osa-turiko bikoteak funketik eta

elektroswing estiloetatik edaten du eta jai giroa bermatuko du.

Esencia de Jalisco

Herriko Plaza | 23:00etan

Folklore mexikarrak ere lekua izango du San Juan jaietan. Esen-cia de Jalisco mariatxi taldeak Ameriketako musika ekarriko du, eta, Herriko Plazan dantzaldia eskaintzeaz gain, eguerdian ere kalez kale ibiliko dira Mexikoko kantuak interpretatzen.

Zortzikotea hainbat aldiz egon da eskualdean eta aukera ona izan-go da *Alla en el rancho grande* moduko kantuez gozatzeko.

EGUENA

26

DjOn Urbieta

Herriko Plaza | 20:00etan

Eguenean disko-festak izango dira protagonista eta lehen saioa DjOn Urbietak eskainiko du neska-mu-tikoentzat Herriko Plazan.

Zopilotes Txirriaos

Seber Altube | 20:00etan

Napar-Mex batailatutako estiloan errege dira Zopilotes Txirriaos. Dagoeneko urteak daramatzate bazterrak nahasten, eta jai giro-rako aukera aparta izango da.

Ohian Vega diskofesta

Herriko Plaza | 23:00etan

Gaztea irratiko esatari bergara-rra ere Arrasaten izango da aur-ten. Vegak ere udako kantuekin dantzan jarriko ditu arrasatear neska-mutikoak.

Arrasate Musikaleko Banda

Urteroko ohiturari eutsiz, Arrasate Musikaleko Bandak kontzertua eskainiko du Monterron parkean 24an, 13:00etan. Markiegi zuzendariaren gidaritzapean,

pieza klasiko eta garaikideak interpretatuko dituzte, operatik hasi eta The Beatles ingelesen kantuetara, San Juan jaietako kontzertu berezi eta kutunetarikoa.

EGITARAUA

